goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2016-07-15
EGUBAKOITZA
692. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS

TOKIKOM

Lezetxikiko indusketa lanek etena izango dute bi urtez | 2

Eusko Jaurlaritza ere sartuko da UNEDeko patronatuan | 2

Mairuaren Alardearen zain, jaietan bete-betean dira Antzuolan | 19

Aretxabaletan ere edukiontzi berriak erosteko argi berdea | 17

Eneko Carrascal atleta arrasatearra Europako Txapelketan, Tbilisin | 22

NESKEN TXIRRINDULARITZA KRITERIUMA

Kilometroak 2016ren alde jokatuko da gaur, egubakoitza, Bergarako kaleetan eta 50 ziklista izango dira lehian | 22

Lokatzako, Kilometroak 2016ko eta Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko ordezkariak Bergarako alkatearekin.

JOSEAN ARENAZA

SINADURAK

LANDER BELOKI | 6

6 | UBANE MADERA

ENERITZ URRUTIA | 10

13 | AITZIBER PLAZAOLA

ELIAS ZUMALDE | 16

32 | MIKEL IRIZAR



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- **'Tortura:1960-2013' ikerketa, erreportajean**
- **Gatzagako auto igoera, jatorrizkora bueltan**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6
HERRIAK 7 | KIROLA 22 | KULTURA 24
ZURE RAGARKIAK 26 | ZORION AGURRAK 27
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

Hondakinen gaikako bilketak gora egin du

Gaur egun %80tik gora jasotzen da gaika ibarrean | 3

Garbiketa ordenantza aurrera Arrasaten

Oposizio osoaren aurkakotasunarekin onartu dute | 8

☎ 943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • *hemen@hemen-garbiketak.com*

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto

"Datozkigun aldaketetara egokitu eta gure eredu propioa sortu gura dugu"

- Iñaki Esparza Bergarako UNEDeko zuzendariak dio 40. urteurrena behar bezala ospatuko dutela
- Helburua da eskola presentzialera joan ezin diren pertsonentzat goi mailako formakuntza erraztea

ENEKO AZURMENDI | BERGARA

1974an sortu zen UNED unibertsitatea, eta bi urte geroago, 1976an, Bergarako zentroa ireki zuten. Aurten, beraz, 40 urte betetzen ditu azken honek, eta, urteurren hori ospatzeko, ez da ospakizunik faltako.

Ospakizunak irailean

Iñaki Esparza Bergarako UNEDeko zuzendariak azpimarratu du urtearen lehen erdia "planifikatzen" igaro dutela eta "benetako ospakizunak" irailetik aurrera etorriko direla.

Bi elementu nagusiz osatutako egitaraua antolatu dutela nabarmendu du Esparzak. Alde batetik, "tutore, koordinatzaile, ikasle, eta abarrekin antolatutako hitzaldi eta mahai-inguruz osatutako egitarau zabala" prestatu dute. Bestetik, Alexander Von Humboldt elkartearen estatu mailako 25. topaketa egingo dutela adierazi du, irailaren 15etik 17ra bitartean.

Horrez gain, Esparzak onartu du "garrantzitsua" dela zentroa

Iñaki Esparza, *Harira* saioaren ostean. | ENEKO AZURMENDI

Bergarara ekartzeko erabakia hartu zutenak ikasturte akademikoaren hasiera ofizial horretan egotea, eta hori lortu gura dutela –Jose Luis Elkoro orduko alkatea, Jesus Arpal lehenengo zuzendaria eta Manolo Cainzos irakaslea– .

"Eusko Jaurlaritzak gure patronatuan parte hartuko du hemendik aurrera"

Urteurrenari dagokionez, zuzendariak adierazi du ospakizunen helburu nagusia dela proiektu honen inguruan jende asko dagoela ikusaraztea eta jende horren ezaugarri nagusietako bat, eskuzabaltasuna, azaleratzea. "40 urte pasa ostean, oraindik ekarpenak egiteko prest daude", gaineratu du.

"Euskal Herriko unibertsitateen arteko koordinazioa falta dela uste dut"

Formakuntza erraztu

Aurrera begira jarrita, suertatzen zaizkien aldeketetara egokitu beharko direla azaldu du. "Modu guztietako aldaketak egoten dira, ez bakarrik teknologikoak; sozialak, akademikoak eta beste hainbat motatakoak ere bai. Beraz, aldaketa horietara egokitu eta gure eredu propioa sortu gura dugu", dio. Horrez gain, helburu nagusia unibertsitate presentzialera joan ezin diren pertsonentzat goi mailako formakuntza erraztea dela adierazi du.

Eusko Jaurlaritza

Bestalde, Esparzak azaldu du Eusko Jaurlaritza beraien patronatuan parte hartzen hasiko dela. "Aurten gauzatuko da Eusko jaurlaritzaren parte-hartzea gure patronatuan. Arduradunak esan zidan lan tekniko guztia eginda dagoela eta gauzatzea bakarrik falta dela. Horrek esan nahi du mapa horretan egoteko estatusa lortu dugula", dio. Sentsibilitatea badagoela dio, baina urrats batzuk egin behar direla praktikan ikusten den mapa hori instituzionalki egituratzeko.

Koordinazioa

Euskal Herriko unibertsitate ezberdinen arteko koordinazio falta ere ikusten du Esparzak. "Potentziala handia da eta edozein eskaintza egiteko gaitasuna badago, baina horretarako unibertsitateak koordinatzeko tresna bat falta dela uste dut", azpimarratu du. Gaineratu du, epe ertainean ez bada, aurrerago izango dela koordinazio hori, "beharra" dagoelako. "Esku artean daukagun katalogo zabal horrek ze tamaina daukan jakiteko, urrats batzuk egin behar dira", nabarmendu du.

Presentzialtasuna

Azkenik, ikasleak klasera joateren garrantzia azpimarratu du Bergarako UNEDeko zuzendariak. "Presentzialtasuna mantentzen saiatzen gara. Hasieran, ikaskideen artean eta irakaslearekin dagoen kohesioa garrantzitsua izaten da. Norbera bakarrik, askotan, agortu egiten da. Beraz, kontaktu hori mantentzea garrantzitsua dela uste dugu, bereziki, porrota ekiditeko", zehaztu du.

Informazio gehiago Bergarako atalean dago, 12. orrian.

Bukatu dituzte aurtengo Lezetxikiko indusketa lanak

21 urte hauetan 55.000 pieza inguru aurkitu dituzte Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek

ENEKO AZURMENDI | ARRASATE

Bukatu dituzte Lezetxiki kobako aurtengo indusketa lanak Aranzadi Zientzia Elkarteko ikasle, irakasle eta beste zenbait kideek, Alvaro Arrizabalaga arkeologoa buru dutela.

Aurten 21. urtea da induseta lanok egiten dituztena; Zientzia Elkarteko kideen esanetan, Gipuzkoa mailan ez dago hainbeste urtez jarraian aztertzen ibili diren beste kobarik. Urte hauetan guztietan, 55.000 pieza inguru aurkitu dituzte.

Indusketen etena

Alvaro Arrizabalaga arkeologoaren esanetan, indusketa lanak bertan behera utziko dituzte denboraldi baterako. "Orain, ikerketa taldearen beste zati garrantzitsu bat sartuko da: laborategi lanak egiten dituztenak, hainzuzen. Hala, batutako guztia digitalizatu egingo dugu, eta, urte pare batean, berreskuratutako informazioarekin monografikoak eta bilduma oso bat kaleratzeko moduan izango gara. Hala ere, nahiko lan konplexua da, hausnarketarako etena eta lasaitasuna eskatzen duena", adierazi du. Aztarnategiaren "zati garrantzitsu" bat oraindik aztertzeko gelditzen dela onartu du Arrizabalagak. "Hala ere, gure helburu nagusia [beheko haitza jotzea] aurten argi eta garbi lortu dugu, eta orain, informazio hori guztia aztertzen izango dugu lana", onartu du. Gero helburuak birdefinitzeko garaia izango dela eta egin daitekeena aztertzeko moduan egongo direla adierazi du arkeologo oñatiarrak.

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak lanean atzo, eguena. | ANDONI BODES

Juan Ramon Mendieta Arrasateko Kultura eta Euskara zinegotziak gaineratu du bi urte barru indusketekin jarraitzeko asmoa dutela: "Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena emanez gero, indusketa-lanek jarraitu egingo dute", nabarmendu du.

Hondakinen gaikako bilketa maila %80,85 izan da Debagoienean urtarriletik maiatzera arte

- Mankomunitateko ordezkariek, Bergara, Elgeta eta Eskoriatzako datuak ere eman zituzten aditzera
- Ontzi arinen eta paperen eta kartoien birziklapenaren mozkinak 961.712 euroko izan ziren 2015ean

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA

Elgetako, Eskoriatzako, Bergarako eta Debagoieneko gaikako bilketaren datuak emateko prentsaurrekoa egin zuten martitzen goizean Mankomunitateko egoitzan. Bertan izan ziren Unai Elkoro, Mankomunitateko lehendakaria; Elena Lete, Bergarako alkatea; Sebas Aranzabal, Elgetako Ingurumen zinegotzia; eta Jose Ramon Zubizarreta, Eskoriatzako alkatea.

%80ko langa gaindituz

Bailarako datuek hobera egiten jarraitzen dutela adierazi zuen Unai Elkorok, leku gehienetan %80tik gorako datuak lortu dira eta. Debagoien mailan urtarriletik maiatzera gaikako bilketa maila %80,85 da. Iazko maila baino hiru puntu handiagoa eta Gipuzkoakoa baino 30 puntu handiagoa.

"Jendea oso kontzientzatuta dago eta ondo egiten du egin beharreko lana. Bestalde, gure datuak ezin daitezke Gipuzkoakoekin alderatu. Gipuzkoa mailan bost puntu igotzea ezin daiteke gure bailarako igoerekin konparatu. %80tik gorako bilketa mailan zaudenean, edozein igoera txikik asko balio du. Beste maila batean ari gara", adierazi du Elkorok.

Ecoembes-en txostena

Horretaz gain, Ecoembes erakundeak Debagoieneko 2015eko datuen txostena kaleratu du. Bertan, ontzi arinen eta paperen eta kartoien birziklapenaren xehetasunak azaltzen dira. 2014tik hona, ontzi arinen bilketa %32,22 igo da eta paperena eta kartoiena, aldiz, %14,5. Debagoieneko biztanle bakoitzak, 2015ean, 28,2 kilo ontzi arin eta 33,6 kilo paper eta kartoi birziklatu ditu. Ontzien kasuan, EAEko datuaren bikoitza da (14,2 kilo) eta Espainia mailakoaren hirukoitza (8,9 kilo).

Ingurumen onurez gain, ondo birziklatzeak baditu onura ekonomikoak ere; datu on horiei esker, ontzien eta paperen eta kartoien birziklapenak eragiten dituen diru sarrerek %22,1 egin dute gora. 2014an 787.727 euro izan ziren eta 2015ean, aldiz, 961.712 euro. Horri esker hondakinen tasak bere horretan mantentzea lortuko dela uste dute Mankomunitateko ordezkariek.

Edukiontzi marroia Arrasaten. | IMANOL SORIANO

Herrietako datuak

Herrika, denek lortu dute daturik onena maiatzean. Bergarako kasuan, %83,81eko bilketa maila lortu dute maiatzean. 2016ko lehen bost hilabeteetako batez bestekoa %82,47 da. Iazko datuarekin alderatuta, bi puntu eta erdi hobea da. "Inoiz ez dugu izan horrelako gaikako bilketa maila handirik, eta oso pozik gaude. Sistema aldaketak erosotasuna ekarri die bergararrei, eta datuek gora egitea eragin duela uste dugu. Herritarren lana goraipatu behar da, eta eskerrak eman behar zaizkie lortutako emaitzengatik eta ahalik eta gehien birziklatzeagatik", esan du Elena Lete Bergarako alkateak.

Elgetan ere datuak onak dira. Datu onena maiatzean lortu dute %83,21eko mailarekin eta urteko batez bestekoa %80,21ean kokatzen da. Iazko datua baino ia hiru puntu handiagoa. Herritarrak zoriondu ditu Ingurumen zinegotzi Sebas Arantzabalek, eta aipatu du Gipuzkoa mailan era horretako datuak lortuz gero, erraustegia ez litzatekeela beharrezkoa izango.

Eskoriatzan, iazko datuekiko %0,3 egin du behera. Kontuan izan behar da apirilean sistema aldaketa egin berri dutela. Hala ere, "apiriletik maiatzera bilketa datuak puntu bat egin du gora", adierazi zuen Jose Ramon Zubizarreta alkateak.

Oñati gestio heziketa

Industrial SL (Fagor CNA Group)
Dualeko enpresa kolaboratzailea

Oñati Gestio Heziketan (MU Enpresagintza Fakultatea, Oñati), FP Dualeko programa martxan ipini da ikasturte honetan, eta bertan parte hartzeko aukera ikasle guztiei eskaintzen zaie. Jarraian, kolaboratzailea den enpresa baten ikuspuntua.

Enpresa ikuspegitik, zein onura eskaintzen dizkio FP Dualeko programak ikasleari?
Asko dira ikasleak jasotzen dituen abantailak. Alde batetik, arlo akademikoan garatutako konpetentziak finkatzeko aukera dute eta baita beste berri batzuk, "konpetentzia profesionalak", garatzekoa ere. Bestalde, lan munduan murgiltzeko erraztasuna ematen die, eta baita laguntza ekonomiko bat eskaini ere.

Akademikoki oso garrantzitsutzat jotzen da ikasleak enpresan esperientzia bat izatea. Errealitate horrek ikaslearen ezagutza osatu eta lan munduan abantaila konpetitibo bat ematen diolakoan zaude?
Bai, zalantza gabe! Arlo pertsonalean konpetentzia sozialak garatu eta moldatu ahal izango ditu; arlo pedagogikoan, berriz, praktika erreal batzuk jasotako ezagutzak osatzen lagunduko die; eta azkenik, arlo profesionalean, etorkizunera begira, abantaila konpetitiboak izango ditu ikasleak, enpresa bateko inkorporazio prozesuan, besteak beste.

Zein funtzio betetzen du ikasleak enpresan?
Urtebeteko lan-kontratua izanik, zereginak aldatzen joango dira, berauen konplikazio maila areagotzen doa. Gure kasuan, ikasleak Marketin eta Komunikazio Departamentuan 360 graduko inkorporazioa izatea nahi dugu. Era horretan, departamentuko postu desberdinetatik pasatuko da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?
Ezinbestekoa da enpresek eta hezkuntza erakundeek elkarrekin etorkizuna eratzea, hauek baitira gizartean ezagutza, berrikuntza eta hazkuntza ekonomikoa garatu eta bultzatzeko nahitaezko bi agente. Ondorioz, hauen arteko kooperazioa areagotzea ezinbesteko ikusten dut.

Nagore Bonilla Gabarain, Marketin eta Komunikazio zuzendaria, Edesa Industrial SL (Fagor CNA Group)

Informazio gehiagorako kontaktua:
rigarza@mondragon.edu – 943 71 80 09

RENAULT
Passion for life

AUTOBERRI S.L.
San Andrés Auzoa, 5 Arrasate
Tel.: 943 71 24 72
www.autoberri .com
E-maila: autoberri@red.renault.es

Renault Minutua: mantentze-lanak, pneumatikoak, ITV aurrekoa, eta abar.
Mekanika, karrozeria, karrozeria azkarra.

CITROËN
ION AUTOAK
Amillaga 36
Bergara
Tel.: 943 76 47 49
automovilesion@hotmail.com
Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

BERGARA PNEUMATIKOAK
- **Pneumatikoak**
- **Olio aldaketak**
- **Mekanika azkarra**

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 763627 • 638 26 77 64
bergarapneumatikoak@gmail.com | *www.bergarapneumatikoak.com*

AUTOAREN KRISTALDEGIA
•
INPAKTUEN KONPONKETA
•
LAMINA SOLAR
BAIMENDUAREN INSTALAZIOA
CRISTALBOX
DESA CRISTAL
Santalaitz, 6-5. Pab.- BERGARA - ITVaren kalean
Tel.: 943 76 36 09 • www.desacristal.com

T. Blanco
Mekanika
Elektrizitatea
Mota guztietako pneumatikoak
Erakusketa eta salmenta:
Amillaga 22, BERGARA • Tel.: 943 76 17 35

BOSCH Service
Lagun Garajea
Elektrizitatea · Balaztak · Abs, Esp · Mekanika · Aire girotua · Pneumatikoak · Gasolina eta diesel injekzioa
Santalaitz, 3 · Bergara · 943 76 11 20

KIA
Txapime Autoak
Debagoieneko
KIA ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA
30 urte baino gehiagoko esperientzia
Chapimeren eskutik
ABUZTUAN ZABALIK!!!
San Andres Auzoa, 5 · Arrasate · Tel.: 943794522

Murillo Garajea
EuroTaller
Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo

Gallastegi MOTOR SPORT
GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA
VAGSPEED
reprogramazioko etxeen banatzaile ofiziala.
Markulete industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58
Mekanika orokorra.
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza.

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Audi Volkswagen Skoda SEAT
Salmenta eta salmenta osteko zerbitzu osoa

GARAJE BERRIA
MULTIMARKA
Eskaintza handiak Km 0 eta bigarren eskuko autoetan!
Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara
fordberria@telefonica.net • www.garajeberria.com • garajeberria@gmail.com

OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA
TAKOLO AUTOAK
San Andres 10 D • Tlf.: 943 77 30 10
Salmenta
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak

ad Ibabe
GARAJEA
TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA
Gesalibar auzoa 31
Tel.: 943 79 99 61 • Faxa: 943 79 13 90

CITROËN
Talleres Chapime, S.C.L
Debagoieneko Kontzesionario Ofiziala
San Andres Auzoa 5 ARRASATE
www.tchapime.citroen.es
e-maila: chapime@chapime.redcitroen.com
Mekanika, karrozeria, pneumatikoak, garbiketan, beiren aldaketa eta tindaketa

Jar ezazu zure autoa puntu-puntuan eta ondo pasa oporrak
bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak, balaztak, pneumatikoak. olio,nibelak...

Mondragon taldearen erronkak definitzeko batzarra

Talde kooperatiboaren kongresua egingo dute hilaren 20an, Donostian

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Testuinguru sozioekonomikoa minuturo aldatzen ari den mundu honetan, enpresen erronkak handiak eta pisutsuak dira.

Mondragon taldearen kasuan, hauek garbi edukitzea eta langileek barneratzea estrategikoa da etorkizunerako. Horren garrantziaz jabetuta aurkezten da talde kooperatiboaren aurtengo kongresua. Donostiako Kursaal aretoan egingo da uztailaren 20an eta bi ponentzia nagusi izango ditu: *Etorkizuneko Mondragon* eta *Politika Sozio Enpresariala 2017-2020*.

Etorkizuneko Mondragon

Hurrengo urteetan korporazioak jarraitu beharreko ildo estrategikoak izango dira lehen ponentzian landuko diren gaiak. 2014ko azken kongresuan azaldutako kezka nagusiei erantzuna emateko, hiru bloketan jorratuko dira bertan.

Horietako lehena *Balioen bizipena* da eta iraganean egindako akatsetik ikasteko asmoa du. Autoexigentzia eta erantzukizun indibidual eta kolektiboaren kultura garatzearen beharra azpimarratzen dira puntu honetan. Elkarren arteko lankidetza areagotzea da hori lortzeko bideetako bat. Bide hori egiteko elkartasun erantzule kontzeptua barneratzea azaltzea barneratzea izan daiteke gakoa.

Antolamendu eredu berriak da bigarren blokea. Talde kooperatiboaren baitan dauden errealitate sozioenpresarial guztiei erantzutea eta garatzen laguntzea du helburu.

Hirugarren blokeak *Elkarren arteko lankidetzako finantza fondoak eta tresnak* izenburua du eta bi fondo berri sortzea planteatzen du: Kohesio eta Garapen Fondoa (KGF) eta Hedapen Fondo Kooperatiboa (HFK). Azken hau Mondragon Taldeko dibisio bakoitzean ezartzea proposatzen dute. *Start up* jarduerak finantzatzeko eta finkapen eta hazkunde proiektuetarako erabiliko litzateke. Era horretan, kooperatiben lehiakortasuna areagotu eta hauen proiektu berritzaileak indartzea da lortu nahi dena.

2020ra begira

Kongresuko bigarren ponentzian, 2020ra bitarteko politika sozioekonomikoak landuko dira. Zentzu horretan enpresek eta langileek erronka berrietara moldatzeko daukaten gaitasuna izango da klabe nagusia.

Horretaz gain, enpresa bakoitzak bere merkatu posizionamendua hobetzeko estrategiak definitu beharko dira, eta enpresen bateratzeak asko lagundu dezake horretan.

Erronka horri aurre egiteko bost estrategia finkatu dituzte Mondragoneko zuzendaritzatik: konpromisoa eta nortasun kooperatiboa, finantzaketa, enpresa berrikuntza eta sustapena, elkarren arteko lankidetza eta presentzia globala.

Kongresura eta etorkizunera begira baikor agertu da Javier Sotil: "Onena etortzear dago. Kapaz bagara merkatuak ulertzeko, tendentzia nagusiak nondik etorriko diren ikusteko, berrikuntzarako gaitasunak indartzeko eta elkarren artean lan egiteko, partidua irabazita daukagu".

Hemen dira 23. Jardunaldi Gastronomikoak

Uztailaren 11tik 25era menu bereziak eta bertako produktuak dastatzeko aukera izango da

X.G. | DEBAGOIENA

Martxan dago Jardunaldi Gastronomikoen beste edizio bat. Uztailaren 11tik 25era, menu bereziak, bertako produktuak, bisita gidatuak eta azoka ezberdinekin gozatzeko aukera izango da.

Erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlanaren fruitua da, Debagoieneko Mankomunitateak, Deba Garaia Landa Garapenak, Debagoieneko udalek eta bailarako ekoizle, museo eta jatetxeek hartzen baitute parte. Debagoieneko turismoa gastronomiaren bitartez bultzatzea du helburu nagusi.

Kontrastedun eskualdea

Antolatzaileen esanetan: "Debagoienak baditu gastronomia aldetik bereizteko aukerak, kontratedun eskualdea garelako. Gatzagako gazitik, Bergarako tostoietara edo Oñatiko txokolatera". Debagoieneko baliabide gastronomikoak goraipatzeko, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreen arteko elkarlana beharrezkoa da.

Aurtengo edizioan, Goiko Benta, Hilarion, Lasa, Maialde eta Santa Ana jatetxeek garaiko produktuekin egindako menu bereziak eskainiko dituzte, eta bakailaoa, txakolina eta bertako barazkien presentzia nabaria izango da.

Bisita gidatuak

Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzako plangintza turistikoaren barruan, ondorengo bisita gidatuek *Top Esperientzia* izendapena izango dute: *Txokolatezko zaporekoak* Oñatiko Txokolateixian, Leintz Gatzagako Gatz Museoa eta Oñatiko Euskal Artzainen Ibilbideak.

Azken horretan, artzainen bizimodua sakonago ezagutzeko, Gomiztegi baserrira bisitak antolatu dituzte. Bisita guztietan aldez aurretik izena ematea gomendatu dute antolatzaileek.

Jon Ajuriak Zientzia eta Teknologiako III. Kongresuko hitzaldi onenaren saria jaso du

Oliba-hezurren ikatzari erabilpen teknologikoa emateko proiektua azaldu zuen

X.G. | ARRASATE

Jon Ajuria ikerlari arrasatearrak III. Zientzia eta Teknologia Kongresuko hitzaldi onenaren saria jaso berri du. Materialen Kongresu horretan, Euskal Herriko ikertzaile garrantzitsuenetariko batzuek materialen zientzian eta teknologian izan diren aurrerapen berrienen gainean hitz egin zuten. Euskaraz gai horren gainean egiten den kongresu garrantzitsuena da.

"Poztasun handia izan zen, niretzat, komunitate zientifikoaren aitorpena jasotzea. Gure aurkezpenaren maila ona izan zen, eta saria jasotzeko modukoa izan zitekeela uste nuen", adierazi du Ajuriak.

Jon Ajuria sariarekin (eskuinetik hasita bigarrena). | CIC ENERGIGUNE

Balio erantsidun proiektua

Ajuriak garatutako proiektua hainbat esparrutan erabili daitekeen arren, ibilgailu elektrikoetan erabiltzeko dago pentsatua. "Era honetako ibilgailuek bateria bat eta superkondentsadore bat behar izaten dute. Bateriaren bitartez energia kontsumo konstantea elikatzen du, eta, potentzia handia behar dutenean, arrankatzeko edo abiadura handitzeko, superkondentsadorea erabiltzen dute. Guk garatu nahi dugun superkondentsadore hibridoak bi gailu horiek bakar baten batuko lituzke, horrek dakartzan espazio eta kostu onurekin", adierazi du ikerlari arrasatearrak.

Baina balio erantsia ez da horretara mugatzen. Kondentsadorea elikatzeko energia iturria da proiektuaren beste onuretako bat. "Oliba-hezurra material lignozelulosikoa da, eta aproposa da ikatzak egiteko eta superkondentsadoreetan aplikatzeko. Europako legediak ez du onartzen elikagaiak erretzea energia lortzeko, baina, kasu honetan, elikagai baten hondakinaz ari gara. Era komertzialean erabiltzen den ikatz aktibo nagusia koko-azala da. Hemen ez dago halakorik, eta ekarri egin beharko litzateke; beraz, garestia eta ez jasangarria izango litzateke. Baina oliba-hezurren kasuan, eskura dagoen industria batetik lortu daitezke", azaldu du Ajuriak.

Arrasatear bat olatu erraldoien ehiztarien pausoen atzetik

X.G. | ARRASATE

Asier Altuna *Txokito* arrasatearrak hainbat pasio dituen horietakoa da. Orain, ordea, horietako bi proiektu bakarraren baitan uztartzen aritu da: surfa eta bideogintza.

Jon Goikoetxea gasteiztarrarekin eta Oier Bartolome debarrarekin batera Bideolan ekoizpen-etxea sortu du Altunak. *Euskal balearen ehiztariak* izeneko dokumentala egin du hirukoteak, eta pasa den ekainaren 25ean aurkeztu zuten Donostiako Surf Film Festival lehiaketan.

Hasieran, Gipuzkoan dauden olatu erraldoien atzetik ibiltzen diren surflarien gaineko film labur bat egiten hasi ziren, baina pauso bat harago joan ziren balea ehiztarien eta surflarien arteko harremana lantzerakoan. Benito Lertxundiren *Orioko balea* abestiak zerikusi handia izan zuen horretan.

Kanta entzutean, balearen arrantzaren eta olatu handien ehizaren erlazioarekin jolasteko ideia garatu zuen Oier Bartolomek.

Miguel Altuna institutu berriko lanak abuztu aurretik martxan

UBANE MADERA | BERGARA

Bergarako Miguel Altuna institutu berriko obrak bi hilabete inguruz geldi egon ostean, uztaila amaitu aurretik berriro ere lanekin hastea da Eusko Jaurlaritzaren asmoa. Obrak geldi egotearen arrazoia izan da obra hasierako lur mugimenduak egitean konturatu direla orubeko lurra oso bustintsua dela eta horrek zimentazio arazoak eragingo dituela, proiektuan aurreikusi barik zeudenak.

Institutuaren azpiegitura berriak 10.000 metro koadroko azalera hartuko du, Bergarako San Martin auzoan –Candyrena zen fabrikaren ondoan–. Elkarri lotutako bi eraikin egingo dituzte: bata tailerretarako erabiliko dute eta bestea, berriz, ikasgeletarako eta, oro har, administrazioarekin lotutako zerbitzuetarako. Ferrovial Agroman enpresa dabil obrak egiten 7.000.000 euro pasako aurrekontuarekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kontura, eta aurreikuspena zen hogei hilabetean bukatzea.

ZABALIK

LANDER BELOKI
goiena.eus/komunitatea/

Tamaina eta lehiakortasuna

Confebaskek argitaratu duen azken txostenean, enpresen lehiakortasunean dimentsioak duen garrantzia aztertzen da. 2015ean Euskadin 158.810 enpresa zeuden; 10 langile baino gutxiago zituzten mikroenpresak, horietatik %93,7; 10-50 langile tartean kokatzen ziren enpresa txikiak,%5,2; 50–250 langile tarteko enpresa ertainak, %1; eta 250 langile baino gehiagorentzat lana sortzen zuten enpresa handiak, %0,2.

Euskadiko enpresa sarean enpresa txikien eta mikroenpresen presentzia oso handia da. 2008tik 2015era, krisiak enpresen %13,8 eta lanpostuen %10,5 suntsitu du. Eta krisiaren eragina enpresaren tamainaren arabera aztertuz gero, bi ondorio ikusten dira: batetik, mikroenpresa eta enpresa txikien %13,5 eta %19,7 itxi ziren arren, enpresa ertainen eta enpresa handien %12,2 eta %8,4 itxi zirela. Hau da, tamaina handitzen doan neurrian, ixten diren enpresen kopurua txikitu egiten da. Eta lanpostuei dagokienez, gauza bera: mikroenpresa eta enpresa txikiek lanpostuen %12,8 eta %20,5 galdu zuten, enpresa ertainek lanpostuen %11,4 galdu zuten eta enpresa handiek %1,3 sortu. Zenbat eta enpresa tamaina handiagoa, orduan eta aukera handiagoa lanpostuak mantendu edo sortzeko.

Lan handia egin da enpresa elkarte edota klusterrak sustatzen

Hori guztia kontuan hartuta, euskal enpresa ehunak tamainaren arabera duen argazkian ahultasun bat nabarmentzen da. Enpresa ertain eta handien pisua indartzen lagunduko luketen neurriak martxan jartzea benetan beharrezkoa dela iruditzen zait. Azken hamarkadetan lan handia egin da enpresa elkarte edota klusterrak sustatzen, eta bide horrek bere fruitu onak ematen jarraitzen du. Bide hau, ordea, osatu egin behar da, eta, horretarako, enpresen bateratze eta erosketak lagungarri izango dira. Enpresa eragiketa horietan jokoan dagoen beste aldagai garrantzitsu bat enpresa non sustraitzen den izango da. Enpresen bateratze eta erosketen ondorioz erabaki-gune nagusiak bertan jarraitzeko tresnak edukitzea, bereziki kapital fondoak, klabea da.

USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.eus

Errealitatea burugogorra da

Oso kezkatuta hasi nuen astea sanferminetako eraso sexistengatik. Kopuru altuak eragin zidan hasierako alerta; ondoren, harridura etorri zen erasotzaileen jarreraren berri izatean: erasoa egin ostean, jai-girora bueltatu zirela hainbat kasutan; tartean, asteleheneko bortxaketaren ondoren entzierrora joan ziren lasai asko. Martitzenean jakin nuen Bilboko BBK Live jaialdian eraso sexista batengatik gizonezko bat atxilotu dutela, eta Arrasaten, berriz, indarkeria matxista kasu baten salaketa izan dela. 2016. urtean gaude. *Parekidetasun*, *berdintasun*, *salaketa*… berbekin ahoa betetzen zaigu. Oso modernoak gara. Baina errealitatea burugogorra da. Eta ozen dabil esaten oker gabiltzala.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

Bergarako herrixari

Gotzon Bikuña Agirre
(Bergarako Urretxindorrak)
Bergara

Eskerrik asko.

Eskerrak, lenehengo eta bereziki, guri omenaldi hau egittia pentsau ziñuen zoro kuadrilla maittagarri horretakuei, bakarrik holako talde batek egin leike-eta holako zorakerixia, hainbeste lan hartuta, hain bihotzerañokua. Badakizue iñoiz ez giñuala holakoik amestu be egingo.

Eta Bergarako herrixari eta inguruetatik ekimen honetara batu zaretenoi be eskerrak, parte hartu dozuenoi, opari egin doskuzuenoi, guztioi, sentidu erain doskuzuen estimaziño eta berotasunagaitik.

Komunikabidiak be aittatu bihar dittugu –makiña bat izan die–, harei be zor dotsegu hain arretatsu eta atsegin portatziarren gurekin.

Danon artian lañoetara eruan gaittuzue, eta hantxe gare ondio hitz honek zuei bialtzen.

Eta bertatik ikusi dogu "Zeruan zehar doan enara" ez doiala, oingoz behintzat, ihesi.

Mila esker!

Eskerrik asko!

Saioa Elejalde
(Iban Elejalderen familiaren izenean)
Aramaio

Askotan, hitzak soberan egoten dira, eta beste askotan, faltan... Ez dakigu nola egin, eta, horregatik, lerro hauek erabiliko ditugu pasa den larunbatean Ibani omenaldia egin zenioten guztioi bihotzez eskerrak emateko.

Mila-mila esker bertan elkartu eta omenaldia egitea posible egin zenuten denoi: Manex eta Xabi, Libertad Condicional, Ibanen lagunak, El Exterminio de la Raza del Mono, Zarzamora, bertara hurbildu zineten guztioi eta ezinean gelditu zinetenoi; eta, batez ere, Xementerio taldeari. Ikaragarria izan zen egin zenuten lana eta bertan bizi izan genuena. Askok izan nahiko lituzkete zuen moduko lagunak! Eskerrik asko!

Paseoa

Anjel Lertxundi
http://goo.gl/6JV4gQ

Bikote bat txarraka-txarraka beren ohiko paseoan. Laurogeitaka urte batak zein besteak.

Gizonezkoa aurretik doa, emakumezkoa metrotxo bat atzetik. Eguzkia goian da, itsasoa bare dago. Harantz begiratzen du gizonezkoak, horizonterantz; emakumezkoak ez du begietatik galtzen gizonaren bizkarra. Ezagunen bat agurtu dute, apenas buru-mugimendu bana eginez. [...] Moilaraino iritsi eta gizonezkoa jarleku batean eseri da. Gauza bera egin du emakumeak, tarte bat utzirik bien artean. Gizonari begiratu dio. Besoa luzatu eta ttak-ttak egin du eskuaz gizonaren sorbaldan. [...] Itsasoari begira egon dira hainbat denbora, isilik.

Gizona jaiki da. Atzetik, emakumea. Itzulerako bidea hartu dute.

Gizonezkoa aurretik doa, emakumezkoa metrotxo bat atzetik.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Garbiñe Beitia.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa eta Nerea Artola

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Herriko eragileak eta Udaleko, Uemako eta Emuneko ordezkariak batu ziren lehen bileran. | MAIDER ARREGI

Euskararen arloan eredu izaten jarraitzeko nahia

- Gazteenen artean erabilerak behera egin du Antzuolan
- Uemaren sailkapenean arnasgunea da herria

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (Uema) barruan dago Antzuolako herria; ez hori bakarrik, euskararen arnasgune bezala sailkatuta dago. Horrek esan nahi du herrian euskara osasuntsu dagoela; hain zuzen, Antzuolan hamar pertsonatik zortzi euskalduna dela azaldu du Jon Ugarteburuk, Udaleko Euskara eta Gazteria zinegotziak. Gaur egun, denera, 62 udalerri daude arnasgune moduan jasota, eta horietako bat da Antzuola.

Hala ere, azkenaldian ume eta gazteen artean erabilera horrek jaitsiera bat izan duela eta, kezka sortu zitzaien udal ordezkariei. Hori dela eta, Uemarekin eta euskararen normalizazioan lan egiten duen Emun taldearekin batera proiektu bat jarri dute martxan, oraindik hasi besterik ez dena egin.

Ekainean, udal ordezkariek, Uemakoek eta Emunekoek haurrekin eta gazteekin kontaktuan dauden hainbat talde edo eragilerekin bilera egin zuten. Urri aldean berriro ere helduko diete bilera horiei eta proiektuaren inguruko jardunari, eta orduan hasiko dira pixkanaka egin beharrekoak eta aukerak zehazten.

Kale neurketen emaitzak

Ugarteburuk azaldu du gazteenen artean euskararen erabilera murriztu ote zen pertzepzioa zutela, eta horregatik ikusi zutela joera horri aurre egiteko lanketa baten beharra zegoela. Dena den, erabaki hori hartzean oraindik ez zeuzkaten datu errealak, baina berriki kaleratutako kale neurketen emaitzek susmoak baieztatu dituzte.

Hala, umeen artean, hau da, 2-14 urte bitartekoen artean, erabilerak ia bi puntu egin du behera 2011ko azken emaitzekin alderatuz gero. %80,1 izatetik %78,8 izatera pasatu da. Jaitsiera hori are nabarmenagoa da gazteen artean (15-24 urte bitartekoak); izan ere, talde honetakoen euskara erabilera %91,2tik %79,1era igaro da.

Kontuan izan behar da adin tarte horietako antzuolarren ia ehuneko ehunak jakin badakiela euskaraz; beraz, arazoa erabilera ohituretan egongo litzateke, eta ez hizkuntzaren jakintzan. Hain zuzen, erabileran jarriko dute fokua Udalak, Emunek eta Uemak lanketa hau burutzean.

"Lehen ere euskararen erabilera jaistetik zetorren, eta joera hori mantentzen dela ikusi dugu", dio zinegotziak.

Dena den, jaitsiera gazteengan nabarmenagoa bada ere, Euskara zinegotziak uste du proiektua gehiago bideratu behar dela haurrengana, beraiengan eragitea "errazago" ikusten duelako: "Gainera, haur horiek gero gazte izango dira, eta ondoren heldu".

Gakoa, kontzientziazioa

Nabarmendu du emaitzak ez direla "egun batetik bestera "ikusiko, prozesua "luzea" izango delako. Beharrezkoa ikusten du lanketa bat egitea euskararen erabileran beheranzko joera hori gelditu eta, "ahal balitz", buelta emateko: "Beti diot euskara karro bati aldapan gora bultza egitea bezala dela; etengabe bultza egitea behar du; bestela, beherantz joango da eta".

Hala, Jon Ugarteburuk nabarmendu du ohitura horietan eragiteko "gakoa" kontzientziazioa dela, eta "arazoaz jabetzea"; izan ere, Antzuola moduko herri euskaldun batean "ez da bat-batean igartzen" euskararen erabileran jaitsiera, egoera ez delako "inondik inora dramatikoa". Dena den, berretsi du arazoari garaiz aurre egiteko beharra, beheranzko joera hori ez delako "berez" aldatuko.

Arnasguneen garrantzia

Uemako teknikari Goizane Aranak azaldu du joera hau ez dela Antzuolan bakarrik gertatzen; izan ere, "orokorrean", arnasgune diren gainontzeko herri eta inguruetan ere ikusi izan dute "beheranzko joera bat".

Bultzatzaileek nabarmendu dute arnasgune batek, euskara "osasuntsu" mantentzen den gune bat izateaz gain, baduela horren euskaldunak ez diren gainontzeko herri eta hiriekiko eragina ere. Adibide baten bidez azaldu du Ugarteburuk: "Barakaldo bezalako hiri nagusiki erdaldun batean euskara bultzatzeko lanetan ari badira, esfortzu hori handiagoa izango da eredua euskararen %90eko erabilera baldin bada %70ekoa izan baino".

Hala, arnasguneak gainontzekoekiko "eredu" eta "gidari" izan behar direla azpimarratu du, lokomotora baten funtzioa beteta.

Irizpideen beharra

Umeen artean proiektu honen baitan jorratu nahi duten gai zentraletako bat da herriko talde eta eragileen artean "euskara bermatzeko" irizpide batzuk zehaztea: "Kasu gehienetan, funtzionamendua naturaltasunez euskaraz izango da, baina irizpide batzuk idatziz jartzea beharrezko ikusten dugu", dio Ugarteburuk.

Hala, balizko irizpide horiek elkarlanean landuko lituzkete, zeintzuk izan behar diren aztertuz, ahalik eta eragin handiena izan dezaten.

Horren adibide gisa, "bileretan euskarari lehentasuna eman, eta, behar izanez gero, gazteleraz laburpen bat egitea", jarri du.

Horretaz gain, gaiaren gaineko beste dinamika batzuk ere landu nahi lituzkete Antzuolan, eta udatik bueltan buru-belarri jarriko dira horretan.

Herriko eragileekin elkarlana

Euskararen erabilera sustatzeko proiektu honetan, egunerokotasunean gazteekin eta umeekin kontaktuan dauden eragileak protagonista izatea nahi dute bultzatzaileek.

Hala, zortzi bat eragile identifikatu dituztela azaldu du Emuneko Eguzkiñe Plazaolak. Arlo desberdinetan dihardutenak dira: hezkuntza arloan, aisialdian edota kirolean, kasu.

Lehendabiziko bileran, proiektuaren helburuak zeintzuk diren azaldu eta egoeraren gaineko "kezka herriko eragileekin konpartitu" nahi izan zutela dio. Izan ere, oraingoz, "kokatze fasean" dago proiektua, hasiberritan, eta Jon Ugarteburu zinegotziak azaldu du ikusi behar dela eragileek zein asmo erakusten duten eta zer egiteko aukera daukaten. Nabarmendu du herri eskola eta Pausoka guraso elkartea izan daitezkeela eragile hauen artean "potentzialtasun handiena" izan dezaketenak, adin horrekiko euren eragin eremua oso zabala da eta.

Identifikatutako talde horien artean daude, esaterako, futboleko Antzuola Kirol Elkartea edota Gimnasia Erritmikoko Taldea. Azken honen kasuan, Estitxu Otaegi arduradunak nabarmendu du ez dutela erabileran jaitsierarik igarri: "Gurean beraiekin dena euskaraz egiten jarraitzen da eta beraien artean ere euskaraz egiten dute". Kirol elkarteko presidente Mikel Kerexetak ere gauza bera dio, eta gaineratu du beraienean "argi" daukatela "erabiltzen den hizkuntza euskara" izan behar dela. Otaegik ere jarrera bera adierazi du, eta azaldu du, konpromiso horren adibide, gaztetxoenekin gimnasia erritmikoa euskarazko kantuekin egiten dutela, horrela ikusten baitute gimnasia edozein musika motarekin lotu daitekeela, baita euskal musikarekin ere.

DATUA

%12

-KO JAITSIERA

12 puntu jaitsi da euskararen erabilera 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, 2011ko datuekin alderatuz gero.

ESANAK

"Orokorrean euskararen arnasguneetan beheranzko joera bat dago"

GOIZANE ARANA | UEMA

"Gure kezka herriko eragileekin konpartitu nahi izan dugu"

EGUZKIÑE PLAZAOLA | EMUN

"Kontzientzia hartzea oinarrizkoa da egoerari buelta emateko"

JON UGARTEBURU | EUSKARA ZINEGOTZIA

Garbiketa ordenantza behin betiko onartzeko bozketaren unea; EAJk eta PSE-EEk alde (11) bozkatu zuten eta EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik kontra (9). | JOKIN BEREZIARTUA

Garbiketa ordenantza, urte amaierarako indarrean

- Udal Gobernuak babestuta onartu da arautegia; oposizioa kontra dago
- Norbanakoak zein eragileak aintzat hartuta, 78 alegazio aurkeztu dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Agintaldiko gairik polemikoena izan da garbiketa ordenantza orain arte udalbatzan, Udal Gobernuak eta oposizioak ikuspegi kontrajarriak dituzte-eta arautegiaren gainean. Gobernuaren helburu nagusia da "kalitatezko espazio publiko bat" bermatzea: "Horrek dakar administrazioarentzat zein herritarrentzat jarrera erantzunkide bat hartzea herriko garbiketa estrategietan". Oposizioko alderdiek, aldiz, ordenantzako puntu batzuek adierazpen askatasuna mugatzen dutela uste dute –17. artikuluko puntuek eragin dute polemika handiena –ikus 9. orriko taula–.

Martitzeneko osoko bilkuran behin betiko izaeraz onartu zen ordenantza. EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin (11) eta EH Bilduren, Baleikeren eta Irabaziren kontrakoekin (9) onartu zen; udalbatzak 21 zinegotzi ditu, baina EH Bilduko bozeramaile Eneko Barberenak ez zuen bilkuran egoterik izan. Martxoaren 22an eman zitzaion hasierako onarpena, eta, ohiko prozedura jarraituz, alegazioetarako tartea ireki zen Aste Santu inguruan. 78 alegazio aurkeztu dira; norbanakoez gain, honako eragile hauek aurkeztu dituzte: Arrasate Zientzia Elkartea, EHE, Sare, Steilas, LAB, AED, ezker abertzalea, Libre, Santamas Komisiñua, Beste Bat!, Emakumeen Mundu Martxa, AEK, CCOO, EH Bildu, Baleike, Irabazi, Mundu Solidarioa Helburu eta Ekin-ek.

Aldaketak, alegazioei esker

Alegaziok aztertu ostean, "aldaketa esanguratsuak" egin direla dio Udal Gobernuak. Esaterako, 17. ataleko 3.2. puntua ezabatu egin dute: "Kartelak eta pintaketak jakinarazten laguntzea zegoen jasoa, eta hori kentzea erabaki da. Udalaren nahia ez da, inondik inora, herritarrak elkar salatzen aritzea". Aldi berean, hartarako egokitutako lekuetan aurrez ipinitako pankartak ondoren baimentzeko aukera egongo da: "Hasierako testuak zioen pankartarik ezarri nahi izanez gero aurretik eskaera egin behar zela".

Horrez gain, nabarmendu dute baimena eskatzearen helburua dela pankarta jartzen duena haren erantzule izatea, eta epea amaitu ondoren erretiratzea. Eta, edukiei dagokienez, txosten tekniko lotesle batek erabakiko du zer den iraingarria eta zer ez, eta edukiaren arabera dagokion sailak prestatuko du horren gaineko txostena: "Beraz, errespetua oinarrizko printzipioa den heinean, Udalak ez du adierazpen askatasunik mugatuko". Gobernuak gogora ekarri du, 17. atalak eman badu ere zeresanik handiena, esparru ezberdinak arautzea duela helburu ordenantzak: "Hala nola txakur gorotzen bilketa edota altzairuak non eta noiz atera". Prozedura administratiboan parte hartu duten herritarrei eskerrak eman dizkie Gobernuak.

"Erreminta malgua"

Iritzi kontrajarriak daude Udal Gobernuaren eta oposizioko taldeen artean. Maria Ubarretxena alkateak, beste hainbat herritan duten "erreminta" dela esateaz gain, prozesua "oso aberasgarria" izan dela adierazi zuen, besteak beste, bilkuraren amaieran: "Ordenantza guztien antzera, indarrean jartzean aldaketak eta zuzenketak egin ahalko dira, arautegi malgua da. Ni neu ere egon naiz eragileekin eta esan beharra daukat oso aberasgarria izan dela. Ez ditugu alegazio guztiak onartu, baina aldaketak egin dira".

Obra, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordetik sustatu

ESANAK

"Eragileekin egotea oso aberasgarria izan da; alegazio guztiak onartu ez, baina aldaketak bai egin dira"
MARIA UBARRETXENA | EAJ

"Monterrongo hesia zerrendatik kendu dute apaingarri urbanistikoa ei delako; aitzakia hutsa da"
PITER ENCINAS | EH BILDU

"Indarrean jarrita ere zuzendu ahalko da; eragile guztiak hartuko ditugu kontuan, orain arte egin dugun moduan"
OSCAR GARCIA | PSE-EE

"Kutsu parte hartzailea eman nahi izan diote, baina eragileek esan digute ez dagoela borondaterik"
IGOR URIZAR | BALEIKE

"Alegazioak ez dituzue irakurri ere egin; herritarrei barre egin diezue, ez dezagun denbora gehiago galdu"
JUAN LUIS MERINO | IRABAZI

da ordenantza, eta, Oscar Garcia (PSE-EE) batzordeburuaren arabera, eragileekin egindako bileretan "debate biziak" izan dira, baina errespetuan oinarritutakoak. Dioenez, ekarpen horietako asko jasotzen dira ordenantzan. Polemika handiena eragin duen 17. artikuluan "aldaketa sakonak" egin direla dio, eta, aldi berean, gogora ekarri du ordenantza indarrean jartzen denean ere aldatu eta zuzendu ahalko dela: "Indarrean jarrita ere, herritarren eta herrian ikusten ditugun beharren arabera aldatzen joango gara, lasai asko. Eragile sozial eta politiko guztiak hartuko ditugu aintzat, orain arte egin dugun moduan, nahiz eta batzuk tematu diren horrela egin ez dugula esaten".

"Gainazaleko aldaketak"

Oposizioko hiru alderdiak, bestalde, ez daude konforme alegazioak aurkeztu ostean ordenantzak izan dituen aldaketekin. Uste dute ez diotela mamiari heltzen eta "gainazaleko aldaketak" direla.

EH Bilduko Piter Encinasek, OZMA batzordean gaia gertutik jarraitu duen zinegotziak, uste du adierazpen askatasuna urratzen segitzen duela, eta Monterron parkeko hesiaren kasua jarri du adibide moduan: "Oso garbi dugu garbiketa ordenantza adierazpen askatasuna mugatzeko aitzakia bat dela. 17. artikuluko puntu guztiak murritzaileak dira. Gainera, guneen kontua dago; zazpi gune Arrasate osorako? Gutxiegi da. Monterron parkeko hesia, erabiliena, zerrendatik kendu dute apaingarri urbanistikoa ei delako. Mesedez! Hori aitzakia hutsa da; zerrendako beste gune batzuk ere apaingarri urbanistikoaren barruan koka daitezke".

Baleikeko Igor Urizarrek kritikatu zuen hasierako proposamenetik behin betikora ez dela, funtsean, ezer aldatu: "Aldaketa oso txikiak egin dira, zentsurarako borondateak bere horretan jarraitzen du. Ahalegindu dira kutsu parte-hartzailea ematen, baina gu egon garen eragileek adierazi digute ez dagoela borondate errealik ezer aldatzeko". Irabaziko Juan Luis Merinoren arabera, Gobernuak ez du parte hartzean sinisten: "Alegazioak ez dira kontuan hartu, ez dituzue irakurri ere egin. Webgunean eskegi zenuten zirriborroa eta eragileekin egon ostekoa berdinak dira; herritarrei barre egin diezue, ez dezagun denbora gehiago galdu".

Ordenantzaren 17. artikulua: kontrol eta garbiketa araudiaren zenbait puntu

KARTELAK

- Aurrez eskatu barik jarri ahalko dira hartarako egokitu diren lekuetan. Leku horietatik kanpo jartzeko, Udalari baimena eskatu beharko zaio.
- Kartelak egokitutako lekuetatik kanpo jartzeko baimena emango da "entzute handiko" kultura, arte edo kirol gertaeretan. Gainera, salbuespen gisa, baimena eman ahalko da beste kasu jakin batzuetan.
- Kartelak ezingo dira iraingarriak izan, oinarrizko giza eskubideekin adeitsuak izan beharko dira –mezuen balorazioa txosten tekniko baten arabera egingo da–.
- Zinta itsasgarriz jarri behar dira, inoiz ez kolaz. Ezingo da kartelik jarri beste baten gainean baldin eta oraindik indarrean badaude. Ezin dira kartelak urratu edo zikindu leku baimenduetan.
- Leku egokituetan kartel publiziatarioek ezingo dute panel osoaren %25 baino gehiago hartu.
- Baimena eskatzeko, kartela jarri nahi duen pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasun datuak, edukia eta tamaina, kokalekua eta denbora zehaztu beharko dira. Leku egokituetan Udalak kenduko ditu kartelak, aldizka. Aldiz, leku ez egokituetan kartela jarri dutenek kendu beharko dituzte.

PANKARTAK

- Leku egokituetan izan edo ez, Udalaren baimena behar da pankartak jartzeko.
- Debekatuta dago pankartak lotzea faroletan edo zuhaitzetan eta lotzeko elementuek ezingo dute, inolaz ere, lotuta dagoen elementu hori kaltetu. Ezin dira leku baimenduetako kartelak urratu edo zikindu.
- Pankartek azalera zulatu bat –%25ekoa, gutxienez– izan beharko dute haizearen eragina txikitzeko. Bide publikoa zeharkatzen badute, gutxienez 4,5 metroko altuera izan beharko dute.
- Pankartak ezingo dira iraingarriak izan, oinarrizko giza eskubideekin adeitsuak izan beharko dira –mezuen balorazioa txosten tekniko baten arabera egingo da–.
- Pankarta jartzeko baimena emango da kultura, arte edo kirol gertaeretan, eta hauteskunde kanpainetan. Gainera, salbuespen gisa, baimena eman ahalko da beste kasu jakin batzuetan.
- Baimena eskatzeko, pankarta jarri nahi duen pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasun datuak, helburua eta tamaina, kokalekua, denbora eta izango duen lotura mota zehaztu beharko dira. Leku egokituetan izan edo ez, pankarta jarri dutenek kendu beharko dituzte.

PINTAKETAK

- Debekatuta dago pintaketak egitea udalerriko kanpoko edozein elementutan: hiri altzarietan, zuhaitzetan, estatuetan, monumentuetan...
- Udalak pintaketen garbiketa lanak egin ahalko ditu ondasun higiezinetan, bere antolamenduaren eta programazioaren arabera, udalerria mantentzeko garbiketa egoera onean eta behar bezala apainduta, edo herritarrek hala eskatuta.
- Udala salbuetsita dago garbiketaren ondorioz ondasun higiezinetan izan daitezkeen kalteen erantzukizunetik, baldin eta lan horiek modu egokian gainbegiratuta eta Udaleko baliabideekin egin badira.

HORMA-IRUDIAK

- Mural artistikoak margotzeko, Udalaren baimena behar da. Egin ahalko dira orube hesietan, obra itxituretan, hormetan eta horma bitartekoetan.
- Baimena eskatzeko, murala egin nahi duen pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasun datuak, muralaren zirriborroa eta tamaina eta kokalekua zehaztu beharko dira. Adierazpen artistiko libreko espazioen garbiketa aldirokoa izango da, eremuan zehaztuta egongo dena. Muralak garbitzeko erabakia txosten tekniko baten arabera hartuko da.

PANFLETOAK

- Ez daude baimenduta, ezin dira kalean edo bide publikoan bota eta ezta autoetan jarri ere. Eskuz esku banatu ahal izango dira.

PEGATINAK

- Debekatuta daude ondasun higiezinetan edota edozein udal altzaritan.

BANDERATXOAK

- Zintzilik ageri diren iragarki moduan ulertuta –zirkua datorrela iragartzeko faroletan jartzen direnak, esaterako–, Udalari baimena eskatu beharko zaio horiek jartzeko. Baimena eskatzeko, banderatxoa jarri nahi duen pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasun datuak, eskegi nahi den objektua eta tamaina, haren kokalekua, banderatxoa lotzeko modua eta jarrita egongo den denbora zehaztu beharko dira. Banderatxoa jarri duenak kendu beharko du, Udalaren baimenean jasota egongo den epea amaitzen denean.

Monterron parkeko hesian ezingo da pankartarik jarri ordenantza indarrean jartzen denetik aurrera. | J.B.

elejalde®
COLCHONERÍA
VITORIA – GASTEIZ
Etor zaitez!
Parkeak, sehaskak, ume-kotxeak...
Merkatuko marka nagusienen bermearekin.
* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin
* Kontsulta ezazu deskontua dendan bertan.

ZURE KOLTXOI ETA PUERIKULTURA DENDA
Zatoz eta gure eskaintza bereziez gozatu!
Eta gainera, Goiena Klubeko bazkide bazara, %5eko deskontua aplikatuko dizugu*.
goienakluba 2016
Ros FLEX Dunlopillo MACLAREN BeSafe micuna bugaboo
Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00–13:30 / 16:30-20:00
Zapatuetan: 10:00–13:30 (zapatu arratsaldeetan itxita)
www.colchoneriaelejalde.com
Domingo Beltran 33 Tel.: 945 242 297
Benito Ginea 1 Tel.: 945 287 667
Panama 7 Tel.: 945 267 314
Florida 43 Tel.: 945 279 085
Donostia 64 (Lakua) Tel.: 945 179 912

Baserritarrekin batera, umeak protagonista uztaileko azokan

Ohiko postuez gain, Jan eta Jolas Baserrikoa tailerra egingo dute bihar

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Uztaileko baserritarren azoka egingo da bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. 14 postu egongo dira biharkoan, ohiko baserritarrekin. Ikasturteko azkena izango da, abuztuan ez da-eta azokarik egingo. "Gorabeherak egon dira, eguraldiak batzuetan ez du lagundu eta beste faktore batzuk ere izan dira, baina orokorrean ondo joan da ikasturtea", adierazi du asteon Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko Marga Garmendiak. Uda garaian egingo den lehen azoka izanik, sasoi honetako lehen produktuak erosteko aukera egongo da; inguruko baserrietako lehen tomateak, kasu.

Garaioneko arduradun bat umeekin, iazko tailerrean. | IMANOL SORIANO

Umeei sukaldea hurbildu

Biharko azokaren berezitasuna izango da Garaion eta Auzolagunek antolatuta umeendako Jan eta Jolas Baserrikoa izeneko tailerra antolatu dute hirugarren urtez, txikienek bertako produktuak ezagutzeko eta prestatzeko aukera izan dezaten. Jakiak mozteko eta askotariko formak egiteko moldeak egongo dira bertan, eskulanetarako aukera eskainiz. Umeak sukaldera hurbiltzea nahi du tailerrak, jolasen bidez.

Amaitzeko, azokarako gonbidapena egin du Garmendiak: "Eguneko plana egin aurretik, pasatu Seber Altubetik eta bertako produktuez gozatu".

Santa Marina auzoko jaiak ospatuko dira asteburuan

J.B. | ARRASATE

Badatoz Santa Marinako jaiak. Gaur banderaren igoerarekin eta suziriekin festei hasiera eman ostean (18:30), boloa egingo dute alkatetzatik (19:30) eta Kaixo taldearekin dantzaldia egingo dute Agerre plazan (22:30). Bihar, zapatua, puzgarriak izango dira Arizmendi Ikastolako patioan –11:00etan eta 17:00etan–, auzoko buruhandiak ere irtengo dira (17:30), El Bille artista arrasatearraren emanaldia egongo da (19:00), eta, eguna borobiltzeko, Oihan Vega arituko da Agerre plaza musikaz alaitzen (22:30).

Domekan, puzgarriez gain (11:00), apar festa egongo da (12:00) umeentzat Arizmendi Ikastolako patioan. Meza nagusia egingo dute Ama Mesedeetako elizan (13:00) eta bakarrizketa umoretsuak ere egongo dira Agerre plazan, El Billek aurkeztuta (19:30).

Olagarroa eta bolo txapelketa

Zapatu zein domeka eguerdian olagarroa dastatzeko aukera egongo da Toki Argi erretiratuen elkartean (13:00). Gainera, auzoko 31. bolo txapelketa ere jokatu da zapatuan zein domekan.

Alfontso VIII. kaleko obrek lau hilabete iraungo dute

J.B. | ARRASATE

Takolo-Goiru hirigintza egitasmoa bigarren fasean sartu da asteon. Iaz amaitu ziren F faseko lanak, Arrasate pasealekuko lanekin, eta asteon abiatu dituzte G fasekoak. Hain zuzen, astelehen arratsaldean ekin zioten Alfontso VIII. kaleko lanei. Zeharbidea berriro ere urbanizatu nahi dute eta, Hirigintza Sailaren arabera, lau hilabete inguru iraungo dute obrek. Espaloiak irekitzea eta Herri Eskolaren atarian autobus geltoki bat egokitzea aurreikusten du proiektuak, besteak beste. Foruen plaza eta Cordoba y Oro plazarako bidegurutzeen artean egingo dira lanak.

Desbideratzeak zirkulazioan

Obrek irauten duten bitartean aldaketak izango dira autoen zirkulazioan. Hau da, azarora bitartean, Foruenetik Takolorako norabideak erabilgarri izaten jarraituko du. Alderantziz ez, ordea. Takolotik Foruenerako norabidean doazen ibilgailuentzat trafikoa desbideratuko egingo da Cordoba y Oro plazatik Navas de Tolosa kalera, eta hortik Bañez doktorearen kaletik barrena.

Udalak Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresa nafarrari esleitu zizkion obrak, eta LKS enpresa arrasatearra arduratu da obraren zuzendaritzaz. Esleipen aurrekontua izan da 375.980 eurokoa, BEZ barne.

NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Borroka askapenaren ulua

Gaur parranda egingo dut, berandu helduko naiz etxera, norekin jaitsiko zara, nork lagunduko dizu etxera". Itsaso Payak idatzitako bertso hauek ditut gogoan. Uda partean gaude eta uztail zein abuztu guztia dugu aurretik Euskal Herriko txoko ezberdinetan jairik jai ibiltzeko, Lesakako sanferminetatik hasi eta Bilboko Aste Nagusira arte. Bai, 2016. urteko uztailean aurkitzen gara, eta emakumeen kontrako erasoei dagokienez, jai giroak tamalgarria izaten jarraitzen duela esan dezaket.

Udako jai etapa honi Iruñeko sanferminekin eman diogu hasiera, eta, tamalgarria den arren, baita sexu erasoei ere. Barrenean egon ezina sortzen zait horrelako bat gertatzen denean. Nola da posible, gaur egun oraindik, gizarte matxista baten bizitzea? Erailak, drogak, indarkeriak, bahiketak, erasoak... Beldurgarria da. Onartezina. Lotsagarria.

Urtez urte egindako elkarretaratze, manifestazio eta isiluneen ondoren oraindik ere horrela jarraitzen dugu. Argi izan behar dugu bizitza honetan ez ginela jaio triste bizitzeko, beldurrez bizitzeko. Pozik eta askatasunez bizitzeko hautua egin genuen, horregatik lanean jarraitu behar da. Bidaia luzea da, eta bidean trena hartzen duten guztiekin batera lan egiten jarraitzeko ordua da.

Beste jai eredu batzuk eraikitzea izan behar dugu helburu, eraso sexista gabeko jaietan sinistuz.

"Nola da posible, gaur egun, gizarte matxista baten bizitzea?"

TXALOAK ETA TXISTUAK

J.B.

Aulkiak apurtuta, eta "arriskutsu"

Arrasatear batek aditzera eman duenez, Ferrerias kaleko Aroz plazako –plaza berria– aulkiak "egoera tamalgarrian" daude. Aulkien egurrezko zati batzuk hondatu ostean, horiek egiturara lotzeko bisagrek bertan jarraitzen dute. Kexa agertu duen herritarraren arabera, lekua "arriskutsu" dago: "Ume asko ibiltzen dira bertan jolasten". Halakoen berri eman daiteke BAZen (943 25 20 00).

Zerrajera kaleko jaiak ospatuko dituzte gaur, bosgarren urtez

Jaiak umeendako jolasekin hasiko dira (17:00). Gero, puzgarriak (18:00), konpartsa txikia (19:009, *zumba* saioa (20:00), umeendako afaria (20:45), auzo afaria (21:15) eta DJ Amaiarekin dantzaldia izango dituzte (22:00). Umeak mozorrotuta joan beharko dira eta helduek txapela jantzi beharko dute.

Mojategiko pistan azkarrena denak afari eder bat irabaziko du

Bi lagunen arteko pike moduan hasi zenak apustu jendetsu izaten bukatu du. Imanol Zeziaga eta Andoni Garcia gazteek Mojategiko pistan 1.000 metroko lasterketa egingo dute bihar, 11:30ean. Galtzen duenak afari eder bat ordaindu beharko dio irabazleari. 20 lagun elkartu dira bazkaltzeko, gutxienez.

argiñe
Arropa eta osagarriak
Likidazio osoa
Azken egunak
Beherapen handiak
Uribe auzoa, 2
ARRASATE
688 62 07 31

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Kanariar uharteetako blues doinuak zuzenean

Bocinegro taldeak kontzertua joko du gaur, egubakoitza, Jose Letona plazan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Udazabal programa aurrera doa, Arrasateko kaleak kultura eskaintza ugarirekin betetzen segitzen du. Zirku eta pailazo ikuskizun arrakastatsuen ondoren, gaur, musikaren txanda izango da. Kontzertu berezi batek Jose Letona plazako bazterrak blues doinuekin beteko ditu, arratsaldeko zortzietan.

Fuerteventurako Bocinegro taldea izango da gaur iluntzean bertan arituko den taldea. Formatu akustikoan landutako bluesa egiten duen laukotea da: Inma Costanzo ahotsean, Jordi Benito eta Davil Llop gitarra lanetan eta Raul Gonzalez perkusioan, hain zuzen ere.

Bocinegro taldeko kideak. | BOCINEGRO

Gerra osteko bluesa

Taldea 2013an eratu zuten. Gerra osteko bluesaren maisuen bertsioak jotzen eman zituzten lehen pausoak, eta horrela hasi ziren euren soinua finkatzen. Besteak beste, Little Walter, Lonnie Johnson eta Boubacar Traore artisten soinua izan zuten inspirazio iturri.

Taldearen izena bitxia da: euren sustraietako beltzen ahotsa eta Kanariar uharteetako arrain ohikoa den bocinegroa nahasten ditu. Baina hitz jokoa alde batera utzita, Fuerteventurako klima idorra gogora ekartzen duen bluesa egiten dute, apaingarririk eta efektu digitalik gabekoa.

2013an *Bocinegro Folk Blues* izeneko lehen diskoa grabatu zuten. Bertan, bertsioak ziren nagusi; 2016ko urtarrilean, berriz, beste disko bat kaleratu zuten, eta hura aurkeztuko dute Jose Letona plazan gaur egingo duten emanaldian. Disko berria eurek konposatutako abestiekin dago osatua, baina baliteke kontzertuan zehar bertsioren bat edo beste jotzea.

Udazabal gehiago

Datorren astean Udazabal programak aurrera jarraituko du. Datorren eguenean, Ekuadorko folklore jaialdiak Monterron parkea girotuko du, hango dantzari eta musikariekin.

Egurrari egurra emanez herriko bazterrak alaituz

Arbolapetako zuhaitzarekin egindako txalaparta jotzen borobildu zuten III. Txalaparta Festa

KOMUNITATEA GOIENA | GORKA ZUBIZARRETA
TTAKUN TXALAPARTA TALDEA | ARRASATE

Uztailaren 9an hirugarren Txalaparta Festa egin genuen Arrasateko Ttakun txalaparta taldeak. Eguna dianarekin hasi genuen eta jende asko gerturatu zen jakin-minez. Eguerdian, eguzkipean, plazan, txorizo eta sagardoz lagunduta, ume eta nagusiek txalaparta jotzeko aukera izan zuten, eta Arbolapetako zuhaitzarekin egindako txalapartaren aurkezpena, irrintzilariek lagunduta, ederra izan zen. Mahaiaren bueltan 40 lagunetik gora elkartu ginen, eta bazkalostean Gari eta Tito bertsolariek saio polita eskaini zigu-ten.

Arratsaldean, eguneko plater nagusiarekin, egunak esanahi berezia hartu zuen: Arrasateko txalapartariez gain, Pasaiako, Aulestiko, Urretxuko eta Donostialdeako txalapartariak bildu ginen txala-poteoan. Saio guztiak borobilak izan ziren eta hunkigarrienetakoa Arbolapetakoa. Bertan 114 urtez zutik egondako gaztainondo zaharretik ateratako txalapartaren soinua entzutera 150 pertsonatik gora bildu ginen.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu egunean zehar hurbildu zineten guztioi, txalapartariei, Bixke eta Irati albokariei, Gari eta Tito bertsolariei, Isa eta Maria Esther irrintzilariei eta Arbolapetako zuhaitzarekin txalaparta bat egin zitekeela bururatu zitzaion Kepa Altuberi. Zuek guztiok gabe ezin izango genukeen eguna borobildu.

Urteetan ametsa zena egia bihurtzen ari gara, bi urtean behin txalaparta festa antolatuz. Taldea egonkortu da, 10 ttakunkide gara eta ateak zabalik ditugu. Jarraituko dugu txalaparta zabaltzen eta kalean ikusiko dugu elkar! Egurrari egurra!

Ikasketak eta tenisa Washingtonen uztartuta

Ander Murillo arrasatearra 2014a ezkero ari da beka batekin tenisa eta enpresen zuzendaritza lantzen

X.G. | ARRASATE

Ander Murillo arrasatearrak garbi zuen unibertsitate ikasketak eta tenisa aldi berean landu nahi zituela, eta, hori dela eta, beka bat lortu zuen 2014an Washingtongo University of District of Columbia unibertsitatera joateko.

"Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitatean errazagoa da ikasketak eta kirolak aldi berean egitea. Bi alderdiei ematen baitzaie garrantzia", azaldu du Murillok.

Bertan, enpresa zuzendaritza ikasketak egiten ari da, baina denbora asko dauka bere kirol kuttunena praktikatzeko. "Bilbon ikasiz gero, ez nuen tenisean hobetzeko aukerarik izango. Aldiz, Washingtonen, unibertsitateak berak ikasketetarako eta kirola egiteko ordutegi batzuk finkatzen ditu". Hala, goizean eguraldiaren arabera, ariketa fisikoak egiten hasten dute eguna ikasle guztiek. "Lehen ariketa hauek denok batera egiten ditugu, kirolka antolatu gabe". Eguraldiaren arabera, aire librean edo estalpean egiten dituzte ariketak eta ondoren eskolara joaten dira. Bazkalostean berriz ekiten diote kirola egiteari, baina, kasu honetan, nor bere diziplinan.

Tenisa hobetuz

AEBetara joateak tenisean hobetzen segitzeko aukera eman dio. "Mundu osoko ikasleekin tenisarekiko zaletasuna elkarbanatzeko aukera eman dit. Alderdi askotan hobetu dut jokoa, baina, batez ere, bikoteka jokatzen ikasi dut. Hemen tenisa indibidualki bizi da, eta han taldekako kirol bezala lantzen da".

Murillo liburuak eta tenisa aldi berean landuz. | XABI GOROSITIDI

Ane Agirre izango da Arrasate Rugby Taldeko lehendakari berria

X.G. | ARRASATE

Pasa den astean egin zuen ARTk urteko batzar orokorra. Denboraldia amaituta, aurreko urteko balantze ekonomikoa aurkeztu zuen Zuzendaritza Batzordeak, eta bazkideek aho batez onartu zuten.

Iazko denboraldiari 30.000 euroko aurrekontuarekin ekin zion talde sarrailagileak, eta defizit txikiarekin amaitu dute. Horrekin lotuta, garagardo azokaren garrantzia azpimarratu zuten, bertatik lortzen baita aurrekontuaren %30.

Zuzendaritza Batzordean aldaketak egon ziren, eta Ane Agirre izendatu zuten taldeko lehendakari.

Kontxi Tamayo, doktorea. Dermatologoa

DERMATOLOGIA
• Aknea, psoriasia, akne arrosa, ...

KIRURGIA DERMATOLOGIKOA
• Lunarrak, kisteak, garatxoak, azaleko minbizia, ...

DERMATOLOGIA ESTETIKOA
• Zimurrak, zuloak, zuzenketak azido hialuronikoarekin, peelingak

LASER
• Aurpegiko zaintxoak, gorritasunak, kouperosia, akne arrosa, eguzkiak eta adinak eragindako orbanak. Depilazioa.

DERMATOSKOPIA DIGITALA (FOTOFINDERRA)
• Lunarren kontrola eta azaleko minbiziaren diagnostiko goiztiarra.

ZUATZU KLINIKA Nafarroa etorbidea z/g, behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 18 / 620 12 48 43

Partikularrak • Aseguruak: *Lagun Aro, Sanitas, Previalia, Generali.*

RPS: 256/15

Permutaren sinadura, hilaren 22an UNEDen

Arrizuriaga–Seminarioa trukean aldaketa gauzatuko da patronoen bileran

JULEN IRIONDO | BERGARA

UNEDeko zuzendari Iñaki Esparzak Goienari jakinarazi dionez, patronatuak Bergaran egingo du hurrengo bilera, unibertsitatearen egoitzan bertan, hurrengo egubakoitzean. Eta bertan sinatuko dute permutaren aldaketarako akordioa.

Sinadura honekin gauzatuko da Arrizuriaga jauregiaren eta Seminarioaren arteko trukeari dagokionez EAJ Udaleko eta Aldundiko gobernuetara iritsi ezkero aurreikusten zen aldaketa. Aurreko agintaldian bi erakundeetan Bildu agintean zela, UNED Arrizuriaga jauregira lekualdatzea eta egun UNEDek hartzen duen espazioarekin Udala geratzea sinatu zuten; orain, ordea, hura bertan behera utzi eta Arrizuriaga geratuko da Udalarentzat, eta UNED dagoen tokian. Gaiaren gainean Elena Lete alkateak Goienari egindako azken adierazpenetan zioen, horrela, bi eraikinak geratuko direla "herritarren erabilerarako [Seminarioko kultura aretoa kontuan hartuta]". Arrizuriagan zer joango den ez zuen zehaztu.

UNED, beraz, dagoen lekuan geratuko da; erabakia baloratu gabe, Esparzak bazioen "gai luzea" izan dela, eta "berandu" datorrela erabakia: "Hipoteka handi bat izan da; buruhauste asko, atzerapen asko ekarri ditu". Baina "irtenbidea ona izatea" espero duela gehitu zuen, "toki eta baliabide tekniko egokiak" izatea.

Irabazik dio bere kontura "etekin politikoa" bilatu duela EAJk

J.I. | BERGARA

San Martzialgo erromeriarako iraunkortasunarekin lotuta hartutako erabakiak direla-eta, Irabaziren ekarpenak "etekin politikoa ateratzeko" erabili izana egotzi dio koalizioak EAJri, eta haserre agertu da horregatik. Horrez gain, Udal Gobernuak egin zuen festaren balorazioarekin ez da bat etorri Irabazi: "San Martzialgo beheko zonaldea garbiago egoteak ez du esan nahi gauzak hobeto egin direnik". Irabazik dio, adibidez, "barbakoa asko lurrean" egin zirela, eta edukiontzietan hondakinak nahastuta zeudela ere bai.

Edukiontzi marroi bat. | J.I.

Martitzeneko hitzaldia. | JULEN IRIONDO

Presoak etxeratzea helburu, legedia erabiltzeko proposamena

J.I. | BERGARA

Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera izenburupean, hitzaldia egin dute astean, Sortuk eta Iratzar fundazioak antolatuta. Antton Lopez *Kubati* eta Joxe Mari Olarra preso ohiak izan ziren hizlari: presoak etxeratzeko helburuarekin, legedia "Estatuarekiko konfrontaziorako" tresna bezala erabiltzea proposatu zuten.

"Salbuespen legea 2003an sortu zuten. Baina salbuespen lege hori aplikatzen zaio kolektibo osoari, nahiz eta batzuk ez egon epaituta salbuespen lege horren arabera, eta hori legez kanpokoa da. Hor badira zirrikitu batzuk, eta, jorratzen baditugu, Estatuaren kontraesan asko azaleratuko ditugu", zioen Lopezek legedia konfrontaziorako erabiltzeaz.

Legedia betetzearen eskakizunarekin, gainera, ezker abertzalekoa ez den jende askok ere bat egin dezakeela zioen, "indar soziala" lortuko litzatekeela, eta hori garrantzitsu litzatekeela, adibidez, Espainiako Gobernua mugiarazteko.

Bide horretatik lor daitekeela zioen, adibidea jarriz: "Lehen esaten zuten tortura ez zela existitzen, eta orain agerian geratzen ari da hori egia izan dela". Kolektibo moduan espetxeetatik irtetea lortzeko, baina, Lopezek zioen ezinbestekoa dela "2003ko salbuespen legea gainditzea".

ERREGETXO PLAZA PROMOZIOA
Babes ofizialeko etxeetarako eta tasatuetarako eskaintza berezia.
Zure sukalde berria
%30eko deskontuarekin!
Aprobetxa ezazu eskaintza berezia!
IMB ESTUDIOA

ibargarai 4, 20570 bergara - TEL./FAXA: 943 76 37 37 - imb_estudioa@hotmail.com

Kanpamentu teknologikoan primeran aritu dira gazteak

Robotika eta programazioa landu dituzte egunotan Laboratorium museoan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Astelehenetik egubakoitzera kanpamentu teknologikoak egin dituzte Laboratorium museoan 11 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek.

Kanpamentu honetan bi ikastaro egin dituzte; gazte bakoitzak gehien erakartzen duena aukeratu du. Hala, batetik, errobotika landu dute, eta bestetik, ordenagailu bidezko programazioa, Minecraft jokoarekin.

Lehenengoz antolatu dute aurten kanpamentu teknologikoa, gero eta interes handiagoa izaten duela konturatuta.

Ondo pasatuz ikasten

Lehen egunetan, esaterako, Lego piezekin robot bat muntatu eta funtzio desberdinetarako programatu dute, Aitor Urzelai gazteak azaldu duenez. Robota ordenagailuarekin lotzen duen aplikazio bat erabiliz egin dute hori.

Gazteetako batzuek argi daukate nagusitan teknologiaren munduarekin lotutako zerbaitetan lan egin nahi dutela: "Bideojokoak-eta asko gustatzen zaizkit, eta betidanik nahi izan dut horrelako zerbaitetan lan egin handitan", dio Ekhi Susaetak.

Gazte bat robota muntatzen. | M.T.

Alkabieta kaleko ezkerraldean aparkatzen dutenek isuna jasoko dute gaurtik aurrera

J.I. | BERGARA

Duela hamar egun jakinarazi zuen Udalak aurrerantzean ezingo dela autoa Alkabieta kaleko ezkerraldean utzi. Orain arte, jakinarazpena egon da jarrita lekuan bertan; gaurtik aurrera, isunak jarriko ditu Udaltzaingoak.

Neurri honekin kale hartako garajeen jabeen eskaerari erantzun diotela azaldu dute Udaletik, jendeak garaje aurrean aparkatu ez arren, autoa aldamenean uzteak ere asko zailtzen zituelako sarrera-irteerak. Oinezkoen irisgarritasuna ere hobetuko da, autoak espaloi gainean egoten ziren eta. Udalak gogorarazi du aparkaleku handi bat dagoela "50 metrora", hilerri ondoan.

San Joxeperen Urkulu inguruko irteerarako izena, hilaren 19ra arte

Aretxabaleta-Urkulu-Bedoña ibilaldia egingo dute San Joxepekoek hurrengo egubakoitzean. 09:10eko lineako autobusean abiatuko dira, geltokitik. Errastikua jatetxean bazkalduko dute behin Bedoñan ibilaldia amaituta. Martitzenera arte eman daiteke izena, egoitzan.

NIRE USTEZ

AITZIBER PLAZAOLA

Buelta eman diezaiogun!

Uda sasoia, Euskal Herriko hiri, herri eta auzo askotako jaiak ospatzeko sasoia da, eta jaiak biderkatzearekin batera biderkatzen dira emakumeen aurkako erasoen inguruko albisteak. Emakumeok txikitatik entzun ditugu "ez etorri bakarrik etxera", "kontuz ibili" edo "mozkortzen bazara, edozer egingo dizute" bezalako mezuak, gure esku balego bezala, edo gure ekintzak izango balira moduan emakumeok pairatzen ditugun eraso horien kausa.

Eta buelta emango bagenio? Haurrei, mutilei, gizonei, emakumeok errespetatuak izan behar dugula behin eta berriz errepikatuko bagenie? Gizon jaio izanagatik pribilegiorik ez dutela eta, beraz, emakumearekiko botererik ez dutela erakutsiko bagenie? Eta emakumeok, errespetatuak izatea merezi dugula errepikatuko bagenio geure buruari? Gure gorputzaren jabe garela eta hori defendatzeko zilegitasun osoa dugula sinetsi?

Jaietan ere, erroetara joateko ordua da. Izan ere, jaietan ematen diren erasoak, matxismoaren zati bat besterik ez dira. Mugimendu feministatik norabide honetan urrats garrantzitsuak egiten ari dira, autodefentsa feministaren bidez, emakumeok gure buru zein gorputzen jabe izan gaitezen. Aldatu ditzagun buruz ikasitako diskurtsoak, eta eraiki dezagun genero zapalkuntzarik gabeko jendarte feminista!

OHARRAK

ODOL EMATEA
Eguaztenean, 18:00etan hasita, anbulatorioan.

LABEGARAIETAKO BILERA
Parte-hartze prozesuko bigarrena, hilaren 20an, 18:00etan.

SAN MARTIN FERIA
Postua jartzeko izena domeka baino lehen eman behar da: *www.bergara.eus*.

'OPARITU ZUHAITZ BAT'
Eguenean, kultur etxean (19:30).



Santa Marinako jaiak 2016

BERGARA

Ondo pasa jaiak!

Egubakoitza, uztailak 15
18:00 Altxorraren bila
18:30 Demasa Kriteriuma
18:30 Boccia, etxafuegoak, buruhandiak Matxiategin
19:00 Pintxo-potea Matxiategin
21:00 I. Gin-Tonic txapelketaren hasiera
22:00 Dantzaldia Matxiategin (DJ Julen Narbaiza).

Zapatua, uztailak 16
10:00 Ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol txapelketa
12:30 Pintxo lehiaketa
13:00 Barbakoa Matxiategin
17:00 Beti Busti, piragua jaialdia Usondon
18:00 Bolo, toka eta igel txapelketa jubilatuen etxean
19:30 Gin-Tonic dastatzea Simon Arrietan
20:00 Monologoak Simon Arrietan
22:00 Auzo afaria jubilatuen etxean
23:00 Dantzaldia EGAN taldearekin
02:00 Txokolate-jana.

Igandea, uztailak 17
11:30 Kalejira Udal Bandarekin
12:30 Udal bandaren kontzertua frontoian
13:30 Kantaldia: La Jodedera
17:00 Paintball-a Usondo parkean
18:00 Umeendako jolasak Jardunekin, Etxalar-en.
19:00 Kontzertua Iralan: CDB, Alberto Cavaller, Skybeats, Escuchando Elefantes

Astelehena, uztailak 18
19:00 Meza Santa Marina elizan
19:00 Pintxo-potea Matxiategin
20:00 Dardo txapelketa Matxiategi tabernan

Akort publizitatea • Berotzi ile apaindegia • Eladio oinetakoak • Estella Ortopedia • Giartzu gimnasioa eta estetika • Rezola Harategia • Mizpildi Okindegia • Oreka Fisioterapia eta Logopedia

Aurreko asteko jardunaldiko lehia bat. | IMANOL SORIANO

Udako Futbol Txapelketako nesken eta mutilen finalak jokatuko dira gaur

JULEN IRIONDO | BERGARA

Kiussnes eta Salabarduak taldeek jokatuko dute nesken finala, 18:30ean. Hiru talde baino ez dira apuntatu aurten, eta denek denen aurka jokatu dute, bi itzulitara. Kiussnes da faboritoa, ligaxkako partidu denak irabazi zituen-eta.

Mutiletan, ezustean, Orissuain eta TCC taldeek neurtuko dituzte indarrak (19:45). TCCk azken bi urteetako txapeldun Ezdakiu kanporatu zuen finalerdietan. Bana amaitu zen partidua, eta penaltietan irabazi zuten. Iñaki Mardaras atezaina izan zen protagonista: partiduan penalti bat eta gero bi geratu zituen, eta berak sartu zuen azkena. Orissuainek Markel Ilzarberen –bikain ari da– gol batekin menderatu zuen Elgeta, kontrarioa hobea izan arren.

Lokala eta 75. urtemuga izan dituzte hizpide Pol-Polen batzar orokorrean

J.I. | BERGARA

Eguaztenean egindako batzar orokorrean puntu guztiak onartu zituzten; urteko kontuak, besteak beste. Bestelakoen artean, elkartearen lokal berriari buruzko bilera irail bukaeran egitea erabaki zuten, eta 2017ko 75. urteurreneko ospakizunak antolatzeko batzordea sortu zuten. Hogei bazkide inguruk hartu zuten parte batzarrean.

Hurrengo irteerak

Gaur da beteranoen taldeak domekan egingo duen irteerarako izena emateko azken eguna –19:00etatik 20:00etara, egoitzan; 20 euro–. Urkiaga-Peña Alba-Elizondo ibilbidea egingo dute. 08:00etan aterako dira, frontoitik. Gazteek hilaren 23tik 25era Belagua aldera egingo duten irteerarako izena, berriz, astelehenera arte eman daiteke.

Beteranoek domekan bisitatuko duten ingurua. | POL-POL

Musika hitzordu handiak Santa Marinako jaietan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Urtetik urtera indartuz doaz Santa Marinako jaiak, eta aurtengo egitarauak hala erakusten du (*goiena.eus*-en ikusgai). Nobedadeen artean, gin -tonic txapelketa izango da (egubakoitza, 21:00). Horrez gain, jolasak, pintxo-potea, futbola... denetarik izango da.

Egan eta La Jodedera

Kontzertuei dagokienez, apustu sendoa egin dute. Nabarmentzekoen artean, zapatu gauean Egan taldearekin dantzaldia izango da Matxiategin. Bestalde, domeka eguerdian La Jodedera talde euskaldun -kubatarrak zuzenekoa eskainiko du. Arratsaldean, bost talde arituko dira Iralan: CDB, Albert Cavaller, Skybeats eta Escuchando Elefantes.

Musika banda eta Aritzeta

Musika bandak ez du hutsik egingo jaietan. Hala, domeka goizean (11:30) kalejira egingo dute, eta horren ostean kontzertua eskainiko dute Udal pilotalekuan. Astelehenean, berriz, Aritzeta abesbatzak egingo du saioa, Santa Marinako 19:00etako meza ostean.

Kontuak onartu dituzte BKEren batzar orokorrean

M.T. | BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak bazkideen batzar orokorra egin du berriki. Joan den denboraldiko kontuak onartu zituzten; superabita izan zuten. Hurrengo denboraldirako 160.000 euroko aurrekontua ere adostu zuten.

Hartutako erabakien artean, kuotak mantentzea adostu zuten bertaratutakoek.

Kirol Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak oraingo kide berekin jarraituko du, eta Pedro Ricoren lekua hartu zuen Iñigo Zaitegik segituko du aurrerantzean ere presidente izaten.

Ez ahazteko moduko omenaldia jaso zuten Urretxindorrak taldekoek

M.T. | BERGARA

Udal pilotalekua bete egin zen zapatuan Urretxindorrak taldearen 50. urteurrenaren harira antolatutako ikuskizunean.

Juan Mari Narvaezek, Julio Unamunok, Gotzon Bikuñak eta Raul Calvok osatzen zuten Urretxindorrak; azken hori 2005ean zendu zen, eta Xabier Olabarriak hartu zuen bere tokia.

Herriko hainbat taldek hartu zuten parte dantzan, kantuan edota bertsotan eginez, eta, bukatzeko, Urretxindorrak-ek bost kantu jo zituen.

"Zeharo hunkituta" geratu zirela dio Unamunok: "Herri guztiak hartu du parte eta gehiegizkoa izan da". Antolatzaileak ere "pozik" azaldu ziren omenaldiak emandakoarekin.

Ikusleak bi aldiz zutitu ziren laukotearen emanaldian. | IMANOL SORIANO

Hegoafrikako dantza tradizionalen plaza izango da Bergara eguenean

M.T. | BERGARA

42. Folklore Jaialdia egingo da aurten Portugaleten (Bizkaia). Hiritik kanpo ere zabaldu nahi dute, eta, ekimen horren baitan, Bergaran Hegoafrikako folklore ikuskizuna izango da datorren eguenean, hilak 21, San Martin plazan (19:00). Hasieran Ghanako talde batek etorri behar zuen, baina hegoafrikarrak izango dira, azkenean.

Ikuskizuneko une bat. | THEMBA NJILO

Danborrak eta kolorea

Themba Njilo fundazioak umeen garapen sozial eta kulturalaren arloan egiten du lan. Fundazio honen barruan dantza talde bat dago. Danbor afrikarrak eta jantzi koloretsuak dira euren ikuskizunetan protagonista, baita zulu jatorriko kantak ere.

Benantzi Bilbao organo jolearen musikaz gozatzeko aukera izango da domekan

Domekan, uztailak 17, Benantzi Bilbaok organo kontzertua eskainiko du arratsaldeko zazpietan Santa Marina elizan (sarrera: 5 euro), Stoltz Freres organoaren alde. Ospe handiko musikaria da, Europako kontserbatorio garrantzitsuenetan ikasia, eta egun, besteak beste, Alacanten irakasle da.

KOMUNITATEA GOIENA
STOLTZ-FRÈRES ORGANOAREN LAGUNAK

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

MIZPILDI OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Lehen urteko uztarekin gustura bi alderdiak

Agintaldiaren hasieraren balorazioa egin dute EH Bilduk eta EAJk

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Agintaldiaren lehen urtearen balorazioa egin dute udalbatza osatzen duten bi alderdiek eta biak daude gustura denbora horretan egindako lanarekin.

Udal Gobernuan dauden EH Bilduko ordezkarien esanetan, aurreko agintaldian herritarrekin egindako bileretan marraztutako "oinarri estrategikoak jarraitu" dituzte eta "gobernu era berri bat" hartu dute oinarri. "Gure apustua da herritarrak edo herri eragileak apur bat ahalduntzea", adierazi du Mikel Biain alkateak. "Aurreikusitako bidean doazela" uste dute, aurten egiteko asmoa zuten proiektu asko eginda edo martxan daudelako eta beste asko urtea bukatu aurretik egingo direlako. Egindakoen artean aipatu dituzte, esaterako: Olabarrietako lur azpiko pasoa, plazako arkupeetako zoladura, autokarabana-gunea, aparkaleku sistema, jaietan emakumeen parte-hartzea bultzatzeko prozesua, aisialdiko baratzeen autokudeaketa eta gazte lokalen ordenantza. Urtea bukatu aurretik egingo direnetako batzuk, berriz: Zubillagako lanak hastea, euskaltegian gela bat gehiago egokitzea eta Ugarkalde eta San Lorentzo arteko bidegorria egitea, azken hori *Olaran paisaia* proiektuaren barruan. Errekaren alde bietako guneak txukuntzea dakar proiektu horrek; hor sartzen da, esaterako, Eltzia pareko gunean ur jolasetarako gunea egitea eta postetxe parean dauden moduko gimnasia aparailuak jartzea.

Oposizioaren jarrera kritikatu du Udal Gobernuak. "Komunikabideen bidez jaso ditugu euren proposamenak, eta ez zaigu bidezkoa iruditzen. Batzordeetan hitz egin eta landu behar direla uste dugu", adierazi du Biainek. Herribusaren edo auzo-taxiaren ideiak eurenak bezala azaltzea ere leporatu dio oposizioari Udal Gobernuak, eta "jarrera zintzoagoa eta helduagoa" eskatu diote.

ESANAK

"Herritarrak eta herri eragileak apur bat ahalduntzea da gure helburua"

MIKEL BIAIN | ALKATEA

"Herritarren beharrak defendatzeko egiten dugu lan"

LOURDES IDOIAGA | EAJ

Oposizioa

Euzko Alderdi Jeltzaleko udal taldeak bi puntu azpimarratu gura izan ditu lehen urteko balorazioa egiterakoan: "Jarrera eraikitzailea" izan dutela eta "arduraz" jarraitu dutela Udal Gobernuaren jarduna.

Egindako ekarpenen inguruan, eurek egindako proposamenetako 24 aurrekontuetan onartuak izan direla adierazi dute jeltzaleek, eta batzuk dagoeneko gauzatu direla. "Prozesu parte-hartzailetik sortu zen programa eta herritarren gaiak sartu genituen, horiek defendatzea da gure helburua", adierazi du Lourdes Idoiagak. Azpimarratu dituzten proiektuen artean daude: San Martin parkea egokitzea running zirkuitua eta eta haur -jolastokia egiteko, igerilekua handitzea, gazte-lokalak egokitzeko diru-laguntza partida bat lortzea, landa auzoetan teknologia berriak (IKT) sustatzea eta Oñatiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko ibilbide turistikoak diseinatzea.

Proposamenak egin ez ezik, Udal Gobernuarekin elkarlanean jardun duela ere adierazi du EAJko udal taldeak eta azaldu dute batzordeetan egin duten lanarekin ekarpenak egin dizkiotela Udal Gobernuaren jardunari. Jardun hori "arduraz eta zorroztasunez" jarraitu dutela gehitu dute jeltzaleek.

ENEKO AZURMENDI

Udalak eta IISJk akordioa

Oñatiko Udalak urtero 4.000 euroko beka emango dio zuzenbide eta gizarte-zientzien arloko ikerketa proiektu bati, *Oñati Udala Grant* izeneko bekaren bitartez. Beka jasotzen duen proiektuak Oñatiko herriari ekarpena egin beharko dio eta lotura izan beharko du tokiko autogobernuarekin, hiritartasun aktiboarekin edo naziogintzaren alderdi soziojuridikoarekin.

Zubillaga eraberritzeko lehen fasea hastear dago

Datozen egunetan hasiko dira Zubillaga auzoko eraberritze lanekin. Hiru fasetan egingo dituzte, eta urteko bat egitea da asmoa. Lehenengoa hilabete honetan hasiko da eta urtea bukatu orduko egongo da amaituta. Ulma forja paretik Olaburu zentroko bulegoetarainoko tartea eraberrituko dute lehen fase honetan. Espaloia konpondu eta zuzen horretan dagoen aparkalekua txukunduko dute, batez ere. Lanak Bergarako Artzamendi eraikuntza enpresak egingo ditu 121.465,23 eurotan, BEZa kanpo. Marteskotik frontoirainoko zatia beste fase baten sartzen da.

Juldain eta Anduaga egongo dira zabalik lehenengo txandan

Udako oporretan txandaka zabalduko dituzte herriko farmaziak aurten ere. Hala, lehen txandan Juldain eta Anduaga egongo dira zabalik; eta Garate eta Amaia Igartua, beraz, bigarrenean.

Lehen txanda gaur, egubakoitza, hasten da. Gaurtik abuztuaren 15era arte, beraz, Kale Barriko Juldain (943 78 11 28) eta San Lorentzo auzoan dagoen Anduaga (943 78 21 16) farmaziak egongo dira zabalik.

Bigarren txanda abuztuaren 15etik irailaren 15era izango da eta tarte horretan herriko beste bi farmaziak, Garate eta Amaia Igartua, egongo dira zabalik.

Autoak uzteko tokia egokituko dute Usakon

Aparkaleku moduan egokituko duten lursaila Usako parean dago. | O.E.

O.E. | OÑATI

Usako parean dagoen lursail bateko zati bat ibilgailuak aparkatzeko moduan erabil ahal izango da aurtengo uda denboraldian. "Autoz joaten direnek bide bazterrean uzten dituzte, eta segurtasunagatik egokituko dugu zati hori aparkaleku", adierazi du Borja Moiuak, Kirol zinegotziak.

Ibilgailuak bide ertzean aparkatzean errepidea estutu egiten da, eta, edozein larrialdi gertatuta, suhiltzaileen kamioiak pasa beharko balu, adibidez, ezingo litzateke pasa. Horrelako egoerak saihesteko eta arazo hori konpontzeko erabaki du udalak aparkaleku bat jartzea. Urtebeteko proba izango da.

Aparkalekua Usako etxearen parean dago, kaminoaren beste aldean. 30 edo 40 ibilgailu sartzeko modukoa da, eta belarra moztea bakarrik falta da; gaur, egubakoitza, ez badago erabilgarri, datozen egunetan egongo da. Usakoko bainu denboraldia bukatu arte egongo da erabilgarri, aurten bakarrik, eta errepidean aparkatzen diren ibilgailuekin zorrotz jokatuko dute, isunak jartzeraino.

Datorren urtera begira ekintza berriak egingo ditu udalak, jendea Usakora oinez joan dadin.

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Janaria ere etxera eramaten dugu
Plater gustukoenak:
• Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
• Curry triangeluak okelaz beteta
• Langostino frijituak almendrekin
Etor zaitez!
☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Julio Soto eta Rebeca Limón DSS2016ren egoitzan, martitzenean. | MINTZOLA

Munduko inprobisatzaileak Oñatira etorriko dira gaur

Kalejira egingo dute 19:00etan hasita eta lau geldialdi egingo dituzte bertso eskolakoekin batera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Donostiatik Oñatira mugituko da gaur, egubakoitza, *Europa bat-batean* topaketaren gunea. "Egia da aste guztian zehar Donostian egin ditugula Kantu Inprobisatuen Nazioarteko topaketaren saio guztiak, baina egubakoitzean Oñatin izango gara. Hango bertso eskolako kideekin batera kalejira polita egingo dugu", adierazi du Mintzola elkarteko Esti Esteibarrek.

Topaketan parte hartzen ari diren herrialde guztietako ordezkariak izango dira, gainera, gaur Oñatin: Austria, Euskal Herria, Gales, Herrialde Katalanak, Kuba, Mexiko eta Zipre. Euskal Herriko ordezkariak izango dira: Alaia Martin, Amets Arzallus, Ane Labaka, Julio Soto eta Miren Amuriza.

Geldialdiak

Oñatiko bertso eskolako kideak ere eurekin batera ibiliko dira kalejiran. "Garagardo azokan eta Boga, Bizipoz eta Ona taberna aurreko plazatxoetan egingo ditugu geldialdiak", aurreratu du Mirari Sagarzazuk.

Donostia 2016 ekimenak eta Mintzola elkarteak antolatu dute topaketa hau eta elkarte horrek Oñatiko bertso eskolarekin eta Udalarekin duen harreman onagatik erabaki dute Oñatira etortzea. "Hiriburutik herrialdera ere zabaldu gura genuen topaketa hau, eta Oñati aukeratu dugu. Eguneko gidoia, prestaketa, bertako bertso eskolakoek egin dute, gaiak ere eurek prestatu dituzte. Beti egoten dira laguntzeko prest, oso harreman ona dugu eurekin", dio Mintzolako Esteibarrek.

Aste barruan Donostian egin dituzten ekitaldi ia guztiak oholtza gainean egin dituzte, Aquariumean eta Tabakaleran, esaterako, eta Oñatin egingo dute kaleko lehen saioa. "Mexikon, Zipren, Mallorcan eta Kuban, gainera, kalean bakarrik lantzen da bat-batekotasuna, eta ederra izango da saioa", dio Esteibarrek.

Lizargarate egunerako txartelak salgai daude

O.E. | OÑATI

Abuztuaren 28an ospatuko da Aurreko Mendiko Lizargarate eguna aurten, abuztuko azken domekan.

Egun osoan zehar trikiti doinuez gozatzeko aukera egongo da. Horrez gain, hamarretakoa, herri kirolak, bazkaria, erromeria eta beste hainbat ekitaldi ere izango dira. Aurreko urteetan bezala, goizetik iluntzera arteko festa izango da.

Hiru jatordu

Antolakuntzak nabarmendu du herritar guztiak daudela gonbidatuta eta egun horretarako txartelak salgai daudela baieztatu dute. Izarraitz eta Arrano tabernetan eros daitezke txartelak, 22 eurotan. "Txartel bakarra da, baina hiru jatordutarako balio du: hamarretakorako, bazkarirako eta askarirako", azaldu du Gerardo Plazaolak.

Lizargarate egunean trikiti doinuak ez dira faltako. | LIZARGARATE TRIKITI ELKARTEA

Bi antzezlan eta zuzeneko musika kontzertua egongo dira gaur eta bihar artean gaztelekuan

Gaur, egubakoitza, Cia Nogusano antzerki taldearen *A pan y agua* antzezlana egongo da gaztelekuan, 19:00etan. 21:00etan, berriz, 2013an sortu zen Usurbilgo Izerberg taldeak joko du zuzenean. Ekainean argitaratu zuen *Urik ez begi bistan* diskoaren aurkezpena egingo du Oñatin. Zapatuan, bestalde, La Ke Tu Haces konpainiak *Org.amen* antzezlana egingo du, 19:00etan.

NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Elkartasun irudiak

Aste honetan behin eta berriz ikusi dugu, era guztietako komunikabideetan, mutiko koxkor portugaldarra negar-zotinka ari zen frantziar gaztea kontsolatzen, animoak ematen. Nonbait, zure ekipoak Eurokopako finala galdu izana latza da, gogorra. Sufrimendu hori arindu nahian mutiko horrek egindako keinuak hunkitu egin gaitu, sinpatikoa, hurbilekoa eta polita iruditu zaigu. Ez dut nik keinu hori kritikatu nahi, ezta hurretik ere! Baina beste elkartasun irudi batzuei arreta bera eskaintzen diegu? Azkenaldi honetan ez zaizkigu falta gerrari, goseari, heriotzari, injustiziari... ihes egin nahian ari diren milaka eta milaka lagunen irudiak. Irudi latzak, gogorrak, benetako sufrimendua erakusten dutenak. Eta irudi horiekin batera elkartasun keinuak ere ikusten ditugu, sufrimendu hori arindu nahian, bidegabekeria horien aurrean, sekulako lana egiten ari diren pertsonenak. Susmoa dut bigarren irudi hauek ez zaizkigula egiten hain sinpatikoak, hain gertukoak, hain politak. Zergatik? Ez ote da izango sufrimendu hori sortu izanaren errudun sentitzen garelako? Egoera horiek konpontzeko, edota ez sortzeko, behar beste egin ez dugulako?

Elkartasun irudiez ari naizenez, aste honetan ikusi dugun beste irudi bat ekarri nahi dut gogora. Txalotzeko. Iruñeko Gazteluko plaza, eraso sexualen aurka egiteko eta *Ezetza, ezetz da* esateko, lepo beteta ikusteak poztu egin nau. Hurbilekoa egin zait, beharrezkoa.

"Beste elkartasun irudi batzuei arreta bera eskaintzen diegu?"

Hockey partidua ere bai aurtengo patin egunean

O.E. | OÑATI

Tatarraz patin elkarteak antolatuta, patinen gainean ibiltzeko eta gozatzeko aukera egongo da bihar, zapatua, goizean. Patinak eta beharrezko babesak jantzita, beroketa saio batekin hasiko dute eguna, 10:00etan, Foruen plazan eta ordu erdi geroago, bi irteera egingo dituzte: Madalena auzora bat (bost kilometro) eta Elorregira beste bat (hamabost kilometro). Bidegorritik izango dira biak. Ordu berean jolasak egingo dituzte Foruen plazan bost urtetik gorako umeekin batera.

Aurten, gainera, hockey txapelketa herrikoia egingo dute; 12:30ean izango da, plazako frontoian, eta 15:00etan bazkaria garagardo azokan.

Goiz osoan zehar taldeko bazkide egiteko aukera egongo da.

Hamar garagardo mota frontoiko karpapean

O.E. | OÑATI

Hamar garagardo mota daude Aloña Mendik antolatu duen garagardo azokan. Hamar urte bete ditu aurten azokak eta elkarteko intsignia duen pitxer bereziak daude. "Urtero moduan, nahi duenak etxera eraman ahal izango du pitxerra, eta, bestela, bertan utzi. Lau euro balioko du, eta, itzuliz gero, lau euro horiek bueltatuko zaizkio kontsumitzaileari", azaldu du Anton Intzak, Aloña Mendiko presidenteak. Edatekoaz gain, jatekoa ere badago azokan: ukondoa, saltxitxak eta oilaskoa.

Elkarteko hamar sail arituko dira lanean domekara arte eta ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, kantu inprobisatuen emanaldia egongo da eta bihar, 19:00etan, herriko gaztetxoendako bakarrizketa.

Hondartza-eskubaloi txapelketa plazako frontoian izango da

Aloña Mendiko eskubaloi sailak antolatuta, hondartza-eskubaloi txapelketa jokatuko da Oñatin uztailaren 23an eta 24an. Hasiera batean Foruen plazan jokatzekoa bazen ere, plazako frontoian izango da. 40 zentimetroko hondar-geruza izango duen kantxa egokituko dute han. Txapelketa irekia izango da, gura duten herritarrek parte hartzeko; adinka egingo dituzte taldeak.

2016-2017ko igeriketa saioetako izen-ematea astelehenean zabalduko da

Datorren ikasturtean Zubikoa kiroldegiko igerilekuan egongo diren igeri ikastaroetako izen-ematea astelehenean zabalduko da. Kiroldegiko bulegoan bete beharko da orria, ordutegi honen barruan: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Astelehenetik egubakoitzera arte, hilaren 22ra arte, egin ahal izango da. Izena emateko bigarren txanda irailaren 5etik 8ra izango da, toki eta ordu berean.

136 edukiontzi erosiko dituzte irailean jartzeko

Kokalekua zehazteko planoak ikusgai daude atzotik uztaila bukatu artean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Joan den martitzenean erabaki zuen Debagoieneko mankomunitateak zeini esleitu edukiontziak egiteko lanak: Plastic Omnium Sistemas Urbanos enpresari, hain zuzen. Hala bada, lehenengo Arrasaten eta gero Eskoriatzan eta Bergaran jarritakoak bezalakoak izango dira Aretxabaletakoak. Lehiaketara bi enpresa aurkeztu ziren, baina bata atzera bota zuten eskatutako baldintza guztiak ez betetzeagatik.

Planoak komentuko elizan ikusgai. | MIRARI ALTUBE

Merkatariekin bilera

Lau edukiontzi izango dira: papera eta ontzi arinak jasoko dituztenek 3.000 litroko edukiera izango dute; eta errefusa eta hondakin organikoenak 2.000 litroko edukiera eta txipa. Bakoitzetik 34 inguru jarriko dituzte, hortaz, guztira, 136. Horien kokalekua dagoeneko zehaztuta daukate Udal ordezkariek. Hala ere, herritarrekin adostu gura dute eta horretarako ikusgai jarri dituzte planoak; atzotik daude komentuko elizan hilabetea bukatu artean. Hona hemen ordutegia: 10:30etik 12:30era eta 17:30etik 19:30era.

Merkataritza eta ostalaritza zerbitzuetako kideen iritzia ere jaso gura dute: "Horiekin bilera egiteko asmoa daukagu datorren astean", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak. Edukiontziak irail bukaeran jarriko dituztelakoan dago Elkoro.

Azbe lantegiaren planoak

Bestetik, Azbe lantegia izandako lursailaren planoak ere ikusgai izango dira komentuan, uztaila bukatu artean –ordutegi berean–. Industria erabilera izatetik erabilera komertzialera pasatu gura dute Azbe, supermerkatu bat egiteko han, eta prozesua dagoeneko abian da. Herritarrek 30 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko, eta egunotan Udaleko Hirigintza Saileko ordezkari bat egongo da komentuan azalpenak emateko.

Zezentxoa gazteen aurrean iazko jaietan. | IMANOL SORIANO

Ekintzaz gainezka datoz gaurtik Portasolgo jaiak

Rock kontzertuak, paella lehiaketa, zezentxoak, omenaldiak eta gehiago daude aste bukaeran

M.A. | ARETXABALETA

Uztailaren erdian datoz beste behin Portasolgo jaiak, ekintzaz gainezka oraingoan ere. Txupinazoa 18:30ean botako dute gaur, egubakoitza, eta ondoren buruhandien eta erraldoien kalejira izango da. Gau partea kontzertuek girotuko dute; Markoleko zelaian izango dira rock taldeak (21:30): Atsekabe, Txerrikumeak, D-skarga eta Astalapo. Eta Zaraiako aparkalekuan rap-kantariak (22:30): Botellas Vacias eta Haper Bola Enrik.

Zezentxoak Markoleko zelaian

Atletismo probak izango dira bihar (11:30), eta ondoren, gimnasia erritmiko erakustaldia Atseden tabernaren aurrealdean (12:00). Mus txapelketa ere izango da Eguzki-Alden (16:00). Eta goiz eta arratsalde izango dituzte umeek jolas-parkeak. Firin-Faran taldeak dantzan jarriko ditu auzotarrak Zaraia ostean (19:30), eta gauean rock taldeek jardungo dute: The Fridays Crew eta Skovers-ek. Gauerdian, gainera, su artifizialak botako dituzte.

Domekan, azoka egingo dute Atseden taberna aurrean (10:30) eta paella lehiaketa Markoleko zelaian (13:30). Arratsaldean, ostera, pottokak eta zezentxoak izango dira Markolen (18:00) eta iluntzean auzoko edadetuena eta urteko lehen jaioberria omenduko dituzte (19:00).

Lexuri Doyaguek egindako irudiak iragarriko ditu Andramaixak

M.A. | ARETXABALETA

Lexuri Doyague artista arrasatearrak irabazi du Andramaixetako kartel lehiaketa. Sei lanen artetik aukeratu zuen epaimahaiak eguaztenean. Hala, 300 euroko saria jaso du Doyaguek. Hain zuzen, Aratusteetako kartel lehiaketa ere hark irabazi zuen.

Behin irudia aukeratuta, egitaraua laster izango dute gertu Kultura Saileko kideek, eta uztaila bukatu aurretik herriko etxe guztietara banatuko dute. Aurten, gainera, nobedadeak izango direla iragarri dute; jaietako bigarren eguna haurrei eskaintzea, esaterako.

Andramaixetako kartela. | LEXURI DOYAGUE

Futbol campuseko lehen txandako gaztetxoak Ibarran. | IMANOL BELOKI

M.A.

Euskal Jaia ospatu dute udalekuetan

Jai giroa izan dute astean udaleku irekietako neska-mutikoek. Euskal Jaia ospatu zuten eguaztenean eta ekintza mordoa izan zituzten: dantzak; aurpegi-margotzea; sokatirak, zaku-lasterketak eta txingak eramatea; taloak... Baita euskal feria ere Iturrigorri pilotalekuan. Sanfermin jairik ez dute ospatu aurten, baina jaialdirik ez da falta izan, eta uztailaren 22a artean oraindik izango dute zerekin ondo pasatu.

'Ahora o nunca' antzezlana Trapu Zaharrarekin

Urtero bisita egiten duen Trapu Zaharra antzerki talde donostiarrak *Ahora o nunca* antzezlana ekarriko du datorren eguaztenean, uztailaren 20an, Durana kalera, 19:00etan.

Txema Ociok zuzendutako antzezlanean, sekula lanik egin ez duen semearekin zelanbait bizi den bikotearen istorioa jaso dute; egoera horren aurrean, kalera ateratzea erabaki dute gurasoen istorioa, hain zuzen ere. Santi Ugalde eta Gemma Martinez aktoreek barre algarak sorraraziko dizkiete aretxabaletarrei oraingoan ere.

UDAren 'Geroa sortuz' futbol campusa abian da

M.A. | ARETXABALETA

Astean jarri du abian Aretxabaleta Kirol Elkarteak *Geroa sortuz* futbol campusa. 2004tik 2007ra bitartean jaiotako gaztetxoak elkartu dira –herrikoez gain, Oñatikoak, Debakoak, Gasteizkoak...–, eta, futbol entrenamenduekin batera, txangoak, jolasak ingelesez eta beste hainbat ekintza egin dituzte.

Lehenengo txandako gaztetxoek gaur, egubakoitza, esango dute agur, eta astelehenean bigarren txandakoak sartuko dira. Guztira, 72 neska-mutiko pasatuko dira bi asteotan campusetik.

Gazte Konkis-eko parte-hartzaileak Lexargaratera bidean. | IRATXE ARRESE

Aste osoan 'Gazte Konkis' abenturan izan dira nerabeak

Tranparik ez egiteko, ordulariak, mugikorrak eta janaria konfiskatu ostean hasi ziren probekin

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Udaero egitasmoaren barruan, martitzenean hasi zuten Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko nerabeek *Gazte Konkis* abentura. ETB2 kateko *El Conquistador del Fin del Mundo* programaren estiloa jarraituz antolatutako ekintza izan da, eta aste osoa pasa dute mendian, hainbat proba egiten.

Eskoriatzako gaztelekuan batu ziren lehenbizi, eta arauak azaldu ondoren, erlojuak, telefono mugikorrak eta motxiletan gordeta zeramaten janaria konfiskatu zizkieten. Batek baino gehiagok ordulariak kentzearen arrazoia zein zen galdetu zuen, baina antolatzaileek ez zuten inongo pistarik eman nahi izan. Hala, probaz proba Lexargaraterantz abiatu ziren joko ezberdinak eginez. 36 gazte izan dira parte hartzen lau taldetan banatuta: *Basurdeak, Orkatzak, Urtxintxak eta Saiak*. Bestalde, lau kapitain eta Julian Iantzi imitatu dituzten aurkezleak ere izan dira gazteen gidari moduan.

Ez da irabaztea bakarrik

Janari goxoagoa edo lo egiteko leku hobea izateko jokoak irabazi behar izan dituzte gaztetxoek, baina hezitzaileek jarritako arauen arabera. Izan ere, irabazteaz gain, euskara, talde-lana, errespetua, elkarbizitza eta halakoak kontuan hartu dituzte garaipena nori eman aukeratzeko orduan. Hala eta guztiz ere, helburu nagusia ondo pasatzea izan dute.

Las Tuerkas taldeak punk-rock kontzertua eskainiko du gaur Naira tabernan, 20:00etan

2013an sortutako Las Tuerkas taldea osatzen duten Saioa Puebla (bateria), Maitane Otamendi (ahotsa eta gitarra) eta Maider Berastegik (baxua) punk-rock kontzertua eskainiko dute gaur Naira tabernan. Emanaldia 20:00etan izango da, eta hiru neskek, gorroto eta aldarrikapen mezuez gain, positibismoa ere islatuko dute beraien kantuetan. Desprezio edota Las Hijas de la Evasion taldeetan aritutako musikariek kontzertu gogorra eta indarrez betetakoa eskainiko dute.

Izaki Gardenak taldea Gernika plazan izango da

Jon Basaguren taldearekin etorriko da lehen aldiz Eskoriatzara

I.B | ESKORIATZA

Izaki Gardenak taldea 2012. urtean Jon Basagurenen bakarkako abestiei forma emateko sorturiko taldea da. Bakarlari moduan Eskoriatzan izana da Basaguren abeslaria, Inkernu tabernan kontzertua eskaintzen, baina oraingoan talde osoarekin izango da. 2016ko martxotik aurrera, *Aurri gara* lanarekin aritu da taldea, eta, lan honetaz gain, aurreko diskoetako kantak ere eskainiko dituzte gaurko kontzertuan.

Emanaldia 22:30ean izango da Gernika plazan (plaza txiki) eta Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatutako Errekan Gora egitasmoko bigarren kontzertua izango da hau. Hiru diskoetako kantuak joko dituzte emanaldian, eta baita bertsioren bat ere. Jon Basaguren abeslariaren esanetan: "Kanta rockeroagoak joko ditugu, zuzenekoetan energia handiagoa izaten dutelako halako kantek, era pasionalagoan. Gainera, Eskoriatzan era akustikoan jo nuenean herritarrek ezagutzen zituzten kantuak, eta, taldearekin joanda, indar handiagoa izango du emanaldiak. Espero dut jende asko gerturatzea eta kontzertuaz disfrutatzea".

Izaki Gardenak taldea Oñatiko Antixena gaztetxean. | IMANOL SORIANO

Itsasargiak, *Amaieratik hasi* eta *Aurri Gara* diskoetako lanak taularatzeaz gain, bertsioren bat edo beste joko dute, eta herritarrak animatu nahi izan ditu Jon Basaguren abeslariak: "Udan hiru emanaldi bakarrik eskainiko ditugu, eta aukera paregabea izango dute Eskoriatzakoek eta bailarakoek kontzertuaz disfrutatzeko".

Udan soilik hiru emanaldi

Izaki Gardenak taldeak hiru kontzertu eskainiko ditu udan. Taldekideek beste lan batzuk dituzte, eta, oporrak hartzeko beharrarekin, honela osatu dute egitaraua: gaur, 22:30ean, Eskoriatzan, Errekan Goran; hilaren 30ean, Elorrion, Musikairen, 22:00etan; eta abuztuaren 5ean, Gasteizko jaietan, Matxete plazan 00:00etan.

Denboraldia amaitzeko irteera

Pasa den zapatuan, uztailaren 9an, aurtengo denboraldiari agur esateko irteera egin zuten, Santanderrera, Eskoriatza Kirol Elkartekoek. 07:30etan irten ziren, eta, lehenbizi, Santillana del Mar herria bisitatu zuten. Ondoren, Santanderren bazkaldu zuten, eta amaitzeko, Castro Urdiales herrian bisitaldi labur bat egin ostean, Eskoriatzara bueltatu ziren. Guztira, 30 lagun inguru izan ziren bertan, eta bikain pasatu zuten eguna.

ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

VILLAR ILE-APAINDEGIA SALGAI
Nire jabearen erretiroagatik saltzen naute. Betiko bezeroek ni erostea eskertuko dizute!
ESKORIATZA
Tel.: 600 433 566
Deitu 13:00-17:00 artean.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23
627 140 961 | furgo@ibiltariak.com
IBILTARIAK
CAMPER EKIPAMENDUAK
www.ibiltariak.com
20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

Herritarrek dena gertu dute bihar egingo den Mairuaren Alarderako

Azken entsegu orokorra eskolako patioan egingo dute, arratsaldeko seietan hasita, zapatuan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Danbor-joleak, txistulari taldea, abesbatza, mairuaren jarraigoa (sekitoa), buruzagia, fusilariak... eta, nola ez, Antzuolako Alardearen ikur diren kanoiak ere Herriko Plazan batu ziren eguazten arratsaldeko entsegu orokorrean. "130 lagun inguru batu gara gaur arratsaldeko entseguan. Baina biharko desfilean, guztira, 180-190 inguru izango gara", azaldu du Mairuaren Alardea Kultura Elkarteko lehendakari Xabier Legorburuk. Dena prest duten arren, urduritasuna eta emozioa beti dagoela gaineratu du Legorburuk: "Beti daukazu kezka hori ea dena ondo aterako ote den... baina eguraldiak badirudi lagunduko duela eta euririk, behintzat, ez duela egingo".

Belaunaldi aldaketa dute erronka eta gazteak animatu gura dituzte: "Trantsizio egoeran gaude; kopuru aldetik oso gustura gaude eta jende berria ere badatorren arren, gazte gehiagok parte hartzea gurako genuke. Horregatik, sozializazio prozesuan jarraitzen dugu. Esan behar da Ikastolen Elkarteak Alardearen gaineko material didaktikoa jaso duela, eta berritze prozesu hori, gatazka gabekoa, eredu hartu izanak asko pozten gaituela".

Performancea, domekan

Emakumeak historian izan duen parte hartzea jasoko duen performancea egingo da domekan, 12:30ean. "Alardea oinarri hartuta egingo dute ikuskizuna".

Eguazten arratsaldeko entsegu orokorra. | MAIDER ARREGI

AMAIUR ETA LIERNI
DANBOR-JOLEAK

"Laugarrenez danborra jotzen irtengo gara. Giro polita egoten da Alardearen egunean; izan ere, festetako ekintzarik garrantzitsuena da. Gazteek ere parte hartzen dugu; guk 13 urte ditugu".

JON GURUTZ BITERI
ABESBATZAKO KIDEA

"Txikitatik parte hartu dut Alardean. Orain dela bi urtetik, abesbatzako kide naiz. Asko gustatzen zaizkit Alardeko kantuak eta gustura parte hartzen dut. Egun polita da; jaietako garrantzitsuena".

Pausokak antolatuta atzoko gaztetxoen bazkaria. | MAIDER ARREGI

Hontza eta oliba jaitsita, festak eztanda egin du

Gaurtik domekara bitartean nahi adina ekintzaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek

M.A. | ANTZUOLA

Atzo, eguena, umore eta giro paregabean hasi zituzten herriko jai nagusiak antzuolarrek. Herriko gaztetxoak izan ziren lehenak: Pausokak antolatuta, bazkaria eta jolasak egin zituzten eguerdian. Arratsaldean, aldiz, festak eztanda egin zuen udaletxeko balkoian. Lehenengoz, bi herritarrek jaurti zuten etxafuegoa eta igo zuten ikurrina. Eta jendetza batu zen udalbatzaren dantza ikusteko plazan. Iluntzean, lehenengoz, olibaren jaitsiera egin zuten txosnetan; eta gauerdian Hontzari ongietorria egin zioten.

Domekara arte gehiago

Gaurkoa ere egun mardula dute antzuolarrek. Goizean, hamaika taldek hartuko dute parte gastronomia lehiaketan eta txanpiñoi goxoenak prestatzeko ardura izango dute. Kalebarrenen herri bazkaria izango da, 14:30ean, eta aurten, lehenengoz, bederatzi kuadrillak parte hartuko dute herrian zehar egingo diren jokoetan. Gauean pilota partidu profesionalaz gozatzeko aukera izango da: Jaunarena-Irusta eta Mendizabal-Tolosa. Eta musika Asea eta Joxpa taldeak jarriko du txosnetan; La Pulgaren flamenko ikuskizuna, aldiz, plazan izango da, 23:30ean hasita.

Umeendako jolas parkea goiz eta arratsaldez izango da eskolako patioan gaur.

Zapatu goizean Bergarako bandaren kontzertuaz eta umeendako marrazki lehiaketaz gozatu ahalko da. 19:00etan Mairuaren Alardea egingo da herrian zehar. 22:00etan, aldiz, zezensuzkoa; ondoren, Obanekue taldearen musika. "Hamar urtean baino gehiagoan etorri den Joselu Anaiak taldea ez da etorriko", dio Kultura teknikari Jone Larrañagak. Izan ere, jai batzordeko batzarretan parte hartu dutenek halaxe erabaki dute. Txosnetan rock kontzertua izango da.

Domekan, *Ez dot moztuko bizarra* taldeak bazkaria egingo du. Arratsaldean, 18:30ean, bolatokia inauguratuko da. Festa borobiltzeko, larrain dantza eta AKEren pintxo dastaketa, besteak beste, egingo dira arratsaldean zehar.

Erretiratuen bazkaria giro bikainean ospatu dute

Landatxopek antolatuta, jaien bueltan egin ohi den bazkaria ospatu zuten zapatuan. Bazkariko "giro bikaina" azpimarratu zuten denek. Jende ugari batu da aurten ere. Madalena Ortizek eta Asensio Laskurainek jaso zuten bazkariko nagusienen zapia. Ohorezko aipamena, aldiz, Kontxi Agirreurretarendako izan zen.

IMANOL SORIANO

Herriko jaietan ere eraso matxista eta sexisten aurka

Antzuolako EH Bilduk jaietan ere eraso matxista eta sexisten aurka azaltzeko eskatu die herritarrei. "Azken urteetan, zoritxarrez, urtean zehar gertatzen diren eraso sexista eta jarrera matxistak jai eremuetan areagotu egiten dira. [...] Gure baitan dago erabakia: sexu harremanei, lagunarteko hartu-emanei eta kontsumoei dagokienez. Ez dugu onartuko bestearen erabaki librea, askatasuna eta segurtasuna apurtzeko helburu duen jarrerarik eta antzuolarrok paper aktiboa izango dugu horrelako kasurik emango balitz. [...]", azaldu du EH Bilduk oharrean.

Iker Arriolabengoa | Gazte udalekuetako monitorea

"Lehiaz kanpoko natur jarduerak egitea izan da helburu nagusia"

- 15 neska-mutiko ibili dira lehenengoz antolatutako gazte udalekuetan
- Gaur, barikua, azkeneko eguna dela ospatzeko jai txiki bat egingo dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aramaioko Udalak antolatuta, *Aramaio, mugituz ezagutu* gazte udalekuak egiten dabiltza uztaileko bigarren eta hirugarren asteetan. Iker Arriolabengoak gidatuta egin dituzte irteerak. Opor garaian herriko gazteen artean natur, aisialdi eta lehiaz kanpoko kirol ohiturak sustatzea eta praktika aukerak sortzea eta sendotzea izan da helburua.

Udaleko Kultura batzordean proposatu zenuen gazte udalekuak antolatzea. Zer dela eta?

Adin tarte horretan gabezia handia dago, ez da eskaintzarik egoten. Nire ikasketak ere adin tarte horretara zuzendutakoak dira; eta aurretik udalekuetan egon izan naiz begirale moduan. Gainera, nik ere bizi izan dut adin tarte hori. Gazte udalekuak antolatzea asperdura horri aurre egiteko modua izan daiteke.

Zenbat gaztek eman dute izena?

Proba moduan antolatu dugu eta erantzuna oso ona izan da. 15 lagunek eman dute izena udalekuetan; hala ere, guztiak ez dira egunero etorri. 13 bat laguneko taldearekin ibili naiz.

Zein izan da udalekuon helburua?

Ezaugarri nagusia lehiaz kanpoko natur jarduerak egitea izan da. Lehia ukatu egin dugu eta, era berean, natur ingurunea erabili dugu kirol praktikarako; gura izan dut, baita ere, herriarekiko atxikimendua bultzatzea. Horretarako herritarren parte-hartzea bultzatu dugu.

Iker Arriolabengoa. | A.E.

"Gazteek izan duten prestutasuna ikusita oso gustura geratu gara"

Hainbat joko egiteko herritarren parte-hartzea behar izan dute gazteek.

Bai, hainbat informazio lortzeko herritarren laguntza behar izan dute gazteek. Modu horretan, herriarekiko atxikimendua bultzatu gura izan dugu.

Bi asteotan bost irteera egin dituzue. Zer egin duzue?

Lehenengo egunean orientazio proba bat egin genuen: helburua zen gune historikoak edo baserriak ezagutzea. Gune horietan informazioa jaso behar zuten. Bigarren egunean Anbotora irteera egin genuen, eta oso ondo joan zen, denak igo ziren. Markel Arriolabengoa etorri zen gonbidatu gisa, eta faunaren eta floraren inguruko informazio eman zigun. Astelehenean erreka garbitu genuen: Santa Ana ermitatik Salazan baserrira bitartean 40 bat poltsa batu genituen. Bihar, barikua, mendi irteera txiki bat egingo dugu, eta, horren ostean, parrilada egingo dugu.

Pozik zaude emaitzarekin?

Bai, oso pozik. Prestutasun handia erakutsi dute gazteek, eta oso gustura geratu gara.

Gazteak, eguaztenean, mendi bizikleta irteera egiteko gertu. | A.E.

Legution ospatuko dute Euskararen Eguna aurten

A.E. | ARAMAIO

Zuiako kuadrillako udalekuetako haurrak Legution elkartuko dira datorren eguenean, uztailaren 21a, Umeen Euskararen Eguna ospatzeko. Aurtengoa XVII. ekitaldia izango da.

Kuadrillako udalerri guztietatik autobusa egongo da Legutiora joateko. Aramaiotik 10:15ean irtengo da autobusa, frontoitik. Jaia 10:30etik 14:00etara bitartean izango da: besteak beste, tailerrak, euskaraokea, puzgarriak eta diskofesta izango dituzte.

Udalekuetan izena eman ez duten umeek ere izango dute Legutiora joateko aukera: horretarako, uztailaren 18a baino lehen eman beharko dute izena *euskara@cuadrillazuia.com* helbidean edo 945 43 01 67 telefono zenbakian. Udalekuetan ez dabiltzan 6 urtetik beherako umeak heldu batekin joan beharko dira.

Udalekuetako azken astea

Gaur, barikua, lehenengo eta bigarren mailetako umeek ur eta zikin eguna izango dute; hirugarren eta laugarren mailetakoak Uribarrira joango dira, eztia nola egiten den ikastera; eta nagusiek kamiseta eguna ospatuko dute.

Datorren astean beste hainbat ekintza eta irteera egingo dituzte; Euskararen Egunaz gain, azkeneko egunean azken jaia egingo dute.

Badatoz Santamaiña jaiak ohiko ekitaldi nagusiekin

Gaurko bertso afaria alaitzen Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariak ibiliko dira

A.E. | ARAMAIO

Arriolako eta Arexolako jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta domekara arte. Santamaiña jaiak izaten dituzte aipatutako bi auzo horietan.

Gaur, barikua, hasiko dituzte jaiak etxafuego eta kanpai errepikarekin. Ondoren, 21:00etan, bertso afaria egingo dute.

Arzallus eta Soto bertsotan

Jaietako ekitaldi garrantzitsua izaten da mahaiaren bueltan egiten dutena. Aurten, 80 bat lagunek eman dute izena afaritarako. Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariak ibiliko dira afalostea girotzen, bertsotan. Ordu txikiak arte luzatuko da afaria.

Bihar, zapatua, jarraituko du jaiak. 12:00etan meza santua izango dute ermitan. Ondoren, jaietako beste ekitaldi garrantzitsu bat izango dute: Ibarratik Arexolara bizikleta lasterketa egingo dute. Parte-hartze handia izaten duen lasterketa izaten da: adinaren arabera ibilbide luzeagoa edo motzagoa egiten dute txirrindulariek. Amaieran, sariak banatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Kanpai-jotze erakustaldia

17:30ean mus eta briska txapelketa egingo dute; ondoren, Arexolatik Arriolara kalejira izango dute; 19.30ean kanpai jotze erakustaldia, eta 23:00etan Narbaiza eta Astiazaran trikitilarien erromeria. Goizaldean txokolate beroa banatuko dute.

Domekan meza nagusia izango dute, 12:00etan; eta, 18:00etan umeendako jolasak.

IMANOL SORIANO

Pilota eskolakoen erakustaldia

Pilota eskolako neska-mutikoek lagunarteko partiduak jokatu zituzten aste bukaeran. Ekitaldiaren helburua ez zen lehiakortasuna izatea, talde giroa sustatzea baizik. Hala, nagusiek eta gaztetxoek elkarren artean nahastuta jokatu zuten. Partiduen ostean Iturrieta sagardotegira joan ziren elkarteko pilotariak, gurasoak eta arduradunak elkarrekin bazkaltzera.

Kontserba ekologikoen ikastaroa egingo dute

A.E. | ARAMAIO

Arbel kooperatibak eta Aramailur kontsumo taldeak antolatuta, kontserba ekologikoen ikastaroa egingo dute uztailaren 19an, martitzena.

Zubi-Ondo elkartean izango da ikastaroa, 16:00etatik 20:00etara. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 688 695 763 telefono zenbakira. Ikastaroan parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko da –plaza mugatuak dira–.

Ortutik Ahora elkarteko kideek eskainiko dute ikastaroa. Barazki ekologikoekin kontserbak eta picleak egiten ikasiko dute; eta baita fruta, stevia eta paneladun marmeladak egiten ere. Ortutik Ahora elkarteak ikuspuntu agroekologikotik elikadurari dagoekion guztia lantzen du.

Opor atarian, martxa onean doa liburutegiko mailegu zerbitzua

Aukera zabaltzeko eLiburutegiari buruzko tailerra, astelehenean, 18:30ean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako erabiltzaile askok egin dute dagoeneko uda sasoirako liburu aukeraketa, eta hutsune nabariak antzematen dira liburutegiko apalategian. Arduradun Geaxi Ezpeletak adierazi du formatu tradizionalean irakurtzen dutela Elgetako erabiltzaile gehienek. Bestelako aukerak ere badaude, ordea, eta liburutegiak eLiburutegia zerbitzua ezagutzera emateko tailer berezia antolatu du astelehenerako, hilak 18. Formatu digitalean irakurtzeko aukera ematen du eLiburutegiak, eta mailegu digitalaren funtzionamenduaren berri emango dute asteleheneko tailerrean, 18:30ean, liburutegian.

Udalekuetako neska-mutiko taldea, eguaztenean, liburutegian. | L.Z.

Interesgune berriak

Irakurleen beharrak asetzeko eta opor sasoira begira, bi interesgune berri ipini dituzte liburutegian: Euskal Herriko txokoak eta formatu txikiko liburuen txokoa.

Bestalde, udalekuetako neska-mutikoen bisita izan dute asteon liburutegian. Ipuin kontaketa saioa eta pisten jokoa egin zituzten, besteak beste.

Zozketa berezia uztailean

Uztailean mailegu zerbitzua erabiltzen duten bazkide helduen artean poltsikoko bost liburuz osatutako liburu sorta zozketatuko dute liburutegian. Zozketa hilaren 29an egingo dute.

Kultura etxean erabilerarik gabe dauden gelak auzolanean garbitzeko deialdia astelehenerako

"Erabilerarik gabe egotetik erabilgarri lagatzea eta erabilera ematea litzateke asmoa", adierazi du deialdia egin duen Elgetako Udalak. Astelehenerako, hilak 18, egin dute auzolanerako deia. "Kultura etxean izango gara 09:00etatik aurrera (...) erabilerarik gabe dauden guneak husteko eta garbitzeko", zehaztu dute. Herritar guztiei egindako auzolanerako gonbidapena da.

Xoxote eta Erlo igotzeko proposamena egin du, domekarako, Kantsatzeke mendi taldeak

Kosta aldera antolatu zuten ekaineko irteera, eta Gipuzkoako barnealdea aukeratu dute uztailekorako. Azpeitia eta Azkoitia inguruan dagoen Izarraitz mendikateko Xoxote (912 m) eta Erlo (1.029 m) dituzte aurreikusita ibilbidean. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik. Argibide gehiagorako, jo udaletxera, *kantsatzeke@gmail.com* helbidera edo Facebook profilera.

Egin dute San Roke kaleko zozketa, eta sarituek hamabost eguneko epea dute sariak jasotzeko

Abuztuaren 16an ospatuko dituzte sanrokeak Elgetan. Jaiak diruz laguntzeko antolatutako zozketako zenbaki sarituen berri eman du jai batzordeak: 1.980, 1.650, 1.363, 1.162, 1.025, 717 eta 451. Sarituek hamabost eguneko epea dute sariak jasotzeko. Agertu ezean, honako hauek dira ordezko zenbaki sarituak: 1.711, 1.660, 1.390, 1.053, 1.121, 264, eta 059.

Ahalegin handiagoa berdintasunaren bidean

Berdinbidean egitasmoaren babesarekin urrats sendoagoak egin gura ditu Elgetako Udalak

L.Z. | ELGETA

Indartuz doa Elgetako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdinbidean egitasmoarekin duen hartu-emana. Orain dela bederatzi urte sortu zen lankidetza, eta fruituak eman ditu: plan orokor bat, formazio saioak, herritarrei begirako ekintza puntualak... Bideberri mankomunitateko kide diren Antzuolako, Elgetako eta Leintz Gatzagako udalek, ordea, pauso berriak eman gura dituzte eta lanketa berezi batean murgilduta daude. "Herri txikietan ez dago berdintasun teknikaririk eta ez da erraza gai batzuk aurrera eramatea", azaldu du Ongizate teknikari Naiara Unamunok. Berdintasunaren gaiak eguneroko bizitzan presentzia handiagoa izan dezan transbertsaltasuna eman gura diote: "Helburua da herriko esparru ezberdinetan presentzia handiagoa izatea: hirigintzan, kiroletan, jaietan... Asmo horrekin udal idazkariak hasita daude formazio saioak jasotzen, eta asmoa da irailerako gertu egotea herriz herri prestatzen ari garen planifikazioa".

Sortuta dago batzorde berri bat Bideberriko bi teknikarirekin eta hiru herrietako udal ordezkari banarekin. Agurtzane Alkalde zinegotzia da Elgetako ordezkaria. Mahai gainean daude informazioa sistematizatzeko datu baseak sortzea, arreta zerbitzuen koordinazioa...

EIDER ITURRIAGA

Eider Iturriagak irabazi du jaietako argazki lehiaketa

Euria egin du aurten Elgetako Ferixa Nagusiko jaietan, eta horietako egun batean herriko plazan ateratako argazki honekin irabazi du Eider Iturriagak Elgetako Udalak antolatutako Ferixa Nagusiko argazki lehiaketa. "Lau lagun aurkeztu dira aurten lehiaketara, baina lau horietako bat epez kanpo. Beraz, hiru pertsonaren argazkiak hartu dira kontuan irabazlea aukeratzeko orduan", azaldu du udal ordezkari Janire Lazkanok. Iturriagak kirol ekintzetarako kamera bat jaso du opari.

LEINTZ GATZAGA

Gatz museoa uda osoan zehar egongo da aktibo

Urtero moduan, uztailean eta abuztuan egunero eskainiko dituzte bisitak, euskaraz eta gaztelaniaz

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Urte batzuk badira herriko gatz museoak ez dituela ateak ixten udan. Aurten ere bisita gidatuak eskainiko ditu uztailean eta abuztuan, astelehenetik domekara bitartean. 12:00etan euskarazko bisitak izango dira eta 13:00etan gaztelaniazkoak. Horrez gain, aurrez erreserba egiteko aukera ere izango dute bisitariek; hori bai, gutxienez, 10 laguneko taldeak osatu beharko dira bisita gidatua jaso ahal izateko.

Sarrerak bost euro balio du, baina, taldeka joanez gero, lau eurora jaisten da prezioa.

Aitor Larrañaga museoko arduradunak dio badabilela jendea, oraingoz. "Egunero etortzen da norbait bisita gidatuak jasotzera", adierazi du.

Aurrez eskaera egin ahal izateko, 943 71 47 92 telefonora deitu edota *reservas@gatzmuseoa.com* helbidearen bitartez jar daiteke kontaktuan.

Umeak sukaldean

Udalekuen egitarauaren barruan, gaur, herriko umeak sukaldari lanetan arituko dira, *Master Pintxo* izeneko jardueran. 17:30ean herriko gastronomia elkartean plater ezberdinak prestatuko dituzte haurrek. Ondoren, 20:00etan, umeek prestatutakoa dastatzeko aukera izango dute nagusienek eta epaimahai lanak egingo dituzte. Guztira, 12 ume arituko dira sukaldean.

Euskadi Irratia

Bestalde, Joannes Mendizabal eta Aitziber Gorosabel Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan izan ziren martitzenean, gela desplazatuaren gainean hitz egiten.

Horrekin lotuta, Gurelek Eusko Jaurlaritzaren mezu bat jaso du asteon, gelaren egoera aztertzen ari direla esanez.

TXIRRINDULARITZA

Demasa kriteriuma gaur, Bergarako kaleetan zehar

Besteak beste, Irala eta Ibargarai kaleak erabiliko dituzte zirkuitua egiteko

XABIER URZELAI | BERGARA

Emakumezkoen ziklismo lasterketa egingo dute gaur, egubakoitza, Bergaran. Kilometroak 2016k eta Lokatza Ziklismo Eskolak antolatu dute kriteriuma elkarlanean. Helburua, aurtengo kilometroak sustatzeaz gain, emakumezkoen txirrindularitza ikustarazi eta bultzada bat ematea izango da: "Emakumezkoetan ez da gizonezkoetan moduko egutegirik izaten, eta garrantzitsua da, behintzat, lasterketa bat gehiago egotea", adierazi zuen eguaztenean Jon Unamuno Lokatzako presidenteak. Eta gaineratu zuen ziklismo eskolaren helburuen artean emakumezkoen taldea sortzea ere badagoela.

Lasterketaren sustatzaileak, eguazteneko aurkezpenean. | GOIENA

18:30ean hasiko dute

Gaur 18:30ean hasiko dute kirol hitzordua, eta antolatzaileek 50 txirrindulari inguru espero dituzte, infantil mailatik hasi eta 23 urtez azpikoetara arte, eta bi modalitate izango dira: puntuaziokoa, eta kanporaketa sistemakoa.

Hala, kriteriumean parte hartuko duten taldeak izango dira: Gipuzkoa, Bio Racer, Bizkaia Durango, Punta Galea eta Gutrans. "Eta, txirrindularien artean, nabarmentzekoak dira Nahia Leonet, Ziortza Isasi edo Eider Unanue", moduko ziklistak. Horiekin batera, baina, Debagoienak izango du ordezkaritzarik, Garazi Estebez (Dorletako Ama) aretxabaletarrak eta Garazi Erostarbe (Caja Rural) oñatiarrak ere hartuko dute-eta parte.

Aranzadiko patioan hasita

Kriteriumeko ibilbide osoa herriaren erdigunean izango da, eta ziklistek hainbat bira emango dizkiote –kilometro bat izango du zirkuituak–. Ikastolako jolastokian egongo da zirkuituaren hasiera eta amaiera –Seminarioan–. Hala, handik abiatu eta Herrilagunak kalerantz joango dira txirrindulariak; handik, Irala kalea zeharkatuko dute; Kruz Gallastegitik jaitsi; Bideberritik Ibargaraira abiatuko dira eta han, ate handitik jolastokira sartuko dira atzera ere.

ESANAK

"Emakumezkoek lehiatzeko lasterketak behar dituzte"

JON UNAMUNO | LOKATZA

"Kilometroak ez da urrian egingo den festa bakarrik"

MAITE FERNANDEZ | KILOMETROAK 2016

ATLETISMOA

Eneko Carrascal Tbilisin da egunotan, Europako Txapelketa jokatzen

Gipuzkoan Arrasatekoak baino ez du lortu gazte mailako txapelketarako sailkatzea

X.U. | ARRASATE

Astelehenean abiatu zen Eneko Carrascal (Arrasate, 1999) Georgiako hiriburura, gazte mailako Europako Txapelketa jokatzera. Atzo, eguena, iluntzean zeukaten lehenengo kanporaketa fasea –luzera saltoan–, baina ordurako itxita zegoen GOIENAko erredakzioa –emaitzak zuzenean *www.european-athletics.org* helbidean– Dena dela, *goiena.eus* atariak jasoko ditu txapelketako gorabeherak. Salto hirukoitzeko saioa, berriz, bihar, zapatua, izango du.

Bi modalitatetan lehian

Arrasatekoa erronka bikoitzarekin aurkeztu da txapelketara, salto hirukoitzean lehiatzearekin batera luzera saltoan ere indarrak neurtuko ditu eta. Izan ere, azken urteotan izandako eboluzioan jauzi handia eman du arrasatearrak, eta azken hilabeteak oso emankorrak izan dira –gipuzkoar bakarra da Europako Txapelketarako sailkatu dena–.

Neguan, pista estalian denboraldi ederra egin zuen Carrascalek, eta, Euskadiko txapeldun izan ostean, Salamancan egindako Espainiako Txapelketan erakustaldia eman zuen, bi modalitatetan onena zela erakutsita –luzera saltoan 7,24 metroko markarekin, eta salto hirukoitzean 15,09 metroko markarekin–. Adin horrekin oso atleta gutxi daude 15 metroko marka gainditzeko kapaz direnak; txapelketako errekorra ezarri zuen salto horrekin. Eta aire libreko denboraldian Espainiako Txapeldun izan da ostera ere.

Esperientzia du txapelketan

Carrascalendako ez da berria Europa mailan lehiatzea, iaz ere sailkatu zen, eta, hain zuzen, leku berean egin zuten txapelketa, Tbilisin.

Eneko Carrascal. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizarrek beste bi urte egingo ditu Trek Segafredo taldean

Trek Segafredok astelehenean baieztatu zuen Markel Irizar ziklista oñatiarrak beste bi urte egingo dituela taldean, Bauke Mollemarekin eta Gregory Rastekin batera. Eta aste barruan albiste izan da Tourra utzi behar izan duen Alberto Contador, Saxo Tinkoff taldea desagertzean Irizarren taldekide bilakatuko da eta.

MENDI LASTERKETAK

Iokin Garai bigarren sailkatu da Goierriko Bi Handiak proban

Iokin Garai mendi lasterkari oñatiarra bigarren urtez igo da G2H lasterketako podiumera, oraingoan bigarren sailkatuta (11.02.35) –iaz irabazi egin zuen–. Aipatzeko moduko lana egin zuten, baita ere, Oñatiko Xabier Letek (10. postua) eta Arrasateko Ganix Lasak (13. postua).

MENDI LASTERKETAK

Aitor Otamendi bosgarren, Ehun Miliak lasterketan

Oñatiko Aitor Otamendi bosgarren sailkatu da Ehun Miliak ultratrail lasterketan. Otamendik 25 ordu eta erdi behar izan zituen 168 kilometroko lasterketa egiteko; irabazlearengandik –Javi Dominguez gasteiztarra– ordu eta hamar minutura helmugaratu zen.

TRIATLOIA

Raquel Alonso hirugarren, bere adin tartean, Gasteizen

Joan den zapatuan jokatu zen Gasteizko Triatloian lan oso txukuna egin zuen Raquel Alonso arrasatearrak. Bere adin tartean (45-49 urte) podiumera igo zen, hirugarren sailkatuta (5.25.19). Iñigo Labayen arrasatearra, ostera, bigarren izan zen 35-39 adin tartean (4.23.44).

AUTOMOBILISMOA

Altuna eta Fuente garaile Focusarekin, Pradejoneko rallyan

Mikel Altuna eta Erik Fuente oñatiarrek irabazi zuten joan den astean, ezustekoa emanda, Pradejonen –Errioxa– jokatu zuten rallya. Open Sportech txapelketako proba puntuagarria izan zen eta aurreikuspen guztiak hautsiz, lehen klaseko garaipena lortu zuten txantxikuarrek.

2014ko lasterketako irteera unea; iaz euriak asko zaildu zuen proba. | IMANOL SORIANO

TXIRRINDULARITZA

Oñatiko kaleak gertu daude gaueko ziklismo ikuskizunerako: bihar egingo dute Kantoikrit

Aurtengo ediziorako antolatzaileek zirkuituan aldaketak egin dituzte (22:00)

X. URZELAI / M. TXINTXURRETA | OÑATI

Zapatuan jokatuko dute urtetik urtera geroago eta ezagunagoa den Oñatiko kriterium bizikleta proba (22:00). Aurtengo ediziora begira ibilbidean aldaketa txikiak egingo dituzte, eta, ondorioz, Oñatiko alde zaharrean egongo den zirkuituari itzuli gehiago egingo dizkiote: guztira, 18 itzulitan ziklistek 24 kilometro egingo dituzte. Ibilbidea –%100 urbanoa– Foruen plazan hasi eta bukatuko dute, eta, orain artekoak baino laburragoa izango denez, buelta kopurua ere handitu dute. "Pentsatzen dugu puntu batzuetan azkarragoa izango dela, eta teknikoagoa ere bai", dio Antton Zubia antolatzaileak. Lasterketako ezaugarriei dagokienez, hor ez dago aldaketarik: pinoi finkodun bizikletak erabiliko dituzte, eta lasterketa gauez izango da.

Harbide zatia, ikusgarriena

Aker taberna pareko galtzada izan ohi da lasterketako punturik interesgarrienetakoa, harbidea da, eta hor batzen dira ikusle asko –eta animatuenak–. Ibilbide osoa Kantoikriten webgunean (*kantoikrit.com*).

ATLETISMOA

Parte-hartze libreko saioak egingo dituzte Mojategin

Bihar, zapatua, izango dira saioak

X.U. | ARRASATE

Aire libreko atletismo denboraldia puri-purian dago, orain dira hitzordu nagusiak; esaterako, datorren asteburuan Espainiako Txapelketak jokatuko dituzte, maila absolutuan. Eta, motorrak berotze aldera, bihar, zapatua, parte-hartze libreko saioak egingo dituzte Mojategin. Hala, ze sasoitan dauden ikusita seguruenik Euskal Herriko puntako atletak lehiatuko dira Mojategin –aste barruan egin behar zuten izenematea–.

Pertikarekin salto egiten. | GOIENA

Hiru modalitatetan

Arrasate Atletiko Taldeak antolatutako lan-saioa izango da, arratsaldez egingo dute, eta hiru modalitate batuko dituzte: pertika eta altuera-jauzia –18:00etan hasita– (gizonezkoetan zein emakumezkoetan) eta jauzi hirukoitza –19:00etan hasita– (gizonezkoetan bakarrik).

FUTBOLA

Gaur egingo du UDAk batzar orokorra eta bihar Debagoieneko Kuadrillen Arteko Txapelketa izango da

Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita egingo du Aretxabaleta Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra, Arkupen. Amaitu berri duten denboraldiaren gaineko balorazioa egin eta balantze ekonomikoa aurkeztu ostean, datorren urteko aurrekontua aurkeztuko dute, kirol proiektuarekin batera. Eta, urteko kirolari nabarmenenak ere sarituko dituzte. Zapatuan, berriz, Debagoieneko Kuadrillen Arteko Futbol Txapelketa egingo dute. Antolatzaileek 1.000 euro banatuko dituzte lehenengo hiru sailkatuen artean.

UDAKO ARGAZKIEN XII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak*

ASIER ATXA .

AMAIA SANTAMARIA .

ISABEL MUÑOZ.

Har ezazu parte!

Oinarriak*

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 8tik irailaren 18ra arte (biak barne).**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- **Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa ematerako blogean.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: ***argazkiak@goiena.eus*** helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrrasate
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 14an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan beharko dute.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera *Puntua* aldizkarian eta blogak.goiena.eus/argazkiak foto-blogean. Epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

Epaimahaiak aukeratzen dituen 3 argazki onenen artean, 3 sari hauek zozketatuko dira.

- **Bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.**
- **Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.**
- **Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.**

Herritarren saria

Herritarrek aureratutako argazkirik onena munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: GURE AMETSA JATETXEA · ARRASATE BIDAIAK · EROSKI ARRASATE · karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

Donostiako EHUn egindako hausnarketa prozesuaren saio bat. | LANKI IKERTEGIA

Kooperatibagintzaren oinarrien gainean antzezlana egingo dute

Donostia 2016 kultur hiriburuaren barruan, 'Kooperarock' proiektua jarri dute abian; Lanki ikertegiak dihardu lanean, beste hainbat erakunderekin batera

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Kooperatibagintzak ere badu bere lekua Donostia 2016 kultur hiriburuaren barruan. Kooperatibismoaren eta bere balioen gainean hausnartzeko *Kooperarock* proiektua jarri dute abian, *Kooperazioaren artea* azpituluarekin. Besteak beste, Lanki ikertegia dabil horretan lanean.

"Proiektu honek kultura eta antzerkia erabiltzen du kooperatibagintzaren oinarrian dauden balioak gizarteratzeko", azaldu du Lankiko Maider Iriartek.

Eraldaketa sozialerako gunea

Proiektuaren haziaz galdetuta, zera azaldu du Iriartek: "2016ko kultur hiriburuaren proiektuak bazeukan eraldaketa sozialerako gune bat; kooperatibagintza izan da eta da oraindik ere eraldaketarako gune bat. 2016ko zuzendariek argi zuten kooperatibagintzak izan behar zuela tartetxo bat programa zabal horretan. Lankirekin egin zuten lehenengo harremana eta hortik sortu zen *Kooperarock*".

Lau zutabe nagusiren inguruan hausnartu dute: lana, hezkuntza, eraldaketa soziala eta elkartasuna. "Kooperatibagintzaren oinarrian dauden balio nagusiak dira horiek, baina ez bakarrak", dio Iriartek.

Hausnarketa prozesua

Oinarri horien gainean hausnartzeko hainbat saio egin dituzte: "Oñatiko Enpresagintza Eskolan, Donostiako EHUn eta Deustun ere egin ditugu saioak. Ekonomia sozial eta solidarioan lanean dabiltzanekin jardun dugu eta, baita Mondragon taldean kooperatibagintzan lanean ari direnekin ere", dio Iriartek. Orain arte egindako hausnarketak irailean bateratuko dituzte.

Proiektuaren bigarren zatiak emaitza artistikoa izango du: Teatro Paraisok antzerkira eramango du emaitza. Ipar eta Hego Euskal Herriko ikastetxeetan aurkeztuko dute antzezlana: bailaran, Arizmendi Ikastolan.

Belaunaldien arteko saioak

Oso berezia den proiektu bat ere egin dute: *Belaunaldien arteko elkarrizketak*. Kooperatibagintzan aritutako, dabiltzan eta sartzear dauden hiru gizon eta emakume jarri dituzte solasean. Saio horiek grabatu egin dituzte, eta ikus-entzunezkoa udazkenean estreinatuko dute.

Pertsona arrunten ohiko liskarrak ardatz hartzen dituen zirku-antzerkia

'Spazi...o' ikuskizunak emozioz eta trikimailuz beteko du Zaldibar frontoia domekan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Garrantzi bako huskeria batetik errieta monumentalak sor daitezke. Nor hasi da? Noren errua da? Zurea! Ez, zurea izan da... Nork ez du era honetako eztabaidarik izan? *Spazi...o* obrak era honetako liskarrak hartzen ditu ipar. Pertsona eta harreman normal eta arruntak dira antzezlanaren oinarriak. Hitzordua uztailaren 20an, domeka, izango da Arrasateko Zaldibar frontoian. Malabarismoa eta akrobaziak baliatuz, emozioak lantzeko saioa izango da.

Akrobaziekin emozioak landuko ditu *Spazi..o* ikuskizunak. | DIKOTHOMIA

Arcana Has Soul taldearen kontzertua Oñatiko Atzeko kaleam

X.G. | ARRASATE

Oñatiko Udalak antolatutako *Kalean* udako kultur programaren baitan, Arcana Has Soul talde valentziarrak kontzertua joko du datorren eguaztenean. Hitzordua Atzeko kalean izango da, 20:00etan.

Instrumentu nahasketa

Estilo aldetik sailkaezina bezala dute euren burua. Hala ere, musika instrumentu *entsalada* berezia duen taldea da. Hala, Txeloa, biolina, perkusio instrumentuak, gitarra, bateria eta ahotsa dira euren soinuaren osagai nagusiak.

Taldea Sagunt herrian sortu zuten 2009an. Euren lanik ezagunena 2013an grabatutako *Easy Living Room* diskoa da. Bertan, soul, jazz, pop eta folk doinuak nahasten dira, eta edonork entzuteko moduko doinuak entzun daitezke bertan.

Sopelan grabatuta

Euren diskoa Euskal Herrian grabatutako da; hain zuzen, Sopelako Sweet Saul Music estudioan. Saul Santolaria ekoizlearekin grabatu zuten 2013ko martxo eta apiril bitartean, eta ondoren Londresen egin zituzten nahasketa lanak.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Maialen Errotabehere | Musikaria

"Elektrikoa izango da, ahotsari garrantzia emanda"

'Biluzik' lanak istorio txikien bidez, Maialenen bizipenak batzen ditu

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Maialen Errotabehere (1983, Arrosa, Behe Nafarroa) abeslaria Baionan bizi da eta *Biluzik* bere hirugarren lanarekin etorriko da zapatuan Eskoriatzara. Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatutako Errekan Gora egitasmoaren barruan, 22:30ean izango da kontzertua Zaldibar antzoki pareko plazatxoan.

Zer-nolako kontzertua eskainiko duzu zapatuan?

Hirugarren diskoko kantak eskainiko ditut Eskoriatzako kontzertuan, Pat Tetevuide (gitarra), Iban Larreboure (bateria), Raphael Ferreira (baxua) eta Txus Aranburu (teklatua) taldekideen laguntzarekin. Elektrikoa izango da, ahotsari garrantzia handia emanda. Pop-rock eta blues ukitua duten kantak izango dira, nik idatzitakoak. Hiru diskoak oso desberdinak dira elkarren artean: nire lehen lana, *Nere Mundua,* akustikoagoa da; melodikoagoa. Bigarren diskoa ere, *Askatasunen Ibaia*, akustikoa zen, baina blues, pop, folk eta bateria pixka bat eskaintzen hasi ginen. Hala, eboluzionatzen joan gara, eta hirugarren diskoarekin lan elektrikoago bilakatu da, kantak ere horren arabera sortuta. Gogorragoa da, berba pertsonalagoak eta intimoagoak ditu, baina musika bizia eta indarrez betetakoa dela uste dut, eta azken hau eramango dugu oholtzara.

Hirugarren lana *Biluzik* da; zergatik?

Biluzik lanak istorio txikien bidez nire bizipenak batzen ditu: amodioak, familiako istorioak, lagun baten galtzea... inguruan gertatzen zaizkidan gauzak, hunkitzen

Maialen Errotabehere taldekideekin oholtza gainean. | MAIALEN ERROTABEHERE

"Hirugarren diskoko kantak eskainiko ditut Eskoriatzako kontzertuan"

nautenak ardatz izanda. Inspirazioa penatik etortzen zait, baina, aldi berean, biziki alaia da azken lan hau. Bestalde, gauza sozialak ere aipatzen ditut, eta esperantzaren beharraz ere hitz egiten dut. Optimista naiz eta hori oholtza gainean islatzen saiatzen naiz; uste dut halako kantak zuzenean entzutea ona dela osasunerako...

Kolaborazioak izan dituzu azken lanean. Izango dira haiek Eskoriatzako emanaldian?

Petti eta Eñaut Elorrieta musikarien eta Bokale Brass Band taldearen kolaborazioak izan ditut. Diskoaren aurkezpenean izan ziren Petti eta Eñaut oholtzan, baina Eskoriatzara ez dira etorriko. Biek dituzte hainbat lan... baina, etorkizunean, gustatuko litzaidake errepikatzea.

Bailaran egondakoa zara; nolako harrera izan zenuen?

Aretxabaletan emana dut kontzertu bat. Jende asko ez zen egon; izan ere, inguru hartan ez naiz hain ezaguna, baina giro ona izan zen. Hala ere, publikoarekin zerbait polita sortzeko gogoz joango naiz Eskoriatzara, eta nire musika erakutsi nahi dut.

Antzokiaren kanpoaldean izango da kontzertua, lehen aldiz leku horretan. Kuriosoa iruditzen zaizu?

Plazera izango da lekua bataila-tzea. Hala ere, antzoki baten barruan edo kanpoan jo arren, indarrez eskainiko dugu kontzertua.

Debagoieneko aktore eta sortzaileak Donostia 2016 egitarauaren ekitaldietan

Mikel Laskurainen, Mireia Gabilondoren, Kepa Errastiren eta Asier Altunaren lanak daude

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zuten Mikel Laskurain bergararrak Miren Gojenolarekin batera zuzendu duen *Gabon, Txirrita* proiektua. Xabier Letek orain dela 34 urte idatzitako izenburu bereko lanean oinarrituta dago, eta bertsolariari eginiko epaiketa bat irudikatzen du, umorezko tonuan. Irailaren 10ean estreinatuko dute.

Laskurainek, baina, beste proiektu bat du egunotan esku artean: William Shakespearek idatzitako *Uda gau bateko ametsa* lan ezagunaren moldaketan ari da parte hartzen. Donostiako Cristina Enea parkean egiten dute, gauero, emanaldi bana: ekainaren 21ean hasi ziren eta uztailaren 24ra bitartean egingo dituzte. Obra jarraitzeko modua berezia da: batetik, publikoa ez delako ikusle soila; protagonisten ezkontzako gonbidatuak dira. Eta bestetik, antzezlana ibiltaria delako; Cristina Enea parkeko hainbat tokitan garatzen dute. Txoko horietako batean dago Bergarako aktorea, komikoaren paperean sartuta.

Gabilondo ere zuzendari

Asteon aurkeztu duten *Treblinkara azken trena* antzezlanak ere Debagoieneko ukitua du: Mireia Gabilondo bergararrak zuzendu du, eta Mikel Laskurain herrikidea eta Kepa Errasti aretxabaletarra daude aktoreen zerrendan. Janusz Korczak pedagogo judutarraren bizitza eta heriotza du lanak oinarri. Urrian estreinatuko dute.

Adiorik gabe ekimena ere Gabilondok zuzendu du, Iñaki Salvador, Teresa Calo eta Joxan Goikoetxearekin batera. Indarkeriaren biktimei buruzkoa da. Uztailaren 2an estreinatu zuten eta irailaren 25ean egingo dute hurrengo emanaldia.

'Kalebegiak'-en, Asier Altuna

Hamabi film laburrez osatutako film luzea da *Kalebegiak*. Eskarmentu handiko zuzendariek egin dute, horietako bat da, Altuna bergararra.

Laskurain, ezkerretik bigarrena, *Gabon, Txirrita* aurkezten. | DSS2016EU

NES taldeko Nesrine Belmokh eta Matthieu Saglio. | GAZTELUPEKO HOTSAK

Blues, jazz eta kantu frantsesak urrezko ahotsarekin abestuta

Nesrine Belmokh, Matthieu Saglio eta David Gadea, gaur, Berumugan

A. A. | BERGARA

"Ahotsa, indarra eta hiru musikarien arteko ezkontza", hori da, Berumuga zikloko antolatzaileen esanetan, NES taldea. Uztaileko egubakoitzetako hirugarren emanaldian, Espoloiko agertokiko protagonistak izango dira, gaur, 22:00etan hasita.

Askotariko estiloetan saltoka

Nesrine Belmokh abeslari eta biolontxelo-jotzaile frantziar-aljeriarra da hirukotearen arima. Adituen esanetan, haren urrezko ahotsa da guztiaren gainetik nabarmentzen dena. Hainbat hizkuntza beste menperatzen ditu askotariko musika estiloak. Frantsesez, arabiarrez eta ingelesez abestuta, bada, modu samurrean eta gozoan egiten du salto bluesetik jazzera, soulera eta baita frantziar kantuetara ere.

Sei urte zituela hasi zen abesten. Geroago, goi mailako biolontxelo-jotzaile bihurtu zen, orkestra askotan parte hartuta.

Puntako musikariak lagun

Belmokhen proiektu pertsonalena da NES, eta goi mailako profesionalekin osatu du taldea. Biolontxeloari soinu berezia eta oso pertsonala ateratzen trebea den Matthieu Saglio du, batetik, alboan, eta David Gadea perkusionista da hirugarren kidea. Gadeak ere nazioartean izen handia du eta askotariko artistekin lan egindakoa da: Sole Gimenezekin, Manu Tenoriorekin, Josemi Carmonarekin...

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza berria salgai Lizaria-San Lorentzon. Sukalde-jangela, bi logela eta komuna. Garajea eta igogailua. Dena kanpora begira. Laugarren solairua. Oso eguzkitsua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 78 70 26

102. EROSI

Oñati. Etxebizitza erosi nahiko nuke Oñatiko herrigunean. Aukeran, garajearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 02 32 67

103. ERRENTAN EMAN

Jaka. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan, abuztuan edota irailean. Lau pertsonarendako dago gertatuta. Terraza handia, berdegunea, bi igerileku eta jolaslekuekin. Garajea barne. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 661 10 29 66 edo 680 58 37 30

La Pineda (Tarragona). La Pinedan apartamentua ematen da errentan. Estival Park hotelaren ondoko urbanizazioan. Urbanizazio itxia, igerilekua eta autoarendako aparkalekuarekin. Hondartzatik 50 metrora. Oso leku lasaia, umeekin joateko oso egokia. Asteka alokatzen dugu, larunbatetik larunbatera. Deitu edo mezua bidali. 669 23 44 00 (Ainhoa)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan erdigunean. Presazkoa da. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 603 29 94 29 (Soraida) edo 634 07 99 70 (Wilfredo)

Arrasate. Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Ezin dugu hilean 500 euro baino gehiago ordaindu. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 634 07 99 70 edo 603 29 94 29

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 500 eurotik behera ordain dezaket hilean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Etxebizitza bila. Aretxabaletako bikotea logela bateko, biko edo hiruko etxebizitza bila, bizitzen hasteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 82 68 37

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukalde, egongola eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarraila dauka eta wifia ere badago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Etxebizitza edo logela hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

Arrasate. Gela bat ematen da errentan Arrasaten, unibertsitatetik gertu. Komunarekin eta wi-fia doan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 44 43 36

Arrasate. Hiru langile euskaldun gara eta gela bat daukagu errentan emateko Uribe auzoko duplex batean. Prezioa, 200 euro hilabetean, ura, berogailua, internet, telefonoa, garbiketa eta abarrak barne. Interesa izanez gero, deitu: 679 84 49 20 edo 677 44 82 85

Eskoriatza. Baserri osatzeko jende bila gabiltza. Baratzarekin eta naturarekin harremanetan bizi gura duen jendea nahiko genuke. Interesatuok deitu 19:00ak eta 21:00ak artean, zenbaki honetara: 693 80 40 47

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Abuztuko zenbait egunetan katua zainduko digun norbaiten bila gabiltza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 91 33 81

Arrasate. Abuztuan baserri baten aitona-amonak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Ezinbestekoa da autoa izatea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 48 40 11

Arrasate. Adindun pertsona bat zaintzeko gizon baten bila gabiltza. Ez luke etxeko lanik egin beharko. Ordutegia izango litzateke 14:00etatik goizeko 9:00etara. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 676 64 10 22 edo 629 42 19 79

Bergara. Emakume bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta 8 eta 11 urteko bi ume zaintzeko, astelehenetik ostiralera, 12:30etik 14:30era. Irailetik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 00 08 43

Bergara. Emakume euskalduna behar dugu 3 eta 7 urteko bi ume zaintzeko astelehenetik ostiralera 8:00etatik 9:00etara. Irailetik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 77 75 23

Bergara. Pertsona euskalduna behar dugu irailetik aurrera haur bat zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 687 06 80 01

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. 16 urteko mutila gertu udan zehar, astean zehar zein asteburuetan, baserrian lan egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 42 75 21

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Magisteritzako gradua duen 27 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko prest, berehala hasteko aukerarekin. Esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 01 66 45

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Arrasate. 58 urteko emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 66 76 91

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Astean zehar arratsaldetan orduka eta asteburuetan etxean bertan bizi izanda ere izan daiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 24 86 64

Arrasate. Neska gaztea gertu nagusi eta umeak zaintzen eta etxe, elkarte eta abarrak garbitzen lan egiteko. 612 42 69 37

Arrasate. Orduka lan egingo nuke zaintzan, garbiketan eta abarrean. 603 29 94 29 (Soraida)

Arrasate. Zerbitzari moduan, sukalde laguntzaile edo dendan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 42 69 37

Bergara. Autonomo asegurua eta automobila duen emakume esperientziaduna bulegoak, portalak, dendak eta lokalak garbitzeko prest. 647 51 52 80

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Simón Arrieta, 78 m², 2 log, berritua. Bizitzera sartzeko. 130.000€. AUKERA ONA.
- Zubiaurre, 50 m², 2 logela, BERRITZEKO. 24.000€. AUKERA ONA.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€. AUKERA OSO ONA.
- Ernai, 162 m², atikoa. 4 log. Tximinia, 28m2ko terraza. 350.000€.
- Zubiaurre, 86 m², 3 log, trastelekua eta garajea barne. 100.000€. AUKERA BIKAINA.
- Artzamendi, 74 m², 3 logela, berritua, garajea barne. 210.000€.
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, Berritua. Ez du obra beharrik. 145.000€.
- Bolu, 113 m², 4 logela, igogailua eta trastelekua. 210.000€. Bi garaje aukeran.
- Irizar pasealekua, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 190.000€.
- Matxiategi, 72 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. Ez du obrarik behar.
- Zabalotegi, 79 m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80 m², 3 log, igogailua, 139.000€. Garajea aukeran. PREZIO JAITSIERA.
- Madura, 65 m², 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000€. Terraza, igogailua, patioa.
- Ernai, 52 m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 175.000€.
- Espoloia, 95 m², 3 logela. Trastelekua. 200.000€. Garajea aukeran. 25.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87 m², 3 logela, fatxada berritua. 193.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125 m², terraza eta 2 horturekin. Bi etxe egiteko aukera. 192.000€.
- San Pedro, 90 m², 4 logela. 95.000€. AUKERA ONA.
- San Antonio, 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiaurre, 60m2, 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.
- Askarruntz, 60 m², 2 logela. Lasaia eta eguzkitsua. 100.000€. AUKERA ONA.

ANGIOZAR:
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

OSINTXU:
- Osintxu, 92 m², 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berrian. 165.000€.
- Osintxu, 85 m². 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

ANTZUOLA:
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde, 78 m², 3 logela, Berritua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.

ELGETA:
- Gudarien Bidea, 75 m², berritzeko. 72.000€. AUKERA BIKAINA.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m²ko garajea + 90 m²ko lursaila.

Bergara. Mutil euskalduna desbrozatze lanak egiteko prest. Zelai, pista eta abarrak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658 73 79 02

Bergara. Neska euskalduna udan haurrak zaintzen lan egiteko prest. Esperientzia eta lan egiteko gogoarekin. 655 91 37 16 Interesatuok deitu zenbaki honetara:

Debagoiena. Arrasate, Eibar, Eskoriatza eta Aretxabaletatik lana bilatzen ari naiz. Umeak zaintzen, gozoki dendetan, zerbitzari moduan, gurpildun aulkian dauden adinduak zaintzen edota tabernetako sukaldeak garbitzen. Ahalik eta lasterren behar dut. 676 44 85 58

Debagoiena. Arotz laguntzaile, eraikuntzan, garbitzen edota margotzen lan egingo nuke. Garraio lanetarako gidabaimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 16 05 93 (Jacobo)

Debagoiena. Baserri, atari, etxe eta abarrak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 95

Debagoiena. Baserri, atari, etxe eta abarrak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 688 86 22 08

Debagoiena. Emakumea zaintza lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo ume, aiton-amona, gaixo eta abarren zainketarako gertu nago. Erreferentziak behar izan ezkero Elgetan ezaguna naiz. 640 66 96 08 (Nubia)

Debagoiena. Geriatriako titulua duen neska prest orduka lan egiteko. Etxeetan lan egiteko ere bai, orduka. Eskarmentu handia. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko. Hamar urteko esperientzia dut. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo baita gauak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 53 39 44

Debagoiena. Gizona zaintza lanetarako gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

Debagoiena. Mutil gaztea gertu sukaldean edo zerbitzari moduan lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 44 61 98

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila gertu garbiketak egiteko, lantegian peoi lanak egiteko eta abarretarako. Esperientzia daukat eta gauez lan egiteko arazorik ez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 60 08 48

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Gidari edo banatzaile moduan ere lan egin dezaket. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 32 76 80

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 59 67 91

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 64 98 53

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 21 84 98

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 40 56 65

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauez. Etxeak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. 24 orduko prestasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zaintza lanetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 72 30 57

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zaintza lanetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 72 30 57

Debagoiena. Neska eta mutil arduratsuak lanerako gertu. Denetariko garbiketak, nagusiak eta umeak zaintzen, zerbitzari edo sukalde laguntzaile eta abar. Autoarekin. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 602 12 18 27 edo 631 05 97 32

Debagoiena. Umeak zaintzen eta etxe, atari eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72

Garbiketak. Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketa lanak burutzeko elkarte, landetxe, taberna, atari edota etxe partikularretan. Eskarmentu handikoa. Arrasate, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 86 46 80

Oñati. Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko neska gaztea prest. Irailetik aurrera goiz guztiak libre. Huheziko lehen hezkuntzako laugarren mailako ikaslea naiz. Hori dela-eta, haurrekin esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 34 87 13

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Irailetik aurrera, 1. DBH-ko eskola partikularrak emango dizkidan pertsona bat behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 13 17 51

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumatxoak opari. Bi hilabete eta erdiko katakumatxoak ematen ditugu opari. Oso politak dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 72 89 17

8. DENETARIK

801. SALDU

Aretxabaleta. Lursailak salgai herritik gertu. Bat 13.000 metro koadrokoa. 40.000 euro. Bestea, 2.800 metro koadro inguruko. 120.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 10 41 31

Elkarteko plaza Bergaran. Gorlan dagoen Aska Gain elkarteko bazkide plaza saltzen da. Bazkide gutxiko elkartea da. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 645 73 93 69 edo 665 73 98 85

802. EROSI

Esloveniarako dokumentazioa. Esloveniako mapak eta gida liburua erosiko nituzke. Baita eslovenierari buruzkoa ere. 652 76 33 46

Lursaila errentan hartu edo erosi. Debagoienean lursail bat errentan hartu edo erosi nahiko nuke. Txikia izanda ere nahiko litzateke. Autoz eskuragarri. Erlauntz batzuk ipintzeko izango litzateke. Zure ortua polenizatu eta uzta hobea izateko onuragarria izan daiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 58 37 63

Saxofoi tenorra. Bigarren eskuko saxofoi tenorra erosiko nuke. 619 45 42 77

Txakurrarendako osagarriak. Txakurrarendako oihalezko muturrekoa eta XL neurriko oihalezko transportin tolesgarria erosiko nituzke. 652 76 33 46

806. GALDU

Giltzak Bergaran. Ekainaren 22an giltzak galdu nituen Zubiaurre eta San Antonio kaleen arteko bidean. Aurkitu baduzu, eskertuko genuke zenbaki honetara deitzea: 635 25 54 44

Ipoda Arrasaten. Uztailaren 4an, astelehena, Ipod bat galdu nuen Uarkape eta Aldaiko parkearen artean. Zilar kolorekoa da eta aurikular zuriak. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke deitzea. 653 70 85 52

Mugikorra. Ekainaren 24an, goizean, telefonoa galdu nuen. Motorola etxekoa eta beltza da. Mesedez, aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 688 62 49 11

ZORION AGURRAK

OÑATI
Ane Arrizabalaga eta Ander Arnaiz
Uztailaren 20an, Anderrek urte bat eta uztailaren 21ean, Anek 5 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu handi bana, etxeko danon partetik. Ondo pasatu, bikote!

OÑATI
Oier Sanchez Gomez
Uztailaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Oier! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, familiaren partetik.

BERGARA
Laida Akizu Bilbao
Uztailaren 20an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Dagoeneko 7 urte bete dituzu! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi-handi bat etxeko danon eta, bereziki, Ekainen partetik.

OÑATI
Izar Unzurrunzaga Goñi
Uztailaren 20an, 8 urte. Zorionak, Izar! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta oporrak. Mila muxu etxekoen partetik.

ARRASATE
Arhane Kerejeta Gorostiza
Uztailaren 20an, 5 urte. Zorionak, Arhane! Auritzen eta Ekainen partetik!

OÑATI
Ander Arnaiz
Uztailaren 20an, urtebete. Zorionak, potxolo! Konturatu orduko urtetxo bat! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat etxeko danen partetik.

ARRASATE
Jare Bergaretxe Arkauz
Uztailaren 19an, urtebete. Zorionak etxeko guztien eta, batez ere, Ixoneren eta Izadiren partetik. Ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat!

OÑATI
Aihoa Dorado Hernandez
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Disfrutatu zure eguna alaittasun txispa horrekin! Muxu asko, etxekoen partetik. Asko maite zaitugu!

ARETXABALETA
Elene San Miguel Erostarbe
Zorionak, *ttipitirrina*! 19an urtebetetxo. Muxu handi bat eta besarkada itzela familia osoaren partetik! Ondo-ondo pasatu! Pa!

ESKORIATZA
Iradi Aramendi Altuna
Uztailaren 18an, 3 urte. Zorionak, *printzes*! Oso egun politta pasatu Unaxekin eta familia osoarekin. Asko maitte zaittugu, politt hori. Mua!

ANTZUOLA
Aiora Legorburu Rodriguez
Uztailaren 18an, 11 urte. Zorionak, Visby-ko printzesa!

BERGARA
Maialen Arregi Gantxegi
Uztailaren 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure seigarren urtebetzia laguntxoekin eta familixakuekin. Patxo handi bat, etxekuon partetik!

OÑATI
Amaia Axpe Zubizarreta
Uztailaren 18an, 7 urte. Zorionak, Amaia! Ondo-ondo ospatu zure eguna familixa eta lagun artian. Muxu potolo bat, danon partetik!

ARRASATE
Oxel Etxenausia
Uztailaren 16an, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxekoen eta, batez ere, zure lehengusu Xabaten partetikan.

ARRASATE
Maialen Martinez Nanclares
Uztailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Maialentxo! Lau urte! Sorpresaz beteriko egun ederra izan dezazula! Asko maite zaitugu! Haizea, aitatxo, amatxo, eta Bilboko eta Errioxako familia.

ARETXABALETA
Oier Portalo Gonzalez
Uztailaren 15ean, 7 urte. 7 urte, txapeldun! Egun on-ona pasatu! Asko maite zaittugu. Muxu erraldoi bat zuretzat, etxeko guztion partetik.

ARRASATE
Helena Unamuno Errarte
Uztailaren 15ean, 5 urte. Zorionak etxeko erreginari. Merezi moduan ospatukou! Muxu handi bat familixakuen eta, batez ere, Maiderren, Anderren, Mikelen eta Danelen partetik!

OÑATI
Itsaso Ugarte eta M. Karmen Erostarbe
Uztaillaren 8xan M. Karmenen urtebetetzea eta 15ian Itsasorena. Zorionak bixoi, etxeko danon partetik! Ondo pasatu eta muxu handi bat.

ARRASATE
Auritz Kerejeta Gorostiza
Uztailaren 14an, 7 urte. Zorionak, Auritz! Arhaneren eta Ekainen partetik.

ESKORIATZA
Anuk Agirre Perea
Uztailaren 13an, urtebete. Gaur gure printzetxoak urte bat. Zorionak: amama, aitita, tia Eider, Ane, Enara, Mikel eta Aneren partetik. Baita Azpeitiko amama, attitte, Iker, Beñat eta tia Edurneren partetik ere. Muxu bat, potxolo!

ARETXABALETA
Ander Eraña Urieta
Uztailaren 13an, 5 urte. Zorionak, *traktorista*! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo mordo bat danon partetik.

ARRASATE
Hodei Pascual Belategi
Uztailaren 12an, 7 urte. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu, etxekoen partetik!

OÑATI
Urko Garitano Urzelai
Uztailaren 10ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familixarekin eta lagunekin. Patxo erraldoi bat! Asko maitte zaittugu!

ELGETA
Markel Larrañaga Mandaluniz
Uztailaren 10ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Markel! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik.

ANTZUOLA
Ibai Alonso Santacruz
Uztailaren 9an, 10 urte. Zorionak, Ibai! Oso ondo pasatu zure eguna. Segi beti horrelako mutil jatorra izaten. Etxekoen partetik, muxu potolo-potoloa.

OÑATI
Alix Biain Ugarte
Uztailaren 9an, 5 urte. Zorionak, potxola, zure bosgarren urtebetetzian. Bost tirakada belarrittik, zure lagunen eta familixakuen partetik. Patxo handi bat.

BERGARA
Ekaitz Unamuno Marzan
Uztailaren 9an, 5 urte. Zorionak, Ekaitz! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta belarritik bost tirakada, Julenen eta etxekoen partetik. Patxo potolo bat.

ARETXABALETA
Oinatz Zabala Frutos
Uztailaren 9an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta baita Santa Polan ere. Asko maite zaitugu. Iraide, aitatxo eta amatxo.

OÑATI
Maialen Marton Camino
Uztailaren 8an, 2 urte. Zorionak, Maialen! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat familiako denon eta, bereziki, Anartzen, Agerren eta Oxelen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK TELEBISTAN

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO
ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

ASTEA GOIENAN

GOIENA

Antzuolako jaiak: saio berezia eguaztenean

Jaietan murgilduta igaroko dute asteburua Antzuolan, eta egunotan festetan hara eta hona dabilen Aitor Agiriano kazetari saltseroak hainbat ekintzatan gertatutakoak jasoko ditu, irudiekin eta herritarren adierazpenekin, telebistan eskaintzeko.
'Jaiak: Antzuolako jaiak'
Eguaztena, 22:00

GOIENA

'Amaia DJ' saioaren 100. atal berezia

Hurrengo egubakoitzean gazteei zuzendutako bideoklipen saioak 100. atala izango du, eta sorpresaz betetako saioa ari dira prestatzen. Bidali zuk nahi duzun mezua Whatsappez edo Telegramez 688 69 00 07ra edo Twitterren *@amaiadj*-ra.
'Amaia DJ'
Egubakoitza, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 15
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Bota erronka
13:00 Udakoak
13:30 Korapilo
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bota erronka
15:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 Bota erronka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Osoko bilkura: Arrasate
00:30 Debagoiena zuzenean
01:00 Berriak
01:30 Amaia DJ
02:00 Debagoiena zuzenean
02:30 Berriak
03:00 Bota erronka

ZAPATUA, 16
09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Bota erronka
12:30 Osoko bilkura: Arrasate
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Bota erronka
18:00 Harira: Iñaki Esparza
18:30 Amaia DJ
19:00 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Kantari
20:30 Bota erronka
21:00 Osoko bilkura: Arrasate
23:30 Debagoiena zuzenean
00:25 Astea iruditan
00:30 Harira
01:00 Amaia DJ

DOMEKA, 17
09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Izarrak plazara
12:30 Amaia DJ
13:00 Debagoiena zuzenean
13:55 Astea iruditan
14:00 Bota erronka
14:30 Izarrak plazara
16:00 Platopic
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Amaia DJ
18:00 Debagoiena zuzenean
18:55 Astea iruditan
19:00 Harira: Iñaki Esparza
19:30 Bota erronka
20:00 Kantari
20:30 Debagoiena zuzenean
21:25 Astea iruditan
21:30 Harira: Iñaki Esparza
22:00 Osoko bilkura: Arrasate
23:00 Debagoiena zuzenean
23:55 Astea iruditan
00:00 Bota erronka

ASTELEHENA, 18
12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Korapilo
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Osoko bilkura: Arrasate
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 19
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Aniztasunean bizi
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Izarrak plazara
18:30 Berriak
19:00 Korapilo
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak
01:00 Harira

EGUAZTENA, 20
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harira
13:00 Platopic
13:30 Korapilo
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Izarrak plazara
16:30 Berriak
17:00 Amaia DJ
17:30 Ikusi irratia
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Harira
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harira
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 21
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Bota erronka
13:00 Korapilo
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
15:30 Bota erronka
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia
18:00 Harira
18:30 Berriak
19:00 Korapilo
19:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Bota erronka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
00:30 Debagoiena zuzenean
01:00 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Irratian astean zehar izan diren elkarrizketak entzun ahal izango da asteburuan 10:00etan. Tartean, Lezetxikiko indusketen gainean hitz egingo du Alvaro Arrizabalaga arkeologoak. 21 urte daramatza Aranzadi elkarteak koba hori aztertzen eta aurtengoaren berri emango du irratian.

Hilaren 22an azkeneko zuzenekoa, opor aurretik

Uda giroan irratsaioak udan oporrak hartuko ditu eta hurrengo egubakoitzean, hilak 22, izango da azkeneko zuzenekoa, ohi bezala, 10:00etan. Abuztuaren 29an itzuliko da berriro saio hori albiste freskoekin, baina bitarte horretan *Arrasate Irratian* musikaz disfrutatzeko aukera izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 15	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Zapatua, 16	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Domeka, 17	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Astelehena, 18	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 19	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Eguaztena, 20	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 21	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
BERGARA			
Egubakoitza, 15	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 16	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 17	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 18	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 19	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 20	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 21	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
OÑATI			
Egubakoitza, 15	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 16	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 17	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 18	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 19	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 21	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Max. 26º
Min. 14º

ZAPATUA, 16
Uda giroa nagusituko da; zerua garbi mantenduko da egun guztian zehar eta tenperatura ere igo egingo da.

Max. 28º
Min. 14º

DOMEKA, 17
Domekan tenperatura zertxobait igo daiteke, eta zapatuan bezala, zeruan ez da lainorik izango. Eguzkia gailenduko da.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Informatikaria. Oiartzungo Udala. Baldintzak: Informatika ingeniaritzan gradua edo baliokidea, euskararen 4. HE. Epea: uztailak 31.

Administrarien lan poltsa. Ermuko Udala. Baldintzak: Goi mailako batxilergoa, Administrazioa eta kudeaketa Goi Mailako Heziketa Zikloa edo Baliokidea, euskararen 2HE edo baliokidea, Word eta IT txartela izatea. Epea: abuztuak 1.

Ostalaritza arduraduna. Plateruena Kafe Antzokia. Durangorako ostalaritza arduraduna behar da. Epea: uztailak 20.

Teknikaria. Bagara Herrigintzan Kooperatiba. Bagarako lantalderako pertsona behar da, gestiorako, dinamizaziorako, sintesirako, lankidetzarako, lidergorako gaitasunak dituena. Baldintzak: unibertsitate mailako titulazioa, euskara maila aberatsa. Epea: uztailak 18.

BEKAK

Ikerketa. Arartekoa. Gizarte-talde ahulenetako bati dagokionez, giza eskubideak nola edo zenbateraino aplikatzen diren ikertzeko beka bat. Epea: abuztuak 5.

Logoa. Tafallako Udala. Udalaren logoa aukeratzeko lehiaketa. Epea: uztailak 29.

Kartela. Cascanteko Udala. Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: abuztuak 1.

Kartela. Lanbarri Kultur Elkartea. Umorea Labur jaialdia iragartzeko kartel lehiaketa. Gaia: zinea eta umorea. Azken eguna: irailak 1.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OROIGARRIA

Manu Unamuno Loidi

2016ko uztailaren 7an hil zen, 67 urte zituela.

Egoitzen lagunak.

Arrasaten, 2016ko uztailaren 15ean.

5. URTEURRENA

Mikel Pagalday Aguiriano

2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

Urteak pasa arren
zure oroitzapenak
gurekin jarraitzen du.
Maite zaitugu.
Etxekoak.

—

Igandean, hilak 17, Eskoriatzako San Pedro parrokian, 12:30ean, izango da bosgarren urteurreneko meza.

Aldez aurretik, mila esker.
Eskoriatzan, 2016ko uztailaren 15ean.

URTEURRENA

Xabino Anduaga Kortabarria

2015eko uztailaren 14an hil zen, 52 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 16an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2016ko uztailaren 15ean.

URTEURRENA

Joaquin Balzategui Salaberria

'Txato'

2015eko uztailaren 12an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

Faltan botatzen zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko uztailaren 15ean.

URTEURRENA

Maria Axun Gabilondo Alberdi

2015eko uztailaren 18an hil zen, 76 urte zituela.

Eladio Arando Zangitu

2011ko uztailaren 6an hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 17an, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko uztailaren 15ean.

HILDAKOAK

Angel Etxebarria Irazustabarrena. Arrasaten, uztailaren 5ean. 91 urte.
Matilde Fernandez Nuñez. Arrasaten, uztailaren 6an. 96 urte.
Manu Unamuno Loidi. Arrasaten, uztailaren 7an. 67 urte.
Isabel Gamito Seco. Arrasaten, uztailaren 8an. 84 urte.
Serafin Sanchez Fortuna. Arrasaten, uztailaren 9an. 77 urte.
Fidela Santamaria Peña. Arrasaten, uztailaren 9an. 65 urte.
Divina Pastora Otadui. Bergaran, uztailaren 9an. 91 urte.
Angela Altuna Mondragon. Eskoriatzan, uztailaren 10ean. 96 urte.
Juana Azkarate Uribesalgo. Bergaran, uztailaren 11n. 74 urte.
Jose Luis Altzerreka Lazpiur. Bergaran, uztailaren 12an. 76 urte.
Itziar Urrutia Erguin. Arrasaten, uztailaren 12an. 72 urte.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

Ane eta Iker

Ane eta Iker Oñatin ezkonduko dira uztailaren 16an. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunian eta baitta eztei-bidaian be. Zoriontsu izan eta besarkada bat, kuadrillakuen partetik".

Leire eta Salam

Leire eta Salam zapatuan, uztailaren 16an, ezkonduko dira. "Familiaren eta lagun guztien partetik, zorionak, bikote! Ondo pasatu eguna eta zoriontsu izan!".

Ane eta Aritz

Ane eta Aritz oñatiarrak uztailaren 16an ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. Ondoren, bazkaria Gure Ametsa jatetxean ospatuko dute familiarekin eta lagunartekoekin. "Familiaren eta lagunen partetik, zorionak, muxu handi bana eta ondo pasatu eztei-bidaian!".

Jonhy eta Iria

Jonhy eta Iria uztailaren 16an ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan. "Primeran pasatuko dugun dudarik ez daukagu. Zorionak, kuadrillaren eta familiaren partetik!".

Nerea eta Javi

Nerea Tena eta Javi Alonso zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Arteaga jatetxean bazkalduta ospatuko dute egun berezi hau. "Familiaren partetik, ondo pasatu eta zoriontsu izan!".

Iokin eta Maite

Iokin Azkune eta Maite Alonso uztailaren 15ean ezkonduko dira. "Zorionak eta ondo pasatu egunna, gurasoen, anai-arreben eta, bereziki, zuen iloba Danelen, Julenen eta Malenen partetik!".

OÑATI 'Europa bat-batean'
Boga, Bizipoz eta Ona tabernetan egingo dituzte geldialdiak, eta garagardo azokan bukatuko dute. Austria, Euskal Herria, Gales, Herrialde Katalanak, Kuba, Mexiko eta Zipre ordezkatzen dituzten inprobisatzaileak egongo dira.
Gaur, egubakoitza, aipatutako lekuetan, 19:00etan.

MINTZOLA

IZAKI GARDENAK

ESKORIATZA Izaki Gardenak
Errekan Gora zikloan kontzertua egingo du Jon Basagurenek zuzentzen duen taldeak. Izaki Gardenak 2012. urtean Basagurenen bakarkako abestiei forma emateko sortu zen. Ordutik hona, hainbat disko kaleratu dituzte. Azkena, 2016ko martxoan: *Aurri gara* izenekoa.
Gaur, egubakoitza, Gernika plazan, 22:30ean.

MUSIKA

ARRASATE Bocinegro
2013an Kanariar Uharteetan sortutako taldea da. Blues musika da euren erreferentzia.
Gaur, egubakoitza, Jose Letopa plazan, 20:00etan.

ESKORIATZA Las Tuerkas taldea
Saioa Pueblak, Maitane Otamendik eta Maider Berastegik punk -rock kontzertua eskainiko dute.
Gaur, egubakoitza, Naira tabernan, 20:00etan.

ANTZUOLA Asea eta Joxpa taldeak
Zuzeneko musika izango da protagonista Antzuolako jai nagusietan.
Gaur, egubakoitza, txosnagunean, 23:00etan.

NON-ZER

UZTAILA 15
UZTAILA 21

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

OÑATI Izeberg taldea
Urik ez begi bistan diskoa aurkeztuko du Usurbilgo taldeak.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 21:00etan.

BERGARA 'Berumuga': Nes taldea
Blues, jazz eta soul doinuak, biolontxeloaren eta perkusioaren laguntzarekin.
Gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan.

ANTZUOLA Skasti, Huntza eta Elektronic Shck DJa
Zuzeneko musika izango da protagonista Antzuolako jai nagusietan.
Gaur, egubakoitza, txosnagunean, 23:00etan.

ESKORIATZA Maialen Errotabehere
Errekan Gora zikloan.
Bihar, zapatua, Zaldibar kanpoan, 22:30ean.

ANTZUOLA JAIETAN

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | ANTZUOLAKO JAIAK 2016
UZTAILAK 15 ETA 18, 20:00 - 21:00 - 22:30

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA | ANTZUOLAKO JAIAK 2016
UZTAILAK 20, 22:00
AITOR AGIRIANOK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

BERGARA Egan
Santa Marina jaietako kontzertua.
Bihar, zapatua, Matxiategin, 23:00etan.

BERGARA Udal Musika Banda
Santa Marina jaietako kalejira eta emanaldia.
Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

BERGARA La Jodedera
Santa Marina jaietako kontzertua.
Etzi, domeka, Matxiategin, 13:30ean.

BERGARA Aritzeta Abesbatza
Emanaldia egingo dute.
Uztailaren 18an, Santa Marina parrokian, 20:00etan.

OÑATI Arcana Has Soul taldea
Kalean zikloaren barruan. Eguraldi txarra egiten badu, Santa Anan.
Uztailaren 20an, Atzeko kalean, 19:00etan.

ANTZERKIAK

OÑATI 'A pan y agua'
Nogusano taldearen kale antzerkia.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 19:00etan.

OÑATI 'Org.amen' antzezlana
Donostiako Compañia La Que Tu Me Haces taldearen lana. Doan.
Bihar, zapatua, gazteleku aurrean, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Ahora o nunca'
Trapu Zaharra taldearen kale antzerkia.
Uztailaren 20an, Durana kalean, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA 'Ibar oihar, Gipuzkoako urak soinu bidez'
Cristina Enea Fundazioak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak sustatutako egitasmo hau AudioLab kolektiboak garatu du, 2015ean zehar Deba ibarrean eginiko landa-lan baten bidez. Erakusketa honek pilatutako material eta erregistro esanguratsuenak biltzen ditu.
Uztailaren 19ra arte, liburutegian, egun osoan zehar.

BERGARA Martxe Arana
Pintura lanak ipini ditu ikusgai.
Uztailaren 24ra arte, Aroztegin.

ARETXABALETA Pinturak
Ainhoa Caberoren ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak ikusgai.
Uztailaren 29ra arte, Arkupen.

GAZTELEKUAK

OÑATI Frontenis txapelketa eta bizikleta irteera
7-12 urteko neska-mutikoendako. Txapelketa Zubillagako frontoian jokatuko dute eta haraino bizikletan joango dira, bidegorritik. Aurrez izena eman behar da, kuboan.
Gaur, egubakoitza, kuboan, 16:00etan.

OÑATI Gamarrara egun-pasa
Uztailaren 21ean egingo dute, 13-17 urte arteko gaztetxoendako, topalekuko hezitzaileekin. Izena aurrez eman behar da topalekuan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

JAIAK

BERGARA Santa Marina jaiak
Uztailaren 15tik 18ra ospatuko dituzte. Askotariko ekintzak egingo dituzte. Berrikuntzetako bat gin-tonic txapelketa izango da. Informazio gehiago Bergarako orrietan.
Aipatutako egunetan, Bergaran.

ARRASATE Zerrajera kaleko jaiak
Umeendako jolasak (17:00), puzgarriak (18:00), konpartsa txikia (19:00), *zumba* saioa (20:00), haur afaria (20:45), auzo afaria (21:15) eta Amaia DJarekin dantzaldia (22:00) izango dituzte.
Gaur, egubakoitza, Zerrajera kalean, aipatutako orduetan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
Askotariko ekintzak egingo dituzte aste bukaeran: kontzertuak, paella lehiaketa, omenaldiak eta zezentxoak, beste beste. Informazio gehiago Aretxabaletako orrietan.
Aste bukaeran, Portasolen.

IMANOL SORIANO

ANTZUOLA Jai nagusiak
Jai giroan ibiliko dira antzuolarrak domekara arte. Herriko jai nagusiak ospatzen dihardute eta askotariko ekintzak izango dituzte ondo pasatzeko eta disfrutatzeko; besteak beste, Mairuaren Alardea egingo dute domekan.
Aste bukaeran, Antzuolan.

OSPAKIZUNAK

OÑATI Garagardo Festa
Aloña Mendiren hamargarrena izango da.
Domekara arte, Foruen plazako jolaslekuan.

OÑATI Patin Eguna
Tatarraz Patin Eskolaren eskutik, askotariko ekintzak: bidegorritik ibilaldiak, hockey txapelketa, eslaloma eta pintxoak. Garagardo festan bazkalduko dute.
Bihr, zapatua, Foruen plazan, 10:00etan.

ARRASATE Saiheski jana
Arrasateko Corazon de Encina elkartearen urteroko afaria.
Bihar, zapatua, egoitzaren terrazan, 21:30ean.

IRTEERA

OÑATI Espeleotxiki Arrikrutzen
Pasarelaz kanpoko abentura familia osoarendako. Hilaren 16an, 15:30ean, 16 urtetik gorakoendako, eta hilaren 17an, 09:30ean, 18 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00 telefonoan.
Aipatutako egunetan eta orduetan, Arrikrutzen.

OÑATI Aloña ilunabarrean
Arantzazuko Parketxearen eta Arantzazuko Adiskideak elkartearen eskutik. Tontorrera 21:00etan heldu gura dute. Jaitsierarako linternak eramatea aholkatzen dute.
Bihar, zapatua, parketxean, 18:00etan.

OÑATI 'Donostia 2016 Bidea'
Arantzazu-Otzaurte izango da 17. etapa. Meteorologiari eta artzaintzari buruzko hitzaldia, gaztagintzari buruzko erakustaldia, Erdi Aroko antzezpena eta Orkatz Abesbatzaren kontzertua Otzaurteko bentan izango dira ekitaldietako batzuk. Oñatitik Arantzazurako autobusa 09:30ean irtengo da postetxetik.
Bihar, zapatua, parketxean, 18:00etan.

BISITA GIDATUAK

OÑATI Unibertsitatea eta parrokia
Bisita gidatuak egingo dituzte, turismo bulegotik, 13:00etan eta 17:00etan.
Etzi, domeka, aipatutako lekuan eta orduetan.

LEINTZ GATZAGA Gatz Museoa
Uztailean eta abuztuan egunero egingo dituzte bisita gidatuak: 12:00etan izango da euskarazkoa eta 13:00etan gaztelaniazkoa. Aurrez eman behar da izena 943-71 47 92 telefonoan.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

IKUSKIZUNA

OÑATI Bakarrizketa saioa
Txiki bakarrizketa saioa Jon Martinezen eskutik, garagardo festaren karpan.
Bihar, zapatua, aipatutako lekuan, 19:00etan.

ARRASATE 'Spazi... o'
Gorputzaren mugimenduekin eta eskujokoekin emozioak eta sentimenduak azaleratu gura ditu Dikothomia taldeak.
Etzi, domeka, Zaldibar frontoian, 20:00etan.

DEIA

OÑATI Txernobilen aldeko kanpaina
Ukrainako haurrak uda partean Oñatira ekartzen dituen Txernobilen Lagunak elkarteren sentsibilizazio kanpaina. Informazio mahaia, musika, puzgarriak, bazkaria eta haurrendako ikuskizuna egongo dira.
Etzi, domeka, Foruen plazan.

IKASTAROAK

ARRASATE Haurrendako tailerra
Garaiko produktuak ezagutzeko eta dastatzeko aukera izango dute, Jardunaldi Gastronomikoen barruan.
Bihar, zapatua, Seber Altuben, 11:00etan.

ARETXABALETA Gazta egiten
Ugala gaztandegiaren eskutik, gazta egiteko prozesuaren nondik norakoak landuko dituzte, hilaren 15ean eta 16an. Izena emateko: 943-79 06 03 edo i*zaditamaia@gmail.com*.
Izen-ematea aipatutako lekuetan.

ARAMAIO Kontserba ekologikoak
Barazkiekin kontserbak eta frutekin marmeladak nola egin landuko dute, uztailaren 19an. Izena emateko: 688 69 57 63.
Izen-ematea aipatutako lekuetan.

OÑATI 'Slack-Line' eta monozikloa
Zirku tailerrean landuko dituzte: nola erabili, zein neurri hartu, beharrezkoak diren babesgarriak zeintzuk diren...
Uztailaren 19an, gaztetxea, 18:30ean.

KIROLAK

BERGARA Emakumeen criteriuma
Infantil, kadete, gazte eta elite mailetako ziklistak lehiatuko dira Bergarako kaleetan zehaztutako ibilbidean. *Puntuazioa* eta *Kanporaketa* modalitateetan lehiatuko dira.
Gaur, egubakoitza, Seminarioko patioan, 18:30ean.

OÑATI Kantoikrit
Pinoi finkoa duten bizikletendako lasterketa. 18 bira egin beharko dituzte. Ostean, sari banaketa ekitaldia egingo dute.
Bihar, zapatua, Foruen plazan, 22:00etan.

IZEN-EMATEA

OÑATI Haurren danborrada
2007an eta 2008an jaiotako neska-mutikoek parte har dezakete danborradan. Izena emateko azken eguna abuztuaren 31 da, eta eskaerak kultura etxean jarritako postontzian utzi behar dira. Zozketa irailaren 1ean egingo dute eta entseguak irailaren 6an hasiko dira.
Bihar, zapatua, aipatutako lekuan, 19:00etan.

OÑATI II. mendi martxa
Gaur, egubakoitza, uztailak 15, zabaltzen da Oñatiko II. mendi martxan parte hartzeko izena emateko epea. Aloña Mendi tabernan eta *www.kirolprobak.com* atarian eman daiteke izena. Izen-emate bakoitzeko euro bat bideratuko dute Hotz Oñati taldearendako. Mendi martxak bi ibilbidea izango ditu: 27 kilometrokoa bata, eta 37,25 kilometrokoa besta. Irailaren 17an egingo da.
Izen-ematea aipatutako lekuetan.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA Kanpai joleen argazki lehiaketa
Entzun bakarrik egiten diren kanpai hotsen alderik gizatiarrena erakutsi beharko da erretratuetan. Lanak irailaren 15a baino lehen entregatu behar dira *kanpaijoleak@gmail.com* edo *kultura@aretxabaleta.eus* helbideetan.
Lanak entregatzeko epea, irailaren 15a.

DEBAGOIENA Udako argazkiak
Udako argazkien XII. Goiena lehiaketan parte hartu gura dutenek *argazkiak@goiena.eus* helbidera bidali edo Goienaren egoitzara eraman behar dituzte erretratuak. Irailaren 18ra arte jasoko dira argazkiak, eta irabazleak urriaren 14an jakinaraziko dira. Originaltasuna, kalitatea eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan erretratuak baloratzeko orduan.
Lanak entregatzeko epea, irailaren 15a.

ZINEMA

EIBAR

COLISEO

Money Monster
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Premonicion
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Ice Age, el gran cataclismo
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Ice Age, el gran cataclismo
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.

Money Monster
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.

Un espia y medio
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Mi amigo el gigante
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 20:00.

600 millas
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

Esperando al rey
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Infierno azul
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.

Buscando a Dory
Egubakoitza: 16:30, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00.

Antes de ti
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.

Independence Day
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

La clase de esgrima
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00.

Angry bird
Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

Ice Age, el gran cataclismo
Zapatua: 23:00.
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00.

Infierno azul
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

La noche de las bestias
Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

Premonicion
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:25, 20:30, 22:35.

Buscando a Dory 3D
Egubakoitzetik eguenera: 16:00.

Buscando a Dory
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:15, 19:15, 20:30, 22:45.

Un espia y medio
Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

Mi amigo el gigante
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:25, 21:50.

Money monster
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Antes de ti
Zapatua: 23:50.
Egubakoitzetik eguenera: 21:30.

Dioses de Egipto
Zapatua: 00:35.

Independence Day
Egunbakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Expediente Warren
Zapatua: 00:00.

KRITIKA

Bi etaparen arteko tartea

FRANK GRIEBE

TODOS QUEREMOS ALGO

★★★☆☆

Zuzendaria: Richard Linklater.
Herrialdea: AEB.
Urtea: 2016.
Aktoreak: Blake Jenner, Zoey Deutch, Tyler Hoechlin.

Jake 1980. urtean herri batetik unibertsitatera ikastera heltzen den gaztea da. Oraindik kurtsoa hasteko hiru egun eta ordu batzuk falta dira. Richard Linklaterrek epe hori erabiltzen du gaztearen bizitzan gertatzen den aldaketa hori deskribatzeko. Jakek beisbolean jokatzen du eta kirol horretan arituko diren gazteentzat unibertsitatetik gertu etxe batzuk daude. Gazte pila elkartzen da etxe horietan. Batzuk heldu berriak dira, beste batzuek, berriz, denbora luzeagoa daramate. Unibertsitatera heltzea pauso handia da: etxetik kanpo egon, festetarako gogoa eta askatasuna izatea... Adin horrekin portaera estereotipoa jarraitu behar da: parrandak, alkohola, sexua eta lehiakortasun sena. Denek lehenak izan behar dute eta besteen aurrean harrotasunez agertu behar dute. Bizitzan garailea izatearen espiritu amerikarra antzematen da. Giro horretan, laguntasun eta lehia harremanak sortuko dira.

Todos queremos algo bizitzaren garai zehatz batera hurbiltzen da. Zineman izan dira unibertsitate garaian gertatzen diren istorio asko. Eta sarritan, ezaugarri antzeko pertsonaiak ikusteko aukera izan dugu. Batzuetan, lan horiek pertsonaien ibilbideak azaltzen dituzte, horien baldarkeriak detailez erakusten, film komertziala lortu nahian. Astakeria protagonista bihurtzen da. Kasu honetan, Linklaterren helburua desberdina da. Ez du ezer azpimarratzen. Istorioak ez du gorabehera handirik eta ez da ezer garrantzitsua gertatzen. Hala eta guztiz, oso ondo deskribatzen ditu mundu horren ezaugarriak. Pertsonaien itxaropenak, heltzerakoan zer topatzen duten, bizitza nola aldatzen zaien... Bizitzako bi etaparen arteko tartea erakusten digu. Zuzendaria dotoreziaz hurbiltzen da helburura.

ANTONIO ZABALA

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. **Hartu parte eta... on egin!**

Sirimiri jatetxean
prestatutako hegaluze
marinatu broxeta
azalore-risoto
faltsuarekin

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 *edo* ***Puntua.eus*** *edo Whatsapp:* ***688 69 00 07***

goienakluba

goiena

2016-07-15

BUKATZEKO

Antzuolatik Nafarroako Parlamentura

- Txistulari taldea San Fermin jaietan izan zen aste bukaeran eta Iruñeko kale bazterrak girotu zituen
- Ainhoa Aznarezek gonbidatuta ezagutu zuten parlamentarien egoitza eta Iker Mansok dantzan egin zion

MIRARI ALTUBE | ANTZUOLA

"Datorren urtean sanferminetara! Eta Parlamentuan txistua jo behar dugu!", esan zuten iaz Antzuolako txistulariek; eta baita bete ere. Nafarroako Parlamentuko presidente Ainhoa Aznarezek gonbidatuta izan ziren joan den aste bukaeran. Antzuolan jaioa da Aznarez, eta umetan joan zen Iruñera bizi izatera gurasoekin eta anaiarekin: "Haren lehengusua da Iker Manso txistularia, eta, gure nahiaren berri eman zionean, berehala erantzun zion baiezkoa", argitu du Patxi Olabarriak, txistulari taldeko kideak.

Antzuolako txistulariak eta horien artean Aznarez, eskuinetik hirugarrena. | A.T.

Antzuolarrak txistua jotzen Nafarroako Parlamentuan. | ANTZUOLAKO TXISTULARIAK

Mansok aurreskua

Autobusean joan ziren domeka goizean: "Iruñera iritsi orduko hasi ginen txistua jotzen kaleetan, eta iluntzean itzuli arte ez ginen isildu", dio Olabarriak. 11:30ean zituzten zain Parlamentuan Aznarez eta haren familia, Iruñean bizi den beste antzuolar bat, eta Lizarrako alkatea, Koldo Leoz, eta zinegotzi bat: "Alfonso Ugarte konpositore antzuolarra Lizarran bizi izan zen, eta horregatik gonbidatu zituen Lizarrako alkatea eta kultura zinegotzia Ainhoak", azaldu du Olabarriak, eta gaineratu: "Ekitaldi xumea baina oso hunkigarria izan zen. Antzuolako zortzikoa jo genuen; zortziko horrek Alardeko musika ere tartekatzen du. Benetan kuriosoa izan zen Nafarroako Parlamentuan doinu horiek entzutea, Alardean eszenifikatzen delako antzuolarrak Nafarroako erregearen aldeko guduan borrokatu izana".

Ondoren, Mansok aurreskua dantzatu zion lehengusinari: "Emozioz betetako malkoak atera zitzaizkion hari. Ainhoaren eta Ikerren aitaita txistularia zen, Eloy Igarza, eta horren aita –Ainhoaren eta Ikerren birraitaita– danborraria, Pedro Igarza. Ainhoak asko maite du txistua; hain zuzen, bere bulegoan txistu bat dauka". Biribilketa ere jo zuten, eta, ondoren, Parlamentuko presidenteak goitik behera erakutsi zien egoitza: parlamentarien jarlekuak, bilera gelak, presidentearen bulegoa... Argazkiak ere atera zituzten. "Benetan pozik eta gustura egon ginen txistulari guztiok, eta Ainhoa eskertu gura dugu", dio Olabarriak; bazkaldu ere elkarrekin bazkaldu zuten: "Eta datorren urtean badugu nora joan: Lizarrara. Halaxe agindu genion-eta hango alkateari". Hori baino lehen, bihar, urtero legez, Antzuolako jaietan izango da Aznarez.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Euskara aurretik

Euskaltzaleok badaramagu bost bat urte gogoetan, etorkizunaz kezkatuta. Ohartu ginen hamarkadetako lanean arrakasta handien ondoan ajeak ere pilatzen ari zitzaizkigula. Euskararen biziraupenari bultzada eman ondoren bizindarra lortzea dugula orain helburu, eta, horretarako, lehengo tresna guztiak ez direla bere horretan egokiak.

Eta hasi gara mugitzen, aukera berrien bila, jakinduria baliatzeko prest eta inteligentziaz jokatzeko gogoz. Zorionez, mugimendu horiei esker –oro har– elkarrengana hurbiltzen ari gara, jabetuta lankidetzan jardunda agian aukera izango dugula, bakarka ziur ezetz.

Kontua da azken boladan kezka antzekoak ikusten ditudala herrigintzaren esparru askotan; alegia, inork ez daukala oso argi zein den gure herri proiektua ekonomia eta enpresan, edo autogobernuan eta lurraldean; ez dakigula ziur zenbateraino eutsi ahalko zaion identitateari etorkizuneko munduan eta zer egin beharko genukeen gurea sendotzeko; ez dugula orain-dik adostu zein motatako gizartea nahi dugun...

Behingoagatik, euskaltzaleak aurretik gabiltza eta horrek euskara aurrean jartzen du. Gure posizioaren araberakoa izango baita euskararena.